

USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak ...

1. **Immigrazioa. XABIER AIERDI URRAZA**
2. **Lasterbideak komunikazio publikoan. GOTZON TORAL MADARIAGA**
3. **Immigrazioari eta hiritartasun-ereduei buruzko diskurtsoak. IOE KOLETIBOA**
4. **Arauz kanpoko immigrazioa eta atzerritartasuna. SUSANA CUESTA MANJÓN**
5. **Immigrazioa eta lan-merkatua. LORENZO CACHÓN RODRÍGUEZ**
6. **Etorkinen ekonomia-ekarpena. ARKAITZ FULLAONDO ELORDUI-ZAPATERIETXE**
7. **Zaintzaile migratzaileak bizitzaren sostengurako. LUCÍA MARTÍNEZ VIRTO**
8. **Immigrazioa, enplegua eta zaugarritasuna Euskadin. LUIS SANZO GONZÁLEZ**
9. **Egonkortasun-continuuma. GORKA MORENO MÁRQUEZ**
10. **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE). ITZIAR DE LA PEÑA LAUSTALET**
11. **Arraza, etnizitatea eta beste zenbait kontzeptu. ANDREA RUIZ BALZOLA**
12. **Estatuak, gutxiengo nazionalak eta etorkinen gizarteak. XABIER ETXEBERRIA MAULEON**
13. **Emakumeak eta erlijioak. IZASKUN SÁEZ DE LA FUENTE**
14. **Eskuin erradikalak. JESÚS CASQUETE BADALLO**

USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: immigrazioa

Xabier Aierdi Urraza

1. Immigrazioa fenomeno iragankorra al da?

Ez dirudi, eta halaxe berresten dute migrazio-gaietako aditu handi guztiek. Euskadin behintzat ez da iragankorra, non ez den, esaterako, *koronabirusaren* edo antzeko ustekabeko fenomeno baten ondorioz kataklismo ekonomiko bat gertatzen. Arrazoizko logika baten ikuspegitik, Europaranzko immigrazioa areagotuz joango da, eta lehenik eta behin, oinarritzko ezaugarri bat izango du, alegia, gure beharren arabera aukeratutako immigrazioa izango dela. Bigarrenik, ezin dugu ahaztu, Nazio Batuen Populazioaren Dibisioaren aurreikuspen guztien arabera, Afrikako biztanleria orain halako lau izango dela mendearen amaierarako, eta, beraz, 4.300 milioi pertsona inguru izatera iritsiko dela. Orain 1.247 milioi dira. Hala ere, demografiari buruz dugun ezagutzaren arabera, mendearen amaiera aldera munduko biztanleria kopurua murrizten hasiko da.

2. Benetan guk aukeratzen dugu immigrazioa? Dei-efektua edo behar-efektua?

Bai horixe. Futbolearen bezala da hau: Athletic-ek izan ezik, gainerako taldeek behar dutena bilatzen eta aurkitzen dute, dagoen lekuan dagoela ere eta norberaren ahalmen ekonomikoaren arabera. Ezin da ukatu *dei-efektua* antzeko zerbait gertatzen dela, baina betiere *behar-efektua* baten ondorioz: zer behar duzun, horretarako dei egiten duzu. Glovo edo Uber enpresen funtzionatzeko era, gutxi gorabehera. Euskadin Latinoamerikako emakumeak eskatzen ditugu, familiaren eta zaintzaren arloko beharrak asetzeko, eta gizon latinoamerikarrak zerbitzuen sektorerako. Europako erdialdeko pertsonak ere bilatzen ditugu industria-sektorerako, esaterako Goierri, Gipuzkoan. Txinako biztanleria autorregulatu egiten da. Afrikarra: 1) Afrikako iparraldekoa hona iristen da hurbil dagoelako eta interes nahiz konpromiso ugari lotzen gaituztelako; eta 2) Saharaz hegoaldekoak, hemen sareak dituzten ausartak iristen dira.

3. Gizarte hartzailea itsasargi baten modukoa da?

Itsasargiaren teoria deitu genezakeen hau oso garrantzitsua da migrazioak azaltzeko. Gizarte

hartzaileak seinaleak igortzen ditu, eta berak zer etorkin mota nahi lukeen jakinarazten du, betiere seinaleak norabide jakin batzuetara zuzenduta, eta ez beste batzuetara. Hau da, itsasargiak eremu batzuk argitzen ditu, eta beste batzuk ez. Edo eremu batzuk beste batzuk baino gehiago argitzen ditu. Gainera, argiak intermitenteak dira. Jendearen artean batzuek ikus ditzakete, eta beste batzuek ez hainbeste. Alegia, eremu batzuetara oso nabarmen iristen da, eta trabak edo iragazkiak jartzen dira argia beste leku batzuetara indarrik gabe irits dadin. Seinale horiek hartzaile potentzialek ulertzen edo deszifratzen dituzte, eta haiek erabakiko dute, azken buruan, egiten zaien gonbita onartzen duten ala ez. Pertsona batzuek erakargarri edo iradokigarritzat jotzen dute gonbita, eta azkenean onartu egiten dute; hala, naturaltasun handiz, guk nahi dugun jendea iristen da hona.

4. Baina, guk nahi duguna baino gehiago hartzen dugu?

Ez askoz gehiago. Normalean parra gelditzen da, hau da, dezenteko oreka lortzen da nahi den immigrazioaren eta azkenean hemen finkatzen denaren artean. Gehienez ere, finkatzen den populazioaren % 10 da eskatu ez dena, eta gure beharreatatik ez baizik eta beren beharreatatik iristen dira hona. Gainerako kasuetan, guk igortzen ditugun seinaleak jasotzen dituzte, eta izangaiak bidaia prestatzen hasten dira. Betiere, lehenik hemen finkatuta dagoen ahaideren batek deitzen die hurrengoak. Hala izan da beti. Beraz, **Erpurutxo eredia** dei genezakeen fenomeno gertatzen da: aurrekoek ogi-papurrez markatutako bidetik etortzen dira hurrengoak. Migrazioa fenomeno zaila da mugitzen den pertsonarentzat, baina funtzionamendua erraz ulertzen da. *Oinarrian dei bat dago*. Lehen, eskutitzez iristen zen deia, gero telefonoz, eta orain Skype, WhatsApp edo antzekoren baten bidez. Hemendik erreklamatu eta hona iristen dira. Deialdia eteten bada, etorrera ere eten egiten da. Hemen finkatuta daudenak trafiko-agente gisakoak dira, eta eskuan semaforo bat balute bezala jokatu dute. Ekonomia egoera onean dagoen garaian argi berdea ematen dute, eta ekonomia

egoera txarrean dagoenean gorria. Argi horia zailagoa da deszifratzen.

5. Hau beti hala izango da?

Bai. Lehen hala izan zen, orain hala da eta gero ere hala izango da. Funtzionamendua hain sinplea izanda ere, immigrazioari buruzko **ikuspegi hidraulikoa** dugu. Bi ur-tanga erabat konektatuta izatea nahi genuke –alegia, hemen ditugun beharren ontzia eta etorkin potentzialen beharren ontzia–, eta egun, ordu eta segundo oro, istantean, une horretan behar den etorkin kopuru zehatza egotea, doi-doi, *ez gehiago*.

6. Alegia, hauspoa puzten edo husten duen akordeoia bezala?

Bilatzen den orekaren arabera, etorkinak onartu edo arbuia egingo lirakeke. Hori bera gertatzen zen goizero Andaluziako eta Extremadurako herrietako plazetan, eguneko beharren arabera kontratatzen zituztenean langileak. Pertsona horiek eskaeren arabera agertzea eta desagertzea nahi genuke, akordeoiaren hauspoa puztu edo husten denean bezala. Bada, batzuetan migrazio kaotikoa dugula iruditzen bazaigu ere, **praktikan, sakonean, hori da egiaz gertatzen dena**; izan ere, migrazio-mugimenduak, neurri handian, etorkinek bere erregulatzen dituzte. Haiek abiarazten edo geldiarazten dituzte migrazio-mugimenduak, haiek zabaltzen dute deia etorkinak behar direnean, eta atzeraldietan haiek iragartzen diete familiakoei, lagunei eta auzokideei etortzea ez duela merezi. Migrazio-mugimendu erregulatu ugari dago. Oldeak, berriz, oso gutxi. Oldeen aipamenak, ordea, gehiegi. Ulertzen ez dugun guztia gehiegikeriaren ikuspegitik azaltzen dugu. Hala ere, olde edo inbasioak gertatzen ari direlako usteen aurka, esan beharra dago migrazioek, neurri handi batean, tantakako urreztapenaz edo mikro ihintzaduraz funtzionatzen dutela, ez uholde bidez.

7. Eta tantakako hori nola da?

Dagoeneko finkatuta dagoen batek ahaideren bati deitzen dio, eta horrek beste bati, gero lagun bati, auzokide edo ezagun bati eta, pixkanaka, tanta horiek ur-emari eta erreka bihurtzen dira. Ibaia ur-emari handikoa bada, agintari batzuek presak egiten dituzte, fluxua geldiarazteko. Beharrak irauten badu, ordea, urak gainezka egiten du eta bere bidetik jarraitzen du. Horrek azaltzen du Euskadiko herri eta auzo askotan herri bereko etorkin asko biltzea; lehen, Espainiakoak, eta orain, atzerrikoak. Atzerriko euskal koloniak mekanismo horren beraren arabera eratu izan dira. Hori bai, leku batera iritsiz gero, pertsonak finkatu egiten dira, eta bertan geratzeko joera izaten dute. Eta aitona-amona etorkinak, azkenean, beren bilobak diren lurralde horretan bertakotzen dira. Integrazioaren **burdinazko legea** da. Beraz, ez dago ur-tanga edo hauspo kontrolaturik, beharrak eragindako

fluxuaren gainera funtzionatzen duenik. Migrazioa egiturazko fenomeno da onartzea... hori da migrazioaren kudeaketa egokia egiteko bide onena. Baina bestalde, egia da, Arangok dioen moduan, migratu ahal izateko aukera eta ahalmena eduki behar dela. Izan ere, munduko biztanleriaren bolumenari erreparatzen badiogu, eta kontuan hartzen badugu 300 milioi pertsona bakarrik direla jatorriko herrialdetik kanpo bizi direnak, esajerazio guztiei kontra eginez esan daiteke gurea **planeta geldia** dela.

8. Baina, ez al da hobe immigrazio arautua?

Beharbada bai, baina, arestian esan dugunez, immigrazioa **eguneroko jardunean erregulatzen** da. Eta, gainera, bada beste kontu bitxi bat, intuizioei kontra egiten diena. Hona hemen paradoxa: helmuga-herrialdean egoera ekonomikoa zenbat eta hobea izan, orduan eta etorkin gehiago iristen da, eta, beraz, ezinbestean, ilegal deitu izan ditugun pertsona gehiago dago; hau da, irregulartasun-egoera administratiboan daudenak, paperen bat falta dutelako. Lurralde edo eskualde batean egoera erregularizatuan etorkin **asko** edo **gehiegi** egoteak aditzera ematen du bertako ekonomia hilda dagoela.

9. Nolako litzateke egoera ona?

Hara, egoera on batean, etorkin finkatuen % 20 irregulartasun-egoeran egongo litzateke, betiere horiek beti pertsona berak ez badira, bistan da. Alegia, horrek adieraziko luke jendea iristen ari dela, beste batzuen egoera legezkatzen ari dela, eta gainerakoak herritartasuna lortzen ari direla. 2019 urtearen amaieran, EABI inkestako emaitzen arabera, atzerriko etorkinen % 4,6 besterik ez dago irregulartasun-egoeran, eta % 0,6 gerora sortutako irregulartasunean. Gerora sortutako irregulartasunak esan nahi du lehen legezko egoeran zegoen pertsona batek, arazoiren batengatik, egoera hori galdu duela eta berriro ere hasierako puntura itzultzen dela. EABI edo Etorkin Atzeritarrei Buruzko Inkesta da gure datu-iturririk onena, eta duela lau urtetik egiten du Eusko Jaurlaritzak; hortik ateratzen dira atzeritar jatorriko biztanleriari buruzko datu estatistiko baliozatuak.

10. Baina, ez al da kontraesana legez kanpoko pertsonak egotea?

Bai, jakina, horixe esan dugu arestian. Geure buruari zera galdetu behar diogu: zergatik egiten dituzte herrialde **guztiak** azkenean legezkatze-prozesuak, batzuetan oso jende multzo handienak? Hara, bada, azkenean esanbidez eta publikoki aitortzen dutelako lehendik pribatuan onartzen zutena: finkatu diren pertsonak beharrezkoak direla. Lehenik, harro jartzen gara eta inor ez dela sartuko esaten dugu. Bigarrenik, ez ikusia egiten dugu. Hirugarrenik, azkenean legezkatu egiten da lehen esan gabe onartzen zena. Eta berriz ere galde diezaiokegu geure buruari: ikasi al dugu ikasgaia?

11. Ikasten da ala ez?

Ez horixe, hasierara itzultzen gara, antzara-jokoan bezala. Horretan eragin handia izaten du iritzi publikoak. Migrazio-fenomenoak ongi ezagutzen dituen aditu batek, Sami Naïr-ek, dioten bezala, beti egoten da aitortzen ez den *sokatira* bat etorkinak hartzen dituzten gizarteetan: sokaren alde batean daude immigrazioa beharrezkoa dela badakitenak (politikariak, aholkularitza-bulegoak, enpresariak, ikerketa-bulego pribatu nahiz publikoak, adituak), eta beste aldean gizarte, arbuioa adieraziz. Angela Merkelek bere “boto-emaile naturalen” heren bat galdu zuen esan zuenean berriz ere gauza bera egingo zuela, 2015ean Siriatic ihesi joan zirenei buruz ari zela. Horri esaten zaio “**Needed but not wellcome**” printzipioa, alegia, “Beharrezkoak baina ez ongi etorriak”.

12. Zer da egonkortasun-continuum delakoa?

Isilbidezko mekanismo bat da, honetan datzana: Euskadira etorkin gisa iritsi naiz, ez bizileku-baimenik ez lan-baimenik ez dudala; horietako bat lortzen dut eta, beharbada, horietako bat eskuratuta, bestea ere lor dezaket; horrela hiru urte igaro dira, latinoamerikarra banaiz, eta auskalo zenbat (zortzi? bederati?) afrikarra edo asiarra banaiz. Beharbada, legezko paperak lortzeko aukera dut, eta lehenengo legezko bizileku-baimena eskatzen dut; lortuta ere, galdu dezaket, baimen horietako bat falta bazait. Bigarrena lortzen dut, gauzak ongi doaz, itxuraz. Bi edo hiru urtetan ziurtatu dut, dagoeneko bizileku iraunkorra dut, eta, zazpi edo hamahiru urte igarota, herritartasuna eskatzen dut. Laburbilduz, zenbat eta denbora gehiago igaro, orduan eta egonkortasun handiagoa.

Hona hemen formula matematikoa:
Egonkortasuna = egonaldiaren iraupena + lan egokitzapena +/- legediaren eragina, jatorriko kontinentearen arabera.

13. Beraz, Euskadin immigrazioa egiturazko fenomeno da onartzen al dugu?

Hala onartu beharko genuke. Ez da gustu edo gogo kontua. Egitatea da. 2019an, Euskadin atzerritar jatorriko 225.000 lagun inguru daude. Zer esan nahi du horrek?:

- ✓ Euskadin jaiotako 16.000 ume inguruk oraindik atzerriko herritartasuna dutela,
- ✓ dagoeneko badirela 71.000 lagunetik gora atzerrian jaio eta herritartasun espainiarra dutenak, eta
- ✓ atzerrian jaio eta atzerriko herritartasuna duten beste 145.000 lagun bizi direla Euskadin.

		Sorlekua	
		Espainia	Atzerria
Nazionalitatea	Espainiarra	1.976.354	71.215
	Atzerritarra	16.204	135.315

Hemen jaio eta oraindik atzerritarrak diren pertsonak egoteak, eta beste pertsona batzuek atzerrian jaio eta hemengo herritartasuna izateak, adierazten digute aurrean dugun biztanleriak hemen finkatzea erabaki duela, gehienek betirako. Egitate hori onartu behar dugu errealitatearen datu huts eta oinarritzkoa den aldetik, errealitatea beti nagusitzen baita. Errealitate hori zenbat eta lehenago onartu, hobeto kudeatuko ditugu harrerarako eta finkatzeko prozesuak, eta orobat dibertsitatea.

14. Eta hurrengo urteetan? Niels Bohr igarlea

Niels Bohr Fisikako Nobel saridun jakintsuak esan zuzenez: “iragarpenak zailak dira, batez ere etorkizunari begira egin behar direnak”. Baina tartean ezinezko gertakizunik, beltzarga beltzik edo ustekabeko kataklismorik ez bada, hurrengo urteetan atzerritarren populazioa hazi egingo da: 10.000 edo 15.000 atzerritar gehiago izango ditugu urtean. Horrek esan nahi du aldi berean egin beharko dugula dena: batzuen harrera, besteentzako finkatze-politikak eta dibertsitatearen kudeaketa gizarte osoarentzat. Egoera bitxia da; izan ere, hemen jaiotako umeak izango ditugu, hezkuntza-sisteman naturaltasun eta normaltasun osoz ari direnak baina atzerriko herritartasuna izango dutenak, eta beste alde batetik, hemengo herritartasuna duten umeak ere izango ditugu, atzerrian jaio baina estatistiketatik atzerritar gisa desagertzen direnak. Normaltasunez ikusiko dugu **euskaltasuna** leku askotatik definitzea, osagai komun batekin: **auzo(kide)tasun askotarikoa**.

15. Gainera, badira iragaitzako migratzaileak eta errefuxiatuak


Egoera korapilatu egiten da; izan ere, 2018an izan genituen pertsona atzerritarren fluxu batzuk, gure ustez errefuxiatuak zirenak, baina gehienak Europako beste herrialde batzuetarako bidean zeuden. Bi fluxu desberdin ditugu hor: alde batetik, asilo-eskaera egin duen populazio bat dugu, bere herrialdeko egoera politikoa normalizatzea espero duena, bera eta bere familia guztia berme eta eskubide guztiekin itzultzeko hara. Bestetik, hor daude guk errefuxiatutzat hartu genituen pertsonak, baina lekualdatuak izan zitezkeenak eta Europako beste herrialde batzuetan finkatzea erabaki dutenak, han dutelako “beren jendea”; horiek aldi baterako –egunak, asteak– geratzen dira Euskadin. Beraz, harrerako neurri desberdinak hartu beharko dira batzuentzat eta besteentzat.

16. Terminologia ere korapilatsua da.

Egoerak gero eta korapilatsuagoak eta aldakorragoak direla ikusten dugu. Horregatik, gure analisisan egoera desberdinak zedarritu eta bereizi behar ditugu, eskuartean dugun fenomenoak hobeto azaltzen lagunduko diguten hitzak erabiliz. Agian, hitz horietakoren bat ez da ulertuko gizartean, baina gauza bera gertatzen da medikuntzan edo beste edozein esparrutan. Egoera bakoitza zenbat eta hobeto zedarritu, hobeto artatu eta kudeatu ahal izango dugu. Horregatik bereizten ditugu iragaitzako migratzailea, immigrantea edo etorkina, emigrantea, errefuxiatua, atzerritar jatorrikoa, atzerriko herritartasuna duena, etab. Izan ere, gauza bera iruditu arren, xehetasunetan desberdinak dira, eta xehetasun horiek garrantzi handikoak dira eskubide eta betebeharre dagokienez.

17. Eta etorkinen sexua ere aukeratu dugu?

Bai. Aldakuntza txikiak gorabehera, oro har biztanleriaren erdia gizonezkoa eta beste erdia emakumezkoa izaten da. Getxon, esaterako, joera hori nolabait hausten da, bertan jaiotako arteen emakumezkoak % 53 baitira, eta gizonezkoak % 47. Guztizko biztanlerian ere gauza bera gertatzen da; izan ere, bertakoak kanpotarrak halako bederatzidirenez, horrek baldintzatu egiten du adin-egitura.



Hala ere, konparaziorako, hona hemen lehenengo datu interesgarri bat, Espainian jaio baina oraindik atzerritarrak diren umeen datua: ausaz, mutirik dira gehiago —% 52— neska baino —% 48—. Baina, ondoren, atzerrian jaiotako beste bi taldeak aztertzen baditugu, hau da, etortzeko deitu ditugunak, zein da ondorioa? Gehiago bilatzen ditugula emakumeak. Hala, atzerrian jaio eta Getxon bizi den biztanleriaren % 60, hemengo herritartasuna izan ala ez, emakumezkoak dira. Eta Getxorako balio duenak, kasu honetan, Euskadira ere balio du.

18. Autobusetik igogailura?

“Autobusetik igogailura” esapidea ekarri dugu immigrazio-prozesu guztiekin gertatu dena adierazteko. Askotan, etorkinen etorreraz bakarrik

ohartzen gara, baina ez gara ohartzen ondoren, gizartean, badela igogailu antzeko bat, denbora iragan eta aukera ematen diona etorkin horri, helmugako leku horretan egonkortuz eta hobetuz joateko. Burua hotz, esan dezakegu oro har Espainiako biztanleria, hiru belaunalditan, orain **Espainia hutsa** (hustua esaten diote batzuek) delako horretatik, nekazaritzan ari zen horretatik, belaunaldi hiritartu batera igaro garena, non lehengo haien bilobak unibertsitatara iritsi diren. Igogailuari esker gertatu da hori; izan ere, ikusezina iruditzen bazaigu ere, hor dago. Igogailu hori da lehengo belaunaldiek ondorengoei utzi dieten ondarea. Ez da hutsetik sortzen. Hori Espainian barrena izandako migrazioa zabaldu bazen, zabal dezagun aukera orain atzerritar jatorriko etorkinentzat. Autobusak batetik bestera eraman eta garraiatzen du. Igogailua gizartean gora egiteko bidea da.

19. Askotan entzuten da lelo hau: “Guk ere garai batean alde egin genuen beste herrialde batzuetara, baina desberdina zen, legez joaten ginelako, jatorrian lan-kontratua lortuta”. Zer esan daiteke hori entzutean?

Bada, dirudienez, ez zen hala izan zehazki. Lan Ministerioaren datuen arabera, 1960 eta 1965 bitartean, emigrazioaren % 51 librea edo klandestinoa izan zen. Hau da, paperik gabekoa, edo ilegala, arruniki esan ohi denez. Jatorrian kontratua lortuta baino gehiago, helmugako herrialdean dagoen norbaitek hitzemandako kontratuarekin emigratzen du jendeak. Jatorriko herrialdean alde egiteko zain dagoen pertsonak helmugan dagoen ezagun baten deia jaso ohi du. Semaforoa berde dagoela esaten dio, eta kontratatzailearekin hitz eginda dagoela. Semaforoa gorri dagoenean, ez da deirik izaten.

20. “Aizu, baina hainbeste kultura-aniztasun eta desberdintasun ditugula... azkenean oso gizarte zatikatua izango dugu”

Gizarte baten kohesioa ez dago biztanleen arteko antzekotasun edo berdintasunaren baitan. Gizarte-kohesioa dator demokrazia handiagoa edo urriagoa izatetik, berdintasun sozioekonomikotik eta parte-hartze politikotik. Izan ere, atzera begiratzen badugu, herritarren arteko berdintasun kulturala bilatu duten ereduak izan dira tirabirak eta hausturak eragin dituztenak. Epe ertain eta luzera, kultura-aniztasun handieneko gizarteak dira oparoenak. Aniztasunak porrot egiten du desberdintasun ekonomiko eta soziala dagoenean. Eta desberdintasun horiei jatorriko desberdintasunak gehitzen zaizkienean, gizartea are kalteberagoa da.

21. “Bai, ez da bertako haur asko jaiotzen, baina emakume etorkinek haur asko izaten dituztenez, gauza konpentsatu egingo da”

Bada, ez dirudi atzerritarren jaiotza-tasak salbatuko gaituenik, edo hori denik haien misioa. Atzerritarrak bizi-baldintza duinago batzuen bila datoz, berentzat eta beren ondorengoentzat. Are gehiago, emakume migratzaileek bertakoen zailtasun berberak aurkitzen dituzte haurrak izateko, eta denbora igarota beren ugaltze-tasa bertako emakumeen tasarekin berdintzen da. Izan ere, denok izaten dugu lana eta familia uztartzeko arazoa, jatorria edonon dugula ere. Kontua da iraganeko eskemekin begiratzen zaiola auzi horri. Hona hemen zer dioten Unai Martinek, demografian dugun aditu argienetako batek: “Batzuetan, esaten da Euskadik arazo demografiko handia duela aurrean. Hala ere, gaurko gure egoera demografikoa historian inoiz izan dugun onena da. Une honetan, euskal biztanleriak bizi-itxaropen handia du, inoizko handiena, eta umeen heriotza-tasa oso baxua da. Beste garai batzuetan, ordea, hori ez da hala izan, eta heriotza-tasa handiaren ondorioz, demografia-egoera ez zen batere eraginkorra. Jaiotza-tasa altua behar zen heriotza-tasa handi hori konpentsatzeko. Une honetan, berriz, demografiaren aldetik Euskadi oso eraginkorra da, eta bizitza oro har denontzat luzatu izanari esker, ez da beharrezkoa beste garai batzuetan lortu nahi ziren jaiotza-tasak lortzea”. Alegia, ez gaude negu demografiko baten aurrean, baizik eta adin-egitura berri baten aurrean.

22. Beraz, horrek esan nahi du jaiotza-tasa ez dela arazoa?

Unai Martinek esandakoari jarraituz, “Euskadiko jaiotza-tasaren arazoa ez da, inolaz ere, gure tasarekin ordezkatzeko-maila batera ez iristea. Are gehiago, gehiegitan aipatzen diren ordezkatzeko-mailak – emakumeko 2,1 ume– beste garai bateko parametroak dira, eraginkortasuna askoz eskasagoa zen garaietakoak, eta ez dute balio gaur aplikatzeko. Gainera, jaiotza-tasak ez du hainbesteko eragina euskal biztanleriaren hazkundera; migrazio-fluxua da (immigratio-emigratio harremana) egiaz hurrengo urteetan euskal biztanleria handitzea edo ez handitzea eragingo duena. Gure egiazko kezka, ordea, beste bat izan beharko luke: hainbat ikerketa eta inkestaren arabera seme-alaben kopurua bi ingurukoa bada ere, bikote gehienak kopuru horretara ez iristea. Horren arrazoiak gizarte-egituran daude, ikaragarri zailtzen baitu ugaltzeko eskubide hori gauzatu ahal izatea, hau da, nahi diren seme-alabak izatea. Batez ere, honetaz ari gara: gazteek lanaren eta etxebizitzaren arloan duten prekaritateaz, aurrera begirako espektatiba faltaz, eta, nagusiki, umeak hazteko dauden genero-desberdintasunez.

23. Eta itzuleraren kontua, zertan da?

Krisiari buruz eskuartean ditugun datuen arabera, sartzeko garaian iragazkia jartzen den bezala, irteteko garaian ere iragazki bat dago: Amparo Gonzalez-Ferrer adituak dioenez, “eskura ditugun datuek adierazten digute 2000 eta 2007 bitartean iritsitako en laurdenek, gutxi gorabehera, alde egin dutela 2008 eta 2018 bitartean, lehenago alde egin ez bazuten. Jatorriari begiratuta, eta talderik handienei bakarrik erreparatuta, portugesak izan ziren gehien beren herrialdera itzuli zirenak (% 35), eta haien atzetik ekuadortarrak (% 28); ondoren, errumaniarrak eta alemaniarrak (% 25). [...] Talde handien artean, kolonbiarrak eta marokoarrak dira itzulera-tasarik txikiena izan dutenak hamarkada horretan”.

24. Eta ezaugarri soziodemografikoei erreparatuta?

Aditu horren beraren arabera, “azterketa xeheago baten emaitzek, partzialak izanda ere, erakusten dute etorkinek Espainiatik alde egiteko duten joera ez dela asko aldatzen hezkuntza-mailaren arabera, eta horrek adierazten du ez dugula lortzen hezkuntza-maila handienekoak aukeratzea etortzen direnean, baina alde egitean ere ez ditugula gainerakoak baino gehiago galtzen. Sexuka, berriz, emakumeek alde egiteko joera gutxiago dute gizonezkoek baino. Eta gizonezkoen artean Espainiatik alde egiteko joera gutxiago dute bertan noizbait lanean aritu direnek, beti lan-merkatutik kanpo egon direnek edota krisia hasi aurretik aldi batez egoera irregularrean egon direnek baino. Beste era batean esanda, dirudienez, alde egiten dute lege edo lan aldetik egoera okerrean daudenean. Hala ere, emaitza horiek partzialak dira oraindik, eta beste adierazleren bat jaso beharko lukete, jatorriko herrialdean pertsona horiek zer egoerataro itzultzen diren jakiteko –beren jatorriko herrialdera itzultzen baitira alde egiten duten etorkin gehienek, baliteke-eta horrek asko baldintzatzea Espainian bizi duten egoeraren azalpena”.

25. Zer jarrerarekin heldu behar diogu immigrazioari?

Normaltasunez eta lasaitasunez. Egokia iruditzen zait Siniestro Total taldeak disko bati jarri zion izenburua: “Ante todo mucha calma!”, hau da, “oroz gainera, lasaitasun handia”; izan ere, migrazioaren errealitatea eta horren ondoriozko aniztasuna edo dibertsitatea kokatu egingo dira Euskadin; hori gizarte berri baten adierazgarria izango da, eta egiazko biztanleria anitz horren baldintza berriak jaso eta kudeatu egin beharko ditugu. Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren lehenengo puntuak esaten zenez: “Ez da erraza etorkizunerako aurreikuspenak egitea. Dena den, bada gauza segururik: biharko Euskadi gaur egun ere badena baino gizarte askotarikoagoa izango dela. Aniztasun hori ez da atzerriko immigrazioaren ondorioa. Gizarte moderno guztien ezaugarri bereizgarria da aniztasuna: bizi-baldintzen eta bizimoduaren aniztasuna, identitate nazionalen aniztasuna, kultura- eta kosmoikuspegi-aniztasuna eta abar.

Euskadi ere beti izan da herrialde askotarikoa, historian zehar erlijio, hizkuntza eta kultura desberdinak elkarrekin bizi izan diren herrialdea. Aniztasuna gure historiaren eta gure identitate kolektibo propioaren zati da. Atzerriarren immigrazioak areagotu egin du euskal gizartearen lehendik ere bazen aniztasuna, eta konplexuago bihurtu du. Horregatik, aniztasun berriek ez dute zertan ustekabea izan euskal herritarrentzat. Aitzitik, euskal herriaren esperientzia historikoa lagungarri izan beharko litzaiguke elkarbizitzari erantzun hobea eta egokiagoa emateko, betiere bereizgarri izan genuen aniztasun-mailan oinarrituta”. Hala bedi.



USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: lasterbideak komunikazio publikoan

Gotzon Toral Madariaga

Enpatia da komunikazioaren biderik azkarrena. Lokarri emozional batek elkarrekin konektatzen eta bestearen lekuan jartzen gaitu. Ontzi komunikatuen sistema horrek lankidetzeta eta gizarte-kohesioa errazten ditu. Kode irekiko portaera horrek dakarren ongizatea da bazterketa-arriskuaren aurkako antidotorik onena. Lotura sozial hori esperimentatzeko aukera izateak sentiarazten digu ezinbesteko eragileak gairela guztion onura eraikitzeko, eta hori da modurik eraginkorrena gure gain herritar-jokabide eredugarria hartzeko, alegia, taldearen onerako edo guztion onerako jokabidea hartzeko.

Komunikatzaile onenek adeitasunezko lotura horiek pizten dituzte; oihartzun-espazio partekatu bat sortzen dute, eta hor partaide guztiek sinpatiak bultzatuta erantzuten dituzte. Oihartzun-espazio horren funtzionamenduan, interesa eta adeitasuna erakustek konfiantza ematen du, eta parte-hartzaileen konfiantza bereganatzen du. Beldurraren botoia sakatzeak arbuioa eragiten du, eta besteekiko harreman iraunkor hori eteten du.

Herrixka global interkonektatu berriak elkarriketa publiko, berehalako, etengabeko eta itxuraz egiazko baten esperientzia itzultzen digu, inongo bitartekaririk gabe. Harresi gabeko plaza horren funtzionamendua hobeto ezagutzea, eta *lingua franca* berria erabiltzen jakitea, funtsezkoak dira jendearekin sintonizatzeko eta atzean ez geratzeko inguru konplexuago batean, non iritzi arinenak fenomeno biral bihurtzen diren, eta non datuak jada ez diren eztabaidaren muina.

Sareetako gainezposizioa dago, eta gainera, bitartekaritzako gizarte-erakundeek –prentsa, ahots ospetsuak, intelektualak eta adituak– orain arte iritzi publikoa orekatzen bazuten ere, orain mesfidantza dago haiekiko; horrenbestez, elkarriketa soziala oihartzun-ganbera itxietan zatikatzen da, eta horrek areagotu egiten du pertsonak berez duen joera bat, alegia, gertatzen ari dena “begi bakar baten bidez, belarri bakar baten bidez, zapora bakar batez” jasotzeko

joera (Nicholas Carr). Ikusi nahi ez duen itsua omen da guztietan itsuena: lasterbide horien erabilera indiskriminatua gogobetegarria izan daiteke, baina horren trukean, berehalako erreakzioen mendekoago bihurtzen gaitu, eta manipulatzeko errazagoak.

William Davies soziologoak, *Nervous States: Democracy and the Decline of Reason* liburuan (Estatu urduriak: nola emozioak gizarteaz jabetu diren), **adierazten du izu-ikararak, zirrarak eta premiak kutsatu dutela eztabaida soziala. Egile horren ustez, komunikabide berriak eta teknologia dira bizi dugun errealitatearen paisaia berriaren eragileak.**

Egun, atentzioa lortzeko lehiak mugiarazten du ekonomia global berria, baina denboraren azelerazioak eta mezuez gainezka bizitzeak gero eta zailagoa egiten dute lehia hori. Yuval N. Harari dioenez, munduko zientzialari argienetako batzuk aspaldi ari dira ikertzen nola pirateatu giza burmuina, guk zenbait iragarki edo esteka sakatzea lortzeko. Sareetan jaun eta jabe direnek badakite nola jauzi egin gure segurtasun-hesien gainetik, gure garuneko atzeko atetik sartu eta gure denbora eta datuak ustiatzeko.

Ikusmoldea aldatzeak ez du mundua aldatzen, baina ikuspuntua mugitzea ezinbestekoa da, beste mundu bat izan dezakegula eta gogo onez onartzeko modukoa dela ikusteko

Gure arreta uste ez genuen bezala pizten da. Komunikazio-prozesua arrazionala dela sinetsita gaude, baina maiz, egiazko gertaerak ez dituzte aldatzen gure erabakiak zuzentzen dituzten eskema kognitiboak, eta aurreiritziak gailentzen dira,

arrazoimenaren argudioen gainera. Frogatutako informazio bat emanda iritzi bat ezeztatu nahi izateak *boomerang* efektua eragin dezake: amets bat tartean ez badago, datu hutsek ez dute interesa pizteko ahalmenik. Gertaerekin batera marko bat eskaini behar da, ikusmolde alternatibo bat, informazioari zentzua emango diona. Emozioa beharrezkoa da interesa pizteko. Ikusmoldea aldatzeak ez du mundua aldatzen, baina ikuspuntua mugitzea ezinbestekoa da, beste mundu bat izan dezakegula eta gogo onez onartzeko modukoa dela ikusteko.

Gure buruaren funtzionamenduak antz handiagoa du istorioen prozesadore batekin ordenagailu logiko batekin baino, denbora eta ahalegin gehiago behar baitu datuak analizatzeko. Emozioen eta aldarteen eragina gutxiesten ezin sostengatu daitekeen aurreiritzia da, neurozientziek argi erakutsi dutenez. Erretorikak ere bazekien zer-nolako indarra zuen estilo patetikoak ezagutza zabaltzeko: istorio pertsonalak, haien testuingurua azalduta aurkeztuz gero, lagungarriak dira gertaerak zabaltzeko.

Gure inguruan gertatzen ari diren aldaketa disruptiboen eraginez herritarren deskonexio soziala gertatzeko arriskua aukeratzen hartu behar dugu iritzi publikoarekiko sintonia berrikusteko. Adimen emozional komunikatiboa lagungarria izan daiteke enpatia atea irekitzeko eta eztabaida soziala berpizteko, interes komuna beharrezkoa ez ezik desiragarria ere badela senti dezagun.

Berreste alderako isuri kognitiboak bultzatuta, gehiago fidatzen gara besteekin antzeko gauza komunak ditugunean, eta, beraz, lotura emozional hori irekitzea erraztuko duen abiapuntu partekatu bat aurkitu behar dugu. Proposamenek gehiago mugiarazten dute baiezkoan egiten badira, eta komunitatearen oroitzapenean oihartzuna duten esperientzia sozialekin lotzen direnek ere bai. Entzuten ikasi behar da, jendea aintzat hartzen, eta proiektuaren partaide sentiarazten, autokonplazentzia eroso gelditu beharrean.

Atzo bezala, gaur ere komunikazioaren funtsa esaldi batean laburbiltzen da, alegia, *esaten duzuna hobeto egin ezazu, eta egiten duzuna hobeto esan ezazu*, giza interakzioaren elkarrekotasunaren oinarritzko arauak jarraiki. Mezu gutxi behar ditugu, eta honelakoak izan behar dute: publikoari eta inguruneari egokituak, argiak, koherenteak eta adierazgarriak, bat datozenak errelatu orokor positibo batekin, eta guk uste genuena baino konplexuagoa den errealitate bati oso estu atxikiak.

1. Mundua azpikoz gora

Enpatia eta ezagutzaren hazkunde globalaren ametsetik esnatu gara, eta Sare Gizarteko desinformazioaren mehatxuan sartuta gaude. Espero genuenaren kontra, ikusten ari gara albiste faltsuak, zurrumurrak eta aurreiritziak deigarriagoak direla eta urrutiago eta jende gehiagorengana iristen direla, kutsatzeko gaitasun handiagoa dutela eta fenomeno biral bihurtzen direla.

Ez dakiguna baino kezkarriagoa da jakintzat ematen duguna. Bizi ditugun berrikuntza disruptiboek eragiten duten nahasmendua ikusita, **gure komunikazio-estrategia berrikustera** behartuta gaude; izan ere, funtsezko zeregina da hori, bere balioak zabalduz iritzi publikoan eragin nahi duen eta bere helburuak lortu nahi dituen erakunde batentzat.

Etorkizunaren beldur izateak, gizarte gero eta konplexuago batean, konponbide errazen bila abiarazten du jendea, eta teknologia berriek hori eskaintzen dute, beren etekinak lortzeko jendearen arreta eta datuak erabiliz. Errealitate areagotu honetara egokitu eta guztion onurarako bideratzeko, ezinbestekoa da geuk ere adimen areagotu bat baliatzea, atzean geratuko ez bagara, hutsal bihurtuta.

2. Enpatia elikatzea

Enpatia da giza komunikazioa sustatzen duen indarrik ahaltsuena. Bazterketaren aurkako antidoto horrek lotura sozialak sendotzen ditu, lagun hurkoaren lekuan jartzen baikara. Konturatu gabe ere, elkarrekin konektatuta gaude, giza gaitasun horrek iman batek bezala lotzen baikaitu eta besteekin sinkronian sartzera bultzatzen baikaitu. Besteek sentitzen dutena esperimenezko eta ezagutzeko aukera horri esker, haiengana hurbiltzen gara. Paradoxikoa bada ere, giza komunikazioaren banda zabal horretan hain murgilduta bizi gara, ezen haren funtzionamendu automatikoa oharkabean igarotzen baitzaigu, arnasten dugun airea bezala.

3. Arreta da konexio sozial hori irekitzen duen gailua.

Komunikatzaile onenek zirkuitu emozional hori piztu, eta oihartzun-espazio partekatu bat sortzen dute, non erresonantzia handia lortzen duten.

Elkarrekin interkonektatuta sentitzearen eta elkarrekin sinpatiaz bibratzearen esperientziak ongizatea eragiten digu, eta hori da gaitasun garatu hori erabiltzearen saria. Eta arrazoi beragatik, beldurraren mezuak arbuioa eragiten du eta konexio enpatikoa blokeatzen du.

Gainerakoekiko erabateko arreta eta estimua erakustek oihartzun-zirkuitu hori irekitzen du, eta oihartzun horrek eragin biderkatzailea du: *Entzun, hitz egin diezaguten, eta galdetu, entzun diezaguten*. Aintzat ez hartzea, inposatzen saiatzea edo kargu hartzea mespretxuaren adierazleak dira, eta erantzun txarra ekartzen dute bueltan: *interesa piztu nahi baduzu, erakutsi interesa, ez ibili interesgarri plantak egiten*. Argi geratu behar du enpatikoagoak izatea merezi duela: gehiago dira elkarrekin irabaz ditzakegun gauza komunak, gatazkan sartu eta besteen kontura irabaz ditzakegunak baino.

4. Datuen transmisioa baino gehiago, harreman-kirola da komunikazioa.

Komunikazio arrazionalen prozesu batean sinesten dugu, baina datu egiaztatuek ez dizkigute buruko eskemak aldatzen, egiaren aurrean sinesgogor agertzen baitira eskema horiek. Burmuinaren isuriek gure sinesmenei eustera eramaten gaituzte, eta lehendik ditugun ideiak berresten dizkiguten iritziak errazago onartzen ditugu. Zentzuzko arrazoibidea eta gertaerak berez nagusitzen zirela uste genuen, baina gaur badakigu ez direla aski: iritzi bat frogatutako informazio bat emanda ezeztatu nahi izateak *boomerang* efektua eragin dezake, eta ezeztatu nahi den ideia indartu.

Aurreiritzi faltsuak ukatzeko informazio zorrotz hutsa erabili beharrean, frogatutako gertaerekin batera marko alternatibo bat eskaini behar dugu: **gure ikuspuntu bat, solaskidearen gogoan gure balioak piztuko dituena**. Era horretan, gatazka ebazteko leiho berri bat irekitzen dugu. "Jendeak mundua nola ikusten duen, hala aldatzen da mundu hori, eta munduari begiratzeko modua aldatzea lortzen badugu, milimetro bat bada ere, orduan aldatu ahal izango dugu" (James Baldwin, idazle eta eskubide zibilen aktibista).

Oharkabean, gizakiaren pertzepzioan eta portaeran eragin erabakigarria duten garun-isuriaren ondorioz, gehiago fidatzen gara besteez gauzak komunean ditugunean. Horregatik, abiapuntu partekatu bat aurkitzeak elkarrizketa errazten du, ohiko trabak gaintzen laguntzen du, eta gainerakoekin elkar hobeto ulertzeko aldarlean jartzen gaituen konexio emozionala pizten du.

Georges Lakoff-ek ohartarazten du hitzak marko egokian jartzea ez dela lengoaiaren makillaje-operazio bat, baizik eta hitzik egokienak aukeratzea, jendearen buruan oihartzuna egin dezaten, kasu honetan, berdintasun eta elkartasuneko balioak aktibatzeke.

5. *Lingua franca* zahar-berria erabiltzen trebatzea

Interes orokorra nabarmenagoa eta interesgarriagoa egiteko, ikus-entzunezko komunikazioa erreproduzitzen duen Ahozkotasan Sekundarioko Aro berri honetara **egokitutako lengoia** erabili behar dugu. Pantailak eta sareak dira partekatutako espazio sozial handiena, eztabaida sozialean elkarreragiten ikasten dugun ispilua, eta hor, bitartekaritzako instituzio klasikoek –adituak, ahots ospetsuak, prentsa, etab.– ez dute dagokien zentraltasuna: *Bitartekaritzako erakundeek huts egiten dutenean, norbanakoa geratzen da. Eta haren berehalako erreakzioak* (Lipovetsky). Desinformazioa epidemia bezala hedatzen da, erraztasun handiz kutsatzen baita: notizia faltsuak urrutiago iristen dira, azkarrago eta jende gehiagorengana.

'Talk-show' direlakoetan populistak irabazten du eta adituak galtzen du, hala dio Londresko Ikerketa Fiskalen Institutuaren zuzendariak: *Ez da aski zergatiak jakitea; soldatak, enpleguak eta bizi-kalitatea galdu dituzten herritarrei komunikabideen lengoia azaltzen jakin behar da*. Sare Gizarteak elkarrizketa publikoaren etengabeko bizipen batera itzularazten gaitu; elkarrizketa hori sinpleagoa eta emozionalagoa da, eta balio handia ematen die irudiari, keinuen lengoaiaren emozioei, errelatuari, eta gure garaiko *lingua franca* horrek hartzen dituen formatu herrikoienei.

Garunaren egitura mentalak aldagaitz agertzen dira, eta aurreiritzi automatikoak finkatzen dituzte; horrek baldintzatu egiten du gure pertzepzioa

6. Garunaren berezko joera da sinesten duenaren arabera erabakitzea, ez ikusten duenaren arabera

Garunak piztu eta esanahiak partekatzen direnean gertatzen da komunikazioa, eta hortaz, komeni da jakitea buruak gurekin aritzeko duen modua ez dela guk uste genuen bezalakoa. Burmuinaren egitura mentalak aldagaitz agertzen dira, eta aurreiritzi automatikoak finkatzen dituzte; horrek baldintzatu egiten du gure pertzepzioa: pentsatu beharrean, pilotu automatikoa pizteko joera izaten dugu, aurreiritzi eta aurre-sinesmenek elikatuta. Adimen emozional eta erlazionala gure adimenaren funtsezko gaitasuna da, erabakiak hartzeko orduan eragin erabakigarria duena. Alfabetatze emozionala, beraz, interes orokorreko ikasgaia da gure erabakiak eta gure harremanen kalitatea hobetzeko.

Ingurukoekiko harremanen kirol honen arauak ikasi behar ditugu. Gogoaren funtzionamenduak antz handiagoa du istorioen prozesadore batekin ordenagailu logiko batekin baino. Milioi bat lagun estatistika bat da, eta hoztasunez aztertzen dugu. Pertsona baten istorioa, berriz, barnean eragiten digun drama baten gisa ikusten dugu, haren larruazalean jartzeko joera dugulako. Gertaerak ez ditugu pasadizo-sorta deigarriak izatera murriztu behar, testuinguruz jantzi behar ditugu, kontakizun egoki bat eratuz, egoera hobeto azaltzeko.

Istorio iradokitzaileak, esperientzia emankorretan oinarrituak. Jendearentzat inspirazio-iturri izango diren eredu sozialak. Kontakizuna izan da beti ezagutza transmititzeko formaturik oinarritzkoena, erraz lortzen duelako publikoak bere zentzumen guztiakin esperimintatzea gertaerak, interesa piztuz eta mezua hobeto helaraziz.

*Arteak irudimena
eransten dio mezuari,
arreta pizten du,
zarataren artean
aurrera egiten du, eta
begiak zabaltzen ditu
beste mundu posible
batzuk ikusteko*

7. Arreta murriztu egiten da mezuek gainezka egiten dutenean

Arreta jarraituaren galera areagotu egiten da gizarte digitalean, eta horrek **are zailagoa bihurtzen du** pentsarazten duten eta elaborazio handiagoa eskatzen duten **mezuak kontrakarrean zabaltzea**. Paradoxikoki, informazio gehiegiak berekin dakar gogoeta gutxitzea eta arreta murriztea. Twiter bidezko mezuen muturreko laburtasunak erakusten du gure bizi-eritmoaren abiadura bizia. Ikerketek diotenez –halako iritzi orokor bat ematean zuhurtziaz jokatu behar bada ere–, **batez besteko arreta-atalasea 2000 urtean 12 segundo izatetik 2017an 8 segundo izatera jaitsi da. Gaur egun, gure pazientzia kognitiboaren muga bost segundokoa omen da. Neurozientzian aditua den M. Wolf andreak diagnostikoa berresten du: “galtzen ari gara pazientzia kognitiboa, testu luzeagoak irakurri eta era sakonagoan ulertzeko lehen genuen gaitasuna.”**

Arretaren ekonomia berria, beraz, gero eta eskasagoa den ondasun bat ustiatzean oinarritzen da, eta, hortaz, arreta-eskaera hobeto administratzea komeni da: mezu

gutxi, argiak, adierazgarriak, publikoari egokituak, errelatu orokor desberdinu batekin bat datozenak, eta errealitateari oso atxikiak.

Baiezkoan egiten diren proposamenak pizgarriagoak dira. Arrakastatsua izateko, mezu itxaropentsu horrek bat etorri behar du mezuaren hartzaileek bizi duten errealitatearekin. Komunitate baten memorian finkatutako esperientzia sozial onenak oso egokiak dira ilusio-pizgarria den proposamen ezezagun bat bizipen ezagunekin lotzeko. “Ospe ona lortzeko modurik onena da eman nahi duzun irudi hori egiaz izaten saiatzea” (Sokrates).

8. Irudimenetik boterera eta irudimenaren ahalmena

Artibismo sozialak argudio berriak eskaintzen ditu publikoaren enpatia pizteko eta diskurtsorik zaharkituenak eta ez-eraginkorrenak berritzeko. *Pertsonaren arreta-gaitasuna mugatua da eta etengabe akuilatu behar da probokazioarekin* (A. Camus). Arteak irudimena eransten dio mezuari, arreta pizten du, zarataren artean aurrera egiten du, eta begiak zabaltzen ditu beste mundu posible batzuk ikusteko. Horrela, aldaketarako proposamen baten emaitza imajinatu eta esperimintatu dezakegu, eta desiragarria dela sentitu. Umorea lagungarria izan daiteke enpatia lasaiago pizteko, kontraesanak identifikatzeko eta aurreiritzirik zabalduenen indarra desaktibatzeke.

9. “Araoekin gogor eta pertsonekin samur” (Ghandi)

Idea aldatzen dugu, gauza ona dela iruditzen bazaigu bakarrik. Ispiluen antzekoak gara, islatzeko joera dugu: konfiantzazko jendearekin gaudenean, lagunartean gaudenean, arreta handiagoa jartzen dugu, eta errazagoa da sintonia lortzea; hori ezinezkoa da solaskidea mehatxatuta sentitzen bada eta ixteko jarrera automatikoa hartzen badu.

Modu autoritarioan inposatzen saiatu beharrean, helburua da **erakustea konbentziturik gaudela esaten dugunaz eta, aldi berean, solaskidea aintzat hartzen dugula**, gauzak beste ikuspegi batetik ikusteko prest agertzeko aukera izan dezan. Inork bere ideia aldatzea lortzeko modu bakarra da bere jarrera kolokan jartzeko aukera ematea. Eragin itzazu zalantzak haren baieztapenetan. Ez galdetu *zergatik?*, hobe da hau galdetzea: *nola konponduko zenuke zeuk egoera hau?*

Besteen gainetik nolabaiteko gailentasun morala erakusteko tentazioak berehalako arbuioa eragiten du; hurbiltasuna lortzeko, jarrera hurbilagoa agertu behar da, aurreiritziak guztiok ditugula onartuz. Berrito ere, abiapuntu komuna aurkitzea da kokka, besteengan

enpatia eta interesa pizteko. “Esaten dudan horrek oihartzuna aurkitzen badu zugar, biok zuhaitz bereko hostoak garelako da” (W.B. Yeats).

10. Konexio emozionala piztea

Usadiozko komunikabideetan zabaldutako iritzia islatzen duen komunikazio publiko batetik, komunikazio erlazional, partekatu eta kaotiko batera igaro gara, eta kazetaritzaren zaindariak gainezka eginda daude. Publikoaren eta interes orokorraren arteko bitartekaritza egiten zuten instituzioen protagonismoa gain behera joan da, mesfidantzaren eta berehalakotasunaren ondorioz. Pentsatu beharrean, pilotu automatikoa pizteko joera dugu, aurreiritzi eta aurre-sinesmenek elikatuta, baina horiek konponbide errazegiak eskaintzen dizkigute, gero eta konplexuagoak diren arazoei aurre egiteko.

Komunikazio publikoaren analisi zorrotz batek ezin ditu gutxietsi ez arrazionaltasunaren mugak, ez ziurtasunik gabeko oraingo une hau ulertzeko beharrezkoa den ezagutza zentzuduna. Era berean, ezin du bazter utzi zenbateko ekarpen aberasgarria egiten duten emozioek prozesu komunikatiboetan, eta, gainera, baita ezagutzaren garapenean ere.

Komunikazioa interes orokorrerako interesgarriagoa izateko moduan antolatzeke, hobeto ulertu behar da komunikatzean zer lortzen dugun; hau da, ez soilik transmititzen dugun mezua, baizik eta entzuten eta aditzen dena eta gure mezuaren oihartzunak ere bai.

Pesimismoaren eta herritarren deskonexio sozialaren arriskuari dagokionez, krisi hau aukera paregabea da iritzi publikoarekiko sintoniaren kalitatea berrikusteko.

Adimen emozional handiagoa izatea lagungarria izan daiteke konexio enpatikoa eta eztabaida soziala berpizteko, ikus dadin guztion interes orokorra baldintza beharrezko eta desiragarria dela gutako bakoitzaren ongizatea lortzeko.

USTEAK, USTEL!

**Argitu ditzagun zalantzak:
Immigrazioari eta hiritartasun-ereduei
buruzko diskurtsoak**


IOÉ kolektiboa

Testu hau IOE kolektiboaren eskuzabaltasunari esker argitaratzen dugu. Adituz osatutako ikerketa-talde bat da IOE kolektiboa, eta immigrazioa, pobrezia, desperekotasunak eta beste hainbat gai ikertzen ditu. Diskurtsoen eta kontakizunaren alboko materialen ekarpena egiten du, eta horien gainean oinarrituta aztertzen ditugu migrazioa eta gizarte hartzailean duen egokitzapena, eta horien inguruko integrazio eta herritartasunaren formatuak ere bai.

Ondoren eskaintzen dugu immigrazioaren aurrean biztanleria espainiarrak dituen oinarritzko jarrerren tipologia bat, hainbat ikerlan berritan egindako analisi kualitatibotik abiatuta.

Koadroaren edukia azaldu aurretik, hona hemen lau jarrerren ezaugarri nagusiak laburbilduta:

1. irudia. Immigrazioaren inguruko oinarritzko jarrerak eta haietatik ondorioztatzen diren herritartasun-ereduak



(IOE Kolektiboak eta Alfonso Ortik egina)

1. **Arbuio xenofoboa:** jarrera hori inspiratzen duen printzipioa *legitimitasun etnonazionalista* da, eta

bertako kultura partekatzen ez duten pertsonetikiko mesfidantza handi batetik sortzen da. Kasu honetan,

bertako kultura Espainiako nazioarekin, eta haren historia eta balio propioekin identifikatzen da. Horren ondorioa da kanpotik datozen pertsonetik beldurra edo xenofobia, bertako nortasuna eta ohiturak arriskuan jar ditzaketelakoan, batez ere asko badira eta kontroletik kanpo badaude. Kasurik muturrekoenetan, erreakziozko jarrera hori agertzen da kanpoko herritarren aurkako arbuio bortitz batean (jazarpena eta herrialdetik kanporatzeko eskaera, mugak erabat ixtea: “harrapatu eta etxera bueltan bidali!”) eta, kasurik samurrenetan, espazio berezietan eta lan-eremu berezietan sartzeko eskatzen da (apartheid). Etorkinen jatorrizko legitimotasunik ezak justifikatzen du mentalitate hori duten enplegu-emaileek pertsona horiek “ad libitum” esplotatzea, nahierara, Espainiako laneko legedia kontuan hartu gabe (“hor konpon!”).

2. Mendetasunezko txertaketa: horren muin ideologikoa *estatu-nazioaren lehentasuna* da, hau da, bertakoen lehentasunaren printzipioa defendatzea atzerritarren gainetik. Estatuaren legearen nagusitasunak kulturaren eta portaeraren irizpideak ezartzen ditu, eta horiek guztientzat dira, etorkinak barne (“bat egin edo ospa egitea daukate!”). Gainera, Espainiako estatuaren eta bertako herritar *nazionalen* interesak *atzerritarren* interesen gainetik daude, izan ere, hemengo beharren arabera etorri behar dute, eta bigarren mailako posizioa edo leku osagarria bete behar dute, beren egoitza-estatutuan (“lehenik espainiarrak”). Lanaren arloan, espainiarrek berariaz gordetzen dizkieten lanpostuak onartu behar dituzte, hau da, gehienetan, estimu gutxiena duten lanak, eta okerren ordaintzen direnak (*ekonomia osagarria*). Bai kasu honetan, bai lehenagokoan ere, ezin da berez esan etorkinen integrazioari dagoenik; gehienez ere, bigarren mailako edo mendeko herritartasuna lortzen da.

3. Integrazio formal: jarrera honen muin ideologikoa *estatu liberal-demokratikoaren legitimotasuna* da; herritar guztien parekotasun juridikoa defendatzen du, bertakoak izan nahiz atzerritarrak izan, bizitzan aurrera egiteko beren merituen arabera (“ez dago lehen mailako eta bigarren mailako jenderik”). Kultura anitzeko gizartea da *Espainia pluralaren* adierazpen-forma berria, haren baitan badirela, zenbait nazionalitate autonomiko ez ezik, askotariko kultura, erlijio eta bestelako adierazpideak dituzten etorkintalde ugari ere. Lan-arloari dagokionez, gogora ekartzen da Espainiako ekonomiaren garapenak asko zor diola etorkinen ekarpenari, eta eskubidea dutela berdintasunez lehiatzeko espainiarrekin (lehia-ekonomia). Kasu honetan, etorkinak espainiarren gizarteko “status quo”an integratzen direla esan daiteke. Nazioarteko migrazioen mekanismoak eskulanaren mundu mailako merkatuak orekatzen laguntzen du, globalizazio-prozesuaren testuinguruan. Estatuak fluxuen kontrol arrazionala ziurtatu behar

dute (“gainezka egin gabe”), lan-merkatuarentzako aukeren berdintasuna babestu, eta etnia-artearen espazio komunitan bizikidetzara sustatu (pluraltasun liberal kosmopolita).

4. Hiritartasun eratzailea: kasu honetan, printzipio legitimatzailea honako hau da: *komunitate etniko-kultural guztiek, gizarteko subjektu eragile aktibo izanik, duten ahalmena aitortzea*. Nazioarteko migrazioak globalizazio ekonomikoaren prozesuak berezkoak dituen desperekotasunen ondorio direla interpretatzen da, neurri batean lagungarriak izan daitezkeenak, eraikitze dagoen eta beharrezkoa den oreka positibo berri bat lortzeko. Estatu zentralizatu baten mendekotasunaren aurrean, demokrazia parte-hartzailea defendatzen da (multzotasun proiektiboa), barne direla Espainian dauden kultura eta gutxiengo nazional guztiak (“elkar ulertu eta elkarrekin bizi”). Desparekotasun ekonomikoaren eta lan-merkatuaren prekarizazioaren arazoaren aurrean, kritikatu egiten dira agintari politikoak eta enpresaburuak, “immigrazioa ustiatu eta probetxua ateratzen baitute”. Proposamen nagusiaren funtsa da indibidualtasunetik (“nork bereari heldu”) kulturarteko biztanleria aktibo eta proiektibo batera igarotzea (“demokrazia bizitzeko egitea gauzak”).

11.2 koadroari erreparatzen badiogu, geziek indar-eremu bat marrazten dute, deskribatutako lau diskurtso horiek polarizatzen dutenak. Beheko posizioek komunean dute *multzotasuna* azpimarratzea, eta goikoek, berriz, *banakotasuna*; ezkerreko bi posizioak *autozentratuak* dira kulturaren ikuspegitik (apartheid ala asimilazioa), eta eskuinekoak *irekiak* (kulturantzak edo kulturartekoak).

Jarrera multzo-zaleetan (beheko biak), arbuio xenofoboa *endogamoa* da (“kulturak asimilaezinak dira”) eta herritartasun eratzailearen ustez, berriz, *multzoa indartu eta aberasten da aniztasunarekin eta kultura-trukearekin*; norbanakoan zentratzen diren jarreretan, etorkinek mendeko herritartasuna izan behar dutela defendatzen dutenek beren estatu-nazioaren ordena eta legeak aldarrikatzen dituzte (horregatik dira *kultura bakarrekoak*), eta integrazio formalak defendatzen dutenek, berriz, herritarren eta kulturen autonomia defendatzen dute Estatuaren aurrean (*kulturantzak*).

Alderik handiena koadroaren muturretako jarreretan gertatzen da (arbuio xenofoboa/integrazio formalak; mendeko txertaketa/hiritartasun eratzailea), puntu guztietan elkarren aurkakoak baitira, ondorioz oso zaila da horiek batera ekartzea.

Deskribatutako lau jarrera horiek, eta jakina, beren artean izaten diren nahasketak eta itunak, Espainiako gaur egungo gizartean ageri dira, baina ez dute pisu berdina. Indarrak edo nagusitasunik eskasena arbuio xenofoboak eta herritartasun eratzaileak dute:

Garapen eskaseneko herrietako etorkinekiko (latinoak, afrikarrak, asiarrak) bertakoek duten *xenofobiak* XVI.-XIX. mendeen arteko kolonietako garai luzea ekartzen du gogora, europarrek indiarren, beltzen eta kolonizatutako gainerako herrien gainera zeudela uste zutenekoa¹, naturaren lege ezagutzearen eraginez, lehenik eta behin, justifikazio arrazista betea (biologikoa) izan zuen, eta ondoren kulturala. Hala ere, gaurko Espainian gauzak aldatu egin dira eta arrazakeriak dagoeneko ezin du justifikaziorik bilatu arlo biologikoan edo mendekotasun kolonialean; horregatik, jarrera xenofoboa apenas agertzen den argi eta garbi, eta hori gertatzen denean, gainerako jarrerak gutxiesten dute, arrazista eta atzerakoia izatea egotzita. Arruntena da segregazioaren diskurtsoa defentsaren aitzakian jartzea edo politikoki zuzenagoak diren beste jarrera batzuen atzean ezkatututa jardutea.

Herritartasun eratzailari dagokionez, berriz, aldiari behin indarrez agertzen da, beste diskurtsoei aurre eginez, batez ere orain nagusi den eredu politiko eta ekonomikoari kritika egiten dionean. Esate baterako, horra hor globalizazioaren aurkakoaren mugimendua. Perspektiba utopiko bat du, erabat baketutako mundu baten aurrerapen irudimentsu moduko bat, beharbada etorkizunean errealitatea izango dena; ez du oraindik baldintza egokirik aurkitzen, baina epe luzean ekintzen norabidea une honetatik orientatzen hasteko aukera badu.

Gaur egungo Espainian indarrak handiena duten jarrerak, komunikabideetan eta eztabaida publikoan maizenik agertzen direnak, etorkinen kolektiboen mendetasunezko txertaketa (osagarria) eta integrazio formalak (lehiakorra) dira: *Mendetasunezko txertaketa* defendatzen dutenen ustez, Estatuak oroz gain hemengo eskubideak eta beharrak babestu behar ditu, atzeritarrei dagokienez mendetasunezko kokapena, edo osagarria. Bertakoen ikuspegitik, bertako *nazionalak* babesteko diskurtso protekzionista da, gehiago agertzen dena gizartearen sektore xehe eta prekarioetan, instituzio publikoen babes falta sumatzen baitute, beren konfiantza instituzio horietan jarri ondoren (“zuri dohakabearen” diskurtsoa, Wieviorkaren hitzetan²). Etorkinen

¹ “Arrazak berez duen esanahi minimoa ez da biologikoa, naturalizatutako talde-harremanei dagokiena baizik. Arrazak balio du haren izenean identifikatutako taldeak naturalizatzeko. Munduan egoteko moduak eta haien adierazpideak diren instituzioak forma natural gisa artikulatzen direnean, arrazak desberdintasunaren ordena ezartzen eta arrazionalizatzen du, naturaren lege gisa” GOLDBERG, D.T., “The Semantics of Race”, *Ethnic and Racial Studies*, 14, 4, 1992. Martínez Veiga, U.-k aipatua, “Raza y racismo. Aclaraciones conceptuales”, *in* OFRIM Suplementos, 2001eko abendua, 100. or.

² “Zuri dohakabeek” ez dute modernitatearen errefusatzeko; beren lekua aldarrikatzen dute han, beren estatusa atzerriko etorkinek mehatxatzen dutela ikusten baitute. Ikus Wieviorka, M. (Zuz.), *Racisme et modernité*, La Découverte, Paris, 1993.

ikuspegitik, pertenezia nazionala herritartasunarekin identifikatzeak gutxiagotasun jarrera etsia hartzea eramaten ditu, espainiarren aldean: “hemen bizi nahi badugu, egokitu eta irentsi, beste aukerarik ez dugu”.

Etorkinen *integratio formalaren* defendatzaileek, berriz, norbanakoaren autonomia defendatzen dute, bazterketarik gabe (indibidualizazio meritokratikoa). Era askotako kulturak daude eta begirunez hartu behar dira, pertsonen askatasunaren eskubidea direlako (“Espainia ez da munduaren zilborra”). Ezaugarri horiek kontuan hartuta, klase ertain altuek (buruzagiak, arlo publiko edo pribatuko profesional kualifikatuak, enpresaburu handi eta ertainak, etab.) dira jarrera ideologiko horiek gehien defendatzen dituztenak.

Espainiako bizikidetzaren etorkizuneko agertokiak, eta modu espezifikoan etorkinak kokatzeko moduak, estu lotuta egongo dira deskribatutako jarreraren bilakaerarekin. Gaur egungo egoeran, badirudi jarrera nahiko zentratu bat nagusitu daitekeela, nolabaiteko aliantza batean lotuta etorkinen *mendetasunezko txertaketa* (indibidualizazio arautua, nazionalen lehentasunaren printzipiotik) eta *integratio formalak* (indibidualizazio meritokratikoa, herritar guztien berdintasun juridikoaren printzipiotik). Bi kasuetan ere, norbanakoa ageri da multzoaren gainera, harengan mamitzen delarik pertsonak gizartearen kokatzeko ekintza.

Etorkinen arbuio xenofoboa, haiek kanporatu edo getoetan sartu behar direla aldarrikatzen duena, indar gehiagoz edo gutxiagoz defendatzen dute gizartearen hainbat sektorek, eta arazo larriak eragin ditzake jarrera horrek etorkinen kolektiboan, baina ez dirudi plano kolektiboan nagusitzeko adinako indarrak lortuko duenik. Era berean, komunitarismo eratzailera ere, komunitate eta gutxiengo etniko-kultural guztien onarpen aktiboaren aldekoa izanik, ez da iristen gizartearen nagusitzeko behar adinako indarra biltzera, baina eragin garrantzitsua eta oso positiboa izan dezake, kulturarteko Espainia batean etorkinak eskubide osoko herritar gisa modu aktiboan integratzea espero dutenentzat. Azken finean, etorkinei buruzko iritziak, neurri handi batean, oso lotuta daude Espainiaren gaur egungo bilakaera ikusteko moduarekin —eta bertan atzeritarrek betetzen duten lekuarekin—, eta horrek lotura estua du pertsonen posizio sozioekonomikoarekin. Oro har, herritar gehienek onartzen dute Espainiako gizartea irekia eta tolerantia izan dela azken urteetan, baina aldi berean, desberdintasun eta tentsio handiak izan direla, hazkunde azkarreko prozesu baten ondorioz, eta bitarte horretan iritsi eta kokatu dira atzerriko etorkin asko.

Espainiako gizartearen bilakaera horren gaineko kosmobisioak, hala ere, desberdinak dira posizio ekonomikoaren arabera. Posiziorik onena duten sektoreen esperientziatik, negoziotarako eta

norberaren posizioa hobetzeko aukera ugari dituen herrialdea da Espainia, bizimodu ona eramateko aukera ematen duena, hazkundearen ondoriozko tentsio handiak jasaten baditu ere, fluxu ekonomiko, demografiko (migrazioa), ingurumen-arlokoak, etab., direla-eta. Tentsio horiek ondorio txarrak eragiten dituzte, herritarren eguneroko bizitzaren kalterako, etorkizunaren inguruko kezka eta ezinegona areagotzen dituztelako.

Klase xehe-langileen ikuspegitik, hazkundearen eredu horrek bizitzeko eta laneko baldintzak gogortzea ekarri du (tentsioak bizikidetzan, soldaten erosahalmena galtzea, etxebizitza lortzeko arazoak, herritarren segurtasun falta, etab.). Gizarte- eta laguntza-zerbitzuek oinarrizko eginkizunak mantentzen dituzte (oraingoz), ezinbestekoak, gizarte-ongizatearen gutxienekoak bermatzen dituztenak, baina baliabide horiek eskuratzeko zailtasunak gero eta gehiago dira, eta okerrago hornituta daude, sektore pribatuaren lehia gero eta handiagoagatik. Etorkin ugari iritsi izanaren eta haiekin bizilekuak eta lanpostuak partekatu behar izatearen ondorioz, lan-eskaerak, zerbitzu publikoek eta aisialdi-guneek gainezka egiteko arriskua dago, eta eguneroko bizitza are gehiago kaltetzen da.



USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: arauz kanpoko immigrazioa eta atzeritartasuna

Susana Cuesta Manjón

1. Zertaz ari gara arauz kanpoko migrazioaz ari garenean?

NBEk dioenez, arauz kanpoko migrazioa gertatzen da pertsonak herrialde batetik bestera gobernuak ezarritako prozeduretatik at mugitzen direnean. Arauz kanpoko migrazioa gerta daiteke herrialdean baimenik gabe sartzegatik (norberaren borondatez edo behartuta) edo, arruntagoa izaten dena, herrialde batean bisan ezarritako muga gainditu ondoren geratzegatik. Beraz, jendea hara eta hona ibiltzea gizateriaren historian etengabea izan delarik, arauz kanpoko migrazioa lege eta politika murriztaileen emaitza da, horiek galarazten baitute zirkulazio liberako eta asiloa eskatzeko giza eskubideak baliatzea. Herrialde batean sartzeko legez araututako bide seguru gehiago izango balira, arauz kanpoko migrazio gutxiago izango genuke, eta alderantziz. Ez da zilegi etorkinen etorrerari erreparatzea gogoan hartu gabe mugimendu horiek eragiten dituzten arazoak eta migrazioa modu ordenatuan egiteko bide eta malgutasun falta.

2. Egia al da migratzaileak eskubide guztien jabe direla?

Konstituzioaren arabera, I. Tituluan bermatzen diren askatasun publikoen jabe izango dira Espainian dauden atzeritarrak, Itunek eta Legeak ezartzen dutenari jarraikiz, baina Konstituzio Auzitegiak emandako epaien arabera, arauzko egoera administratiboan egotea eska dakieke, zenbait eskubide gauzatzeko. Horrenbestez, baimen baten mende daude hainbat eskubide izateko, besteak beste, zirkulazio liberako, parte-hartze publikorako, lan egiteko eta Gizarte Segurantzza izateko edo familia berriro elkartzeko. Bestalde, ezin dugu ahaztu legeak aitortzen duela arauz kanpoko egoeran dauden pertsonen eskubidea dutela hezkuntza, osasun-laguntza edota oinarritzko gizarte-zerbitzuak eta -prestazioak hartzeko, hala nola diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), giza duintasunak berezkoak dituen oinarritzko eskubideak direlako,

baina pertsona horiek erroldatuta egon behar dutenez, tramite hori zaila gertatzen da askotan.

3. DSBE kobratzeak errazten al ditu atzeritartasunaren izapideak?

Ez. DSBE kobratzen ari den etorkinak ez dauka bere egoera legeztatzerik, ez familia berriro elkartzerik, ez eta, batzuetan, bere baimena berritzerik ere, eta horiek izaten dira, hain zuzen ere, kolektibo horren lehentasunezko helburuak. Gainera, Europako herritar batekin ezkondu edo izatezko bikotea osatzen dutenek ere ezin dute bizileku-txartela lortu, prestazio ekonomiko hori hartzen badute. Ezin dugu ahaztu Atzeritartasun Legeak baimen gehienak lortzea eta berritzea enpleguarekin eta kotizazioarekin lotzen duela eta, horren ondorioz, DSBE kobratzeak ez die mesederik egiten etorkinei.

4. Etorkinak zergatik ez dira etortzen beren jatorrizko herrialdetik bizileku-baimena aldean dutela?

Etorkina hona bisa batekin etorri eta, hemen egonda, bizileku-baimena lortzeko, Atzeritarrei buruzko Legeak ezartzen dio egiaztatu behar duela baliabide ekonomiko aski duela hemen egon bitarteko gastuak eta bere herrialdera itzultzekoak ordaintzeko; bere gastuak eta, kasua hori bada, bere ahaideen gastuak ere, zenbateko hauek ezarrita: hileko mantenerako OAEAP (IPREM) indizearen % 400 (2.151,36 €), eta ahaide bakoitzaren mantenerako OAEAParen % 100 (537,84 €). Horri esaten zaio irabazi-asmorik gabeko bizilekua.

5. Etorkinak zergatik ez dira etortzen beren jatorrizko herrialdetik lan-baimena aldean dutela?

Etorkina hona bisa batekin etortzeko eta, hemen egonda, bizileku- eta lan-baimena lortzeko, enpresaburu batekin kontratu bat egin behar dio. Gainera, enpleguaren egoera nazionalak ere badu

zerikusia etorkin hori kontratatzeke aukerarekin, izan ere, baldintza hauetako bat bete behar da:

1. Enpresan bete behar duen eginkizunak agertu behar du betetzen zailak diren eginkizunen katalogoan¹, Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak hiru hilean behin ezartzen duena.
2. Egiaztatu behar da lanpostu hori ezin dutela bete hemengo nazionalitatea dutenek edo bizileku- eta lan-baimena duten atzerriko pertsonak.
3. Baimen horren hartzaileak Espainiak nazioarteko itunak sinatuta dituen Estatu bateko herritarra izan behar du (paradoxa da baina, halako herrialdeak bi bakarrik dira: Txile eta Peru).
4. Atzerritarrei buruko Legeak jasotzen dituen egoeretakoa batean dagoela egiaztatu behar du, esaterako Espainian bizi den eta bizileku-baimena berritua duen baten ezkontidea edo seme/alaba izatea, edo bere kargu izatea espainiar nazionalitatea duten aurreko ahaideak edo ondorengoak.

Azkenik, legeak ezartzen duenaren arabera, lan-kontratuan zehaztutako baldintzak indarreko legediak ezartzen dituenak izango dira. Lanaldi partzialeko kontratua bada, adibidez, haren lansaria lanaldi osoari eta urte osoko konputuari dagokion lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoa edo altuagoa izango da.

Oso zaila da enpresaburu bat beste herrialde batean dagoen eta berak ezagutzen ez duen pertsona bat kontratatzeke prest egotea, eta legeak ezarritako tramite guztiak egiteko gogoia izatea ere ez da erraza, izan ere, horrek paper asko egitea eta luze itxoitea dakar. Horregatik, etorkin gehienak egonaldiko bisa batekin iristen dira hona (turista gisa), ondoren araz kanpoko egoera administratibo batera igarotzen dira, eta, ondoren, baimena lortzen saiatzen dira legeak jasotzen dituen salbuespeneko bideren batetik.

6. Emakume etorkinek seme-alabak izaten dituzte era horretan paperak lortzen dituztelako?

Adingabeko baten ama (edo aita) den etorkinak bizileku- eta lan-baimena eskatzeko aukera izateko, bere kargu izan behar du espainiar nazionalitatea duen adingabeko bat. Gogoratu behar da hemen jaiotako ume guztiak ez direla espainiarrak, gurasoen nazionalitateak baldintzatzen baitu hori. Etorkin horien jatorrizko herrialdean odol bidezko zuzenbidea (*ius sanguinis*) agitzen badu, ume horrek amaren edo aitaren nazionalitate bera izango du. Herrialde horretan, ordea, lurraren zuzenbidea (*ius soli*) agintzen badu, eta gurasoek beren kontsulatuan

¹(<https://www.sepe.es/HomeSepe/empresas/informacion-para-empresas/profesiones-de-dificil-cobertura/profesiones-mas-demandadas.html>).

inskribatzen ez badute, ume horrek espainiar nazionalitatea lortzeko aukera du. Hala ere, herrialde gehienetan odol bidezko zuzenbidea lehenesten da, eta, beraz, oso zaila izaten da umeak nazionalitatea lortzea hemen jaiotzeagatik soilik.

7. Migratzaileek familiakoak berrelkartzeko erraztasun handia izaten dute?

Lehenik eta behin, berrelkartzeko aukera horretan ez dira sartzen ahaide guztiak. Atzerritarrei buruzko Legearen arabera, honako hauek berrelkartu daitezke: ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremana duen pertsona, 18 urtez beherako seme-alabak edo desgaitasunen bat duten adinekoak, berrelkartzeko ekimena daraman pertsonak legez ordezkatzten dituen pertsonak, eta lehen mailako aurreko ahaideak.

Bigarrenik, migratzaileak, bere ahaideak ekartzeko, ezinbestean erakutsi behar du baimena berritua duela (edo iraupen luzeko baimen bat, lehen mailako aurreko ahaideak berrelkartzeko asmoa badu), etxebizitza egokia duela, eta familia-unitatea mantentzeko baliabide ekonomiko aski dituela, laguntza publikoak alde batera utzita (adibidez, ezin da DSBE kobratzen ari). Aurreko ahaideak badira, gainera, egiaztatu behar da berrelkartzaren ekimena daraman pertsonaren kargu daudela, hirurogeita bost urtetik gorakoak direla, eta Espainian haien bizilekua baimendu beharra justifikatzen duten arrazoiak badirela.

Beraz, kontuan hartuta pertsona batek zenbat denbora behar duen bere egoera gizartean sustraituta egoteagatik legeztatzeke (bide erabilienetakoa da), ezin izango ditu ezkontidea edo seme-alabak berrelkartu lau urte igaro baino lehen, bera iritsi denetik kontatuta, eta zortzi urte, bere gurasoak berrelkartzeko. Derrigorrezko banantze horrek neke emozional handia ekartzen die familiei.

8. Baimenak ematea eta berritzea kotizazioari lotuta egoten dira, kasu gehienetan

Pertsona migratzaile gehienek bizileku-baimena lortzen dute lege-baldintzak betetzen dituen kontratu bat aurkeztuta (urtebeteko iraupena, lanaldi osoa eta lanbide arteko gutxieneko soldata) eta aurreko hiru urteetan Espainian araz kanpoko egoeran egon direla erakutsita. Gaur egungo egoeran, ez da erraza ezaugarri horiek dituen kontratu bat lortzea, eta norbait haiek kontratatzeke prest badago, baimen hori aldi baterako izango da eta berritu beharra izango da. Bai lehenengo baimena, urte batekoa izaten dena, bai ondorengo baimen berrituak, bi urtekoak izaten direnak, kasu gehienetan pertsona horrek kotizatu duen denboraren mende daude. Ez da arraroa izaten pertsona horrek lana galtzea, edo eskatutako baldintzak betetzen dituen kontratu bat ezin aurkeztea, eta beraz, ez du baimenik lortuko. Antzararen jokoan bezala da: heriotzaren edo

kartzelaren laukian erortzen bazara, berriro hasi behar duzu. Eta askotan ur-lasterrak eramaten zaitu, zubitik zubira, baina atzeraka, eta botaldia errepikatzeko aukerarik gabe.

9. Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak eta kanporatzeko mehatxu etengabea

Bizileku-baimenik edo bizileku- eta lan-baimenik ez duten pertsona migratzaileak Espainiako lurraldetik kanporatuak izan daitezke eta, hori baino lehen, askatasuna kendu eta Atzerritarrak Barneratzeko Zentro batean sar ditzakete, 60 egunez gehienez ere. Gauza jakina denez, ABZ horietan itxita edukitzen dituzte Espainian egoteko edo bizitzeko baimen administratiborik ez duten atzerritarrak, kanporatzeko edo haien herrialdeetara bidaltzeko tramiteak egiten diren bitartean. Ez da ahaztu behar inongo deliturik ez dutela egin, arau-hauste administratibo bat baizik, baimenik gabe egoteagatik. Pertsona horiek askatasunik gabe aurkitzen dira herrialde arrotz batean, batzuetan bertako hizkuntza ere ez dakitela, iritsi berriak izaki. Derrigorrean egin behar izan duten bidaiaren sufrikarioaz gain, giltzapean eta noiz kanporatuko dituzten ez jakiteak eragiten dizkien beldurra eta etsipena jasan behar izaten dituzte.

10. Zer desberdintasun dago delitu baten eta arau-hauste administratibo baten artean? Ez baitu ongi ulertu.

Biak ala biak arau bat bete ez duen pertsonari zehapena ezartzeko forma juridikoak dira, baina arau-haustea aipatzen dugunean administrazio-auziez ari gara, eta delituak aipatzen ditugunean, berriz, esparru penalari buruz ari gara. Bi kasuetan ere, Estatuaren boterea dugu aurrez aurre, eskumena baitu lege-hauste penal nahiz administratiboak prebenitzeko, zuzentzeko eta zigortzeko, baina zehapenak desberdinak dira eta, oro har, larriagoak delituen kasuan.

• 11. Laburbilduz, atzerritarrei buruzko legeak...

Migrazioaren errealitatearen harresi ikusezinak dira. Mugak blindatzeko eta migrazio-fluxuak kontrolatzeko helburua duen politika baten tresnak dira, guztia doi-doi gertatzeko “gure harrera-gaitasunaren eta gure lan-merkatuaren beharren arabera”, hau da, politika hori ezartzen dutenen onura bilatuz.

Estatuen subiranotasunaren adierazgarri dira, haiek erabakitzen baitute beren lurraldean nor sartzen den, nor bizi den edo nazionalitatea (herritartasuna) nork lortzen duen, edo zer eskubide dituen, eta hori guztia migrazio-prozesua baldintzatzen duten lege mugatzaileetan islatzen da, heriotza eta sufrimendua eraginez emigratzeko edo asiloa eskatzeko eskubidea baliatzea erabakitzen duten pertsoneri.

USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: immigrazioa eta lan-merkatua

Lorenzo Cachón Rodríguez

1. Lan-merkatuak ba al du zerikusirik Espainia immigrazio-herrialde bilakatu izanarekin?

Lehenik, bi gauza gogoratu behar dira. Lehenengoa da **Espainia tradizioz migrazio-herrialdea izan dela**. XX. mendean sei milioitik gora espainiar joan ziren atzerrira beren bizimodua hobetzeko asmoz. Gehienak Latinoamerikara joan ziren hasieran, eta ondoren Europako herrialdeetara, esaterako Alemaniara eta Frantziara. Gerra Zibilaren ondoren, arrazoi politikoak zirela-eta joan behar izan zuten askok. Baina gainerako kasu guztietan, Espainian lanerako aukera gutxi egoteak bultzatuta alde egiten zuten beren herrialdetik enplegu bila.

Gogoratu beharreko bigarren gauza da XX. mendeko laurogeiko hamarkada baino lehen ere iristen hasi zirela Espainiara bi pertsona-fluxu: batetik, europarrak, eguzki bila edota Espainian kokatzen ziren enpresa europarrekin iristen zirenak, eta bestetik, Latinoamerikako diktaduretatik ihesi zetozen latinoamerikarrak. Baina migratzaile haiek ez ziren hona etortzen Espainiako lan-merkatuak aukerak eskaintzen zizkielako.

Baina hau da XX. mendeko laurogeiko hamarkadaren erdialdean gertatu zen aldaketa: Espainian langabe asko izanda ere (hiru milioi inguru), *lan-hobi* batzuk agertzen hasi ziren, langile espainiarrekin nekez bete zitezkeenak. Adibidez, Almeriako plastikoen azpian egiten zen nekazaritza: lan nekeza zen (eta da), espainiar gutxi onartzen zutena, eta orduan, plastiko haien gainean, Marokoko langileak hasi ziren lurreratzen. Beste adibide bat etxeko zerbitzuaren arlokoa da: landako herrietan jada ez zegoen nahikoa neska gazte prest hirietan lan hori egiteko; orduan hasi ziren iristen Latinoamerikako emakume gazteak. Hala, lan-merkatu espainiarra, lehenbiziko aldiz, etorkinen erakarpen-faktore bat izaten hasi zen, eta Espainia immigrazio-herrialde (ere) bilakatu zen.

2. Baina Espainian hiru milioi langabe bazeuden, nola da posible lan-merkatuak aukerak eskaintzea atzerritarrentzat?

Hara, bada, eskaintzaren eta eskariaren kontu hori ez delako hain erraza lan-merkatuan, batzuetan hala aurkezten bada ere. Egiaz, Espainian ez zegoen langile faltarik (oro har). Izan ere, hiru milioi langabe zeuden, eta beste hainbat milioi espainiar Europako hainbat herrialdetan ari ziren lanean! Baina **lan-merkatu horretan**, ordea, **desoreka handiak zeuden**.

Desoreka horiek gertatzen ziren, esaterako, langileak leku batean bizi zirelako (Extremaduran, adibidez) eta lanpostuak beste leku batean eskaintzen zirelako (Euskadin, adibidez) eta mugikortasun geografiko eskasa zegoelako. Batzuetan, langileek ez zuten enplegu haietan aritzeko behar zen kualifikazioa, eta desoreka sortzen zen. Beste batzuetan, berriz, langile askok errefusatu egiten zituzten lanpostuak, lanen ezaugarriengatik (lan fisiko gogorra, soldata eskasak, ordutegi bereziak, ospe eskasa). Laurogeiko hamarkadako Espainian, desoreka handia zegoen (gero eta handiagoa) langileek lortzea espero zutenaren (gutxi-gehiago arrazoizkoa) eta lan-merkatuak eskaintzen zizkien enpleguen artean.

Eta desoreka hori gertatu zen, gizarte-aldaketa askok eragin zutelako langileek gehiago erreparatzea ea lanpostu hori "desiragarria" ote zitzairen, hau da, erreparatzea ea berentzat lorpen egokia ote zen edo ez. Desiragarritasunaren mailak gora egitea azaltzen duten faktoreetako batzuk dira, adibidez, Espainian urte haietan bizi-baldintzek hobera egin izana eta ongizate-estatua garatu izana, lan-merkatuan sartzen ziren pertsonen hezkuntza-maila igo izana, familia-sareak mantentzea, eta biztanleriaren zati handi batek bere itxaropenak hobetuta ikustea. Dena den, langileen artean lanpostuekiko desiragarritasunaren mailak gora egin bazuen ere, lan-merkatuak eskaintzen zituen enpleguen baldintzak ez ziren hobetu. Horregatik hasi ziren sortzen alde handi samarrak jendeak espero zuenaren eta lan-merkatuak eskaintzen zuenaren artean. Eta horren ondorioz,

lanpostu horietako asko etorkin iritsi berriak betetzen hasi ziren.

3. Zein dira aktiboagoak, alegia, zein sartzen dira neurri handiagoan lan-merkatuan: espainiarrak ala etorkinak?

Zalantzarik gabe, etorkinak. 2019aren amaieran (Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, hori baita Espainiako lan-merkatuaren errealitatea ezagutzeko iturri estatistikorik onena) 16 urtetik gorako espainiarren % 57 lan-merkatuan zegoen, lanean edo lan bila (horiek dira biztanleria aktiboa deitzen dena); baina etorkinen artean ehuneko handiagoa zen: % 71 hain zuzen, hau da, 14 puntu espainiarren gainetik. Eta hori berdin gertatzen zen gizonen nahiz emakumeen artean. **Datu horiek argi eta garbi erakusten dute etorkinak lanera etortzen direla Espainiara.**

Egoera oso antzekoa da EAEn. 2019an, 16 urtetik gorako euskal biztanleen % 55 lanean edo lan bila zebilen, eta EAEn bizi ziren etorkinen artean, % 70. Eta hemen ere, berdin gertatzen zen hori gizonen nahiz emakumeen artean, beheko taulan erakusten denez.

Jarduera-tasa (hala deitzen zaio lan-arloko adierazle horri) handiago horren arrazoietakoa bat da etorkinak gazteagoak direla espainiarrak baino, baina adin-talde askotan ere jarduera-tasa handiagoak dituzte.

		Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Espainia	Espainiarrak	57	62	52
	Atzerritarak	71	80	64
EAE	Espainiarrak	55	59	52
	Atzerritarak	70	78	62

4. Etorkinek lanpostuak kentzen dizkiete espainiarrei?

Hori da immigrazioari eta lan-merkatuari buruz hitz egiten denean gehien ateratzen den mitoetako bat. Baina, oro har, esan daiteke etorkinek ez dietela enplegurik "kentzen" espainiarrei. Egia da zenbait kasutan etorkinak (adibidez, europar jatorrikoak eta kualifikatuak) espainiarrekin lehian ari direla, baina etorkin gehienek betetzen dituzten lanpostuak lan-baldintzarik okerrenak dituzten sektoreetakoak izaten dira eta, beraz, haien enpleguak espainiarrenen osagarriak dira, espainiarrak lan-baldintza hobek dituzten sektoreetara joaten baitira.

Atzerritarrek ez diete espainiarrei lanposturik kentzen, eta hori frogatzeko, esan daiteke **atzerritarren enplegu-tasa handitzeak ez duela berekin ekarri espainiarren langabezia handitzea**. Are gehiago, esan daiteke, 2008ko krisialdia lehertu zenean, Espainiak historian inoiz izan duen etorkin kopururik handiena zuela, eta horrekin batera, espainiarren

langabezia-tasa Espainiako azkenaldiko historia ekonomikoko txikiena zela.

5. Gerta daiteke langileak langabezian egotea eta etorkin gehiagoren beharra izatea?

Bai, lan-merkatuko desorekak eragiten dituzten arrazoiei erreparatzen badiugu. Izan daitezke desoreka geografikoak (leku batean langabeak egotea eta beste batean lanpostu hutsak, eta langabe haiek lekualdatzeko joera gutxi izatea), edo izan daitezke lanpostuetako desorekak (zaharkituta geratzen ari diren lanbideetako langabeak egotea, eta kualifikazio berriak behar dituzten lan-aukerak agertzea, baina horietarako jenderik ez egotea prestatuta), edo izan daitezke lan-baldintzen inguruko desorekak ere (oso baldintza txarrak izanik, langile batzuek nahiago izatea ez onartzea eta langabezian jarraitzea). Kasu horietan guztietan gerta daiteke langile etorkinek lan horiek hartzea, bai lanerako aukerak dauden lekura joatea onartzen dutelako (errazagoa dute, baldin eta Espainiako beste lekuren batean lotzen dituen etxebizitzarik edo familia-sarerik ez badute), bai eskatutako kualifikazioak dituztelako, bai eta lan-baldintza oker horiek onartzen dituztelako ere, beste aukerarik ezean.

6. Zein da etorkinen kualifikazio- edo ikasketa-maila espainiarren aldean?

Kualifikazioa neurtzeko oinarritzat hartzen bada zer ikasketa burutu dituzten langileak (biztanleria aktiboak), orduan esan daiteke etorkinek, batez beste, espainiarrek baino urtebete gutxiagoko ikasketak egin dituztela. Espainiarrek ikasketetan batez beste 13,3 urte egiten dituzte, eta langile etorkinek, berriz, 11,9 urte; emakumezkoek gizezkoek baino ikasketa-urte gehiago dituzte, bai espainiarren artean, bai etorkinen artean. Baina ondorengo taulan ikus daitekeenez, alde nabarmenak daude jatorriko lekuaren arabera. Esate baterako, Batasuneko kide ez diren Europako herrialdeetako etorkinek espainiarrek baino ikasketa-urte gehiago dituzte, eta munduko gainerako lekuetatik etortzen direnek lau ikasketa-urte gutxiago dituzte.

		Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Espainiarrak	Guztira	13,1	12,7	13,5
	Espainiarrak	13,3	12,9	13,8
Atzerritarak	Guztira	11,9	11,6	12,2
	Europar Batasuna	13,1	13,1	13,0
	Gainer. Europa	14,2	13,9	14,4
	Latinoamerika	12,3	12,2	12,3
	Munduko gainerako herrialdeak	9,2	9,0	9,6

7. Zenbat etorkin ari dira Espainian lanean eta zenbat lan bila?

2019aren amaieran, 2.469.300 etorkin ari ziren lanean, hau da, Espainian lanean ari ziren pertsonen % 12 atzerritarra zen. Horietatik, 1,35 milioi gizonezkoak eta 1,12 milioi emakumezkoak ziren. Eta 616.700 etorkin lanik gabe zeuden eta lan bila ari ziren Espainian.

8. Zein sektoretan aritzen dira etorkinak?

Etorkin asko lau jarduera-sektoretan ari dira: **etxe partikularretako enpleguak (gehienak emakumeak), nekazaritza, ostalaritza eta eraikuntza**. Lehenengoan, landun guztien % 40tik gora etorkinak dira, nekazaritzan % 30 inguru, ostalaritzan % 23 inguru, eta eraikuntzan, sektore horretan ari diren landun guztien % 16 dira atzerritarrak. Sektore horiek dira, jarduera administratiboetan edo manufaktura-industrian ari direnekin batera, etorkinen kopururik handienak biltzen dituztenak (2020ko urtarrileko datuak).

9. Zergatik ari dira lanean sektore horietan?

Lehenengo lau sektore horiek ezaugarri komunak dituzte. Nekazaritzako, ostalaritzako eta eraikuntzako lanpostu batzuk kualifikazio-maila eta ospe handikoak izan arren, lanpostu gehienetan eginkizunak nekezak dira, eta lan-baldintzak oso kaskarrak; beraz, lanpostu horiek ez dira oso “desiragarriak”.

Gaztelaniaz, batzuetan esaten da etorkinek betetzen dituzten lanpostuak **3P moduko lanpostuak direla: Penoso (nekeza), Peligroso (arriskutsua) eta Precario (prekarioa)**. Esapideak ez du, noski, lanpostu guztietarako balio izango, baina bai haietako askotarako.

10. Eta zergatik onartzen dituzte etorkinek enplegu horietako asko?

Etorkinek, batez ere Espainian denbora gutxi daramatenek, premia handia dute lanean aritzeko: beren mantenerako, jatorriko herrialdean utzitako familiarri zerbait bidaltzeko, eta kasu askotan, beren migrazio-bidaia egiteko sortutako zorrak ordaintzeko. Eta horregatik onartu ohi dute ia-ia topatzen duten lehenengo lana; askotan, gainera, beren gizarte-sareen bitartez lortzen dute lan hori: sektore horietan ari diren senitartekoen, lagunen edo ezagunen bidez.

Esaten denez, etorkinak *behartuta daude* enplegu horiek onartzera, “negoziatzeko ahalmen sozial” eskasa dutelako.

11. Espainiarrek baino mugikortasun geografiko handiagoa al dute etorkinek?

Bai, eta horixe izaten da, hain zuzen ere, lan-merkatuan etorkinek duten **abantaila gutxietako bat**. Etorkin asko bakarrik egoten dira, batez ere Espainian

denbora gutxien daramatenak, eta bizileku finko eta egonkorrik ez dutenez, erraz joaten dira leku batetik bestera, enplegua lortzeko edo daukatena hobetzeko aukerarik topatuz gero. Batzuk Espainian zehar ibiltzen dira nekazaritzan, aldiari aldiari bilketari jarraiki: Jaengo olibak, Valentziako Erkidegoko laranjak, Huelvako marrubia edo Lleidako frutak.

12. Nolako da lanbide-aldakortasuna etorkinen artean?

Etorkin asko, Espainiara iritsi eta lanean hasten direnean, beren hezkuntza-mailaren azpitik eta jatorriko herrialdean izan duten lanbide-eskarmentuaren azpitik dauden lanpostuetan aritzen dira. Esan daiteke gehienek bizitzen dutela **beheranzko lanbide-aldakortasuna**. Eta *bigarren mailako merkatua* deitzen denari dagozkion lanpostuetan aritzen dira, soldata okerragoak, egonkortasun txikiagoa eta promoziorako aukera gutxiago dituztela. Urteak igarota bakarrik lortuko dute etorkinek lanpostuan goranzko aldakortasuna izaten hastea (azterlan batzuen arabera, hamarren bat urte igarota), baina ia beti bigarren mailako merkatua deitzen den horretako lanpostuetan. Hau da: hasieran, beherantz egiten dute jatorrian zuten lanpostuarekiko, eta ondoren, urteak pasata, beherantz egite horretan galdutakoa apur bat berreskuratzen dute.

13. Etorkin-talde batzuek autoenplegu-maila handia dute, zergatik?

Autoenpleguak funtzionatzen du, batzuetan, langileek –bertakoak nahiz etorkinak– negozio txikiak (edo ez hain txikiak) martxan jartzea erabakitzen dutelako, eta beste batzuetan, beren prestakuntza-mailaren arabera soldatapeko lanpostu bat lortzen ez dutela iritzi, autoenpleguan ikusten dutelako berentzat eta familiarentzat mantenua lortzeko aukera. Etorkinen artean bi egoera horiek aurkituko ditugu. Adibidez, autoenplegua oso zabaldua dago txinatarren artean, bai Espainian eta bai Europako beste hainbat herrialdetan. Beren jatorriko herrialdean, denetarik saltzen duten dendetan edo arropa nahiz oinetakoen saltokietan enplegu-hobi bat aurkitu dute, eta horietan, Espainian bizi diren txinatarren ia erdiek egiten dute lan.

Autoenplegu handia dago, era berean, “negozio etniko” deitzen diren horietan; alegia, hala etorkinentzat nola bertakoentzat jatorriko herrialdeetako salgai tipikoak eskaintzen dituzten negozioetan.

14. Nork pairatzen du langabezia-egoera gehiago, etorkinek ala espainiarrek?

Lanean espainiarrak baino gehiago arituta ere, **langabezia-egoera gehiago pairatzen dituzte etorkinek**. Hori ez da kontraesankorra, espainiarrak

baino neurri handiagoan sartzen direlako lan-merkatuan (alegia, aktiboagoak dira) eta, beraz, enplegu-tasa handiagoa izan dezakete (biztanleria osoarekiko) eta langabezia-tasa handiagoa ere bai (biztanleria aktiboarekiko).

Esaterako, 2019aren amaieran, atzerritar aktiboen % 20 langabezia zegoen, eta espainiar aktiboen % 13; eta, atzerritarren kasuan, espainiarren kasuan bezala, langabezia-tasa handiagoa zen emakume etorkinen artean gizonen artean baino, bai eta gazteen artean ere, helduen artean baino.

Langabezia dauden etorkinen kopuruak gora eta behera egiten du krisien arabera, langabe espainiarren kopuruak bezala; 2008ko Atzeraldi Handiarekin langabezia izugarri handitu zen Espainian, 2013an eta 2014an % 26ra iristeraino. Ordutik langabeziak (eta langabezia-tasak) behera egin du pixkanaka, 2019aren amaieran % 14ra iristeraino (espainiarrak nahiz atzerritarrak barnean hartuta).

15. Lan-merkatuan ba al dago genero-desberdintasunik etorkinen artean?

Lan-merkatuak oso modu diferentean tratatzen ditu emakumeak eta gizonak. Lan-merkatua zenbait eragile elkarrekintzan jardunda eragiten dituzten ekintzen ondorioa da; eragile horiek, batetik, instituzioak dira (legeak edota usadioak), eta bestetik, hainbat eragile (enpresaburu, sindikatu, langile eta bezeroak). Eta lan-arloko datuek erakusten dutena da emakume etorkinen kopuru handi bat biltzen dela zenbait sektoretan (etxeko zerbitzua, ostalaritza), batez beste gizonezkoek baino soldata txikiagoak dituztela, eta langabezia-tasa handiagoak izaten direla haien artean.

Baina egia da, era berean, emakume askok (bertakoak nahiz etorkinak) lortzen dutela lan-merkatuko egoera okerrago horietatik ateratzea. Eta arrazoietakoa bat izaten da, hain zuzen ere, lan-merkatua iristen diren emakumeek, batez beste, gizonen baino hezkuntza-maila handiagoa (eta hobea) izaten dutela. Eta horregatik lortzen dute ospe hobea duten eginkizunetan aritzea, batez ere zerbitzuetako azpisektore batzuetan.

16. Zer ondorio du etorkinen eta espainiarren adin-egitura desberdina izateak?

Etorkinen artean, langile aktiboen % 60 25 eta 45 urte bitartekoa da, eta espainiarren artean, % 46 besterik ez; aldiz, espainiar langile aktiboen % 48 45 urtetik gorakoa da, eta etorkinen % 32; eta 45 urtetik gorako talde horren barruan, 55 urtetik gorako espainiarren kopurua etorkinena halako bi da. Hau da, etorkinen adin-egitura espainiarrena baino askoz ere gazteagoa da lan-merkatuan. Kalkuluen arabera, espainiar aktiboen batez besteko adina 44 urte dira, eta etorkinena 40 urte.

Adin-egitura desberdinak izate hori ona da lan-merkatuarentzat, gaztetzen laguntzen diolako eta hurrengo urteetan lan egiteko moduan egongo diren pertsonen kopurua handitzen duelako.

17. Nolako tratua izaten dute etorkinek lan-merkatuan?

Etorkin asko justiziaz tratatuak izaten dira eta bertako langileen lan-baldintza beretan aritzen dira lanean, baina beste askok **bazterketa jasaten dute, zuzenean edo zeharka**. Bazterketa hori batzuetan enpresek egiten dute, baina beste askotan bezeroek edo gainerako lankideek eragina izaten da. Eta ondorioz, maila bereko langile espainiarrek baino lan-baldintza eta soldata okerragoak izaten dituzte.

Kasu batzuetan esplotazio lazgarria jasan izan dute, eta prentsak esklabotzarekin parekatu izan ditu zenbait egoera. Adibidez, 2020ko otsailaren amaieran, prentsak salatu zuen Errumaniako dozenaka langilek esplotazio latza jasaten zutela Valentziako Erkidegoan laranjaren bilketan, beren herrialde bereko bitartekarien eskutik.

18. Etorkinek Gizarte Segurantzaren alta emanda egon behar dute?

Bai, jakina. Lanean ari diren langile guztiek egon behar dute alta emanda eta kotizatzen Gizarte Segurantzaren. 2020ko urtarrilean 2.090.440 etorkin daude Gizarte Segurantzaren alta emanda eta kotizatzen. Horrek esan nahi du **kotizatzen duten guztien % 11 dela atzerritarra**. 2019ko azken hiruhilekoan, etorkin kotizatzaileen kopurua, hileko, batez beste, 2.106.106koa izan zen. Gizarte Segurantzak hileroko argitaratzen dituen estatistikei esker ezagutzen dugu zehaztasunez etorkin horiek zer erregimenetan eta sektoretan kotizatzen duten.

Baina 2019ko azken hiruhilekoan batez beste hilabete bakoitzean izandako etorkin kotizatzaileen kopurua 2.106.106koa izan bazen, eta aldi horretan bertan lanean ari ziren etorkinak batez beste 2.469.300 baziren, horrek esan nahi du 363.000 etorkin inguru lanean ari zirela, baina enpresaburuek ez zituztela Gizarte Segurantzaren altan emanda. Ezkutuko ekonomiaren proportzio hori Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak (OCDE) Espainiarako kalkulatu ohi duena (% 20 inguru) baino txikiagoa da.

19. Etorkinek espainiarrek kobratzen duten kopuru bera kobratzen dute langabezia-prestazioetan?

Etorkinek espainiarrek duten eskubide bera dute langabezia-prestazioak kobratzeko, horretarako legeak ezartzen dituen baldintza orokorrak betetzen badituzte. Besteak beste, Gizarte Segurantzaren kotizatu izana.

Esate baterako, 2020ko urtarrilean 225.466 atzerritar ari ziren langabezia-prestazioren bat kobratzen. Horrek esan nahi du hilabete horretan prestazio horiek kobratu zituzten 1.097.095 pertsonetatik % 21 atzerritarra zela. Eta horrek esan nahi du langabezia-prestazioak hartzen dituzten atzerritarrek, proportzioan, espainiarrak baino gutxiago direla, atzerritar langabeak gutxi gorabehera langabe guztien % 25 izaten direlako.

20. Zer gertatzen da lan-merkatuan paperik gabeko etorkinekin?

Espainian “paperik gabe” dauden atzerritarrek –hau da, Espainian legez lan egiteko aukera emango dien bizileku-baimenik ez dutenek– **egoera zailagoa eta askoz okerragoa dute lan-merkatuan**. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2019aren amaieran 3,1 milioi langile atzerritar zeuden Espainian (2,5 milioi lanean eta 0,6 milioi langabezian). Langile horietako batzuk paperik gabeak dira. Zaila da zehatz jakitea zenbat diren, baina haien proportzioa nabarmen jaitsi da XXI. mendearen hasieratik.

Paperik gabekoek Espainian legez lan egiteko aukerarik ez dutenez, ezin dute Gizarte Segurantzza alta eman. Lanean aritu arren alta emanda ez dagoen % 15 horretatik gehienak “paperik gabeko” langileak izan daitezke. Egoera horrek langile bereziki kalteberak bihurtzen ditu, eta probabilitate handiagoa izango dute lan-merkatuan gehiegikeria eta bazterketa pairatzeko.



USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: etorkinen ekonomia-ekarpena

Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe

1. Etorkinek jasotzen dutena baino ekarpen handiagoa egiten al diote diru-kutxa publikoei?

Bai, hala egiten dute. Entzuten eta esaten direnen kontrara, ekonomia- eta zerga-azterketa ugari erakutsi dute immigrazioak ekarpen handiagoa egiten duela zergetan ongizate-sistemaren zerbitzuetatik jasotzen duena baino. Euskadin, zehazki, ekonomia-krisi betean Ikuspegik egindako azterketa batek (2016) argi eta garbi erakutsi zuenez, 2008ko ekonomiaren oparoaldian, 71 milioi euroko superabita izan zen, eta, 2012an, ekonomia-krisi betean, 38 milioi eurokoa. Azterketa, gainera, testuinguru kontserbadore bat kontuan hartuta egin zen, eta azterketa egiteko datu fidagarriak eta ofizialak baliatu ziren.

2. Baina behartsuagoak badira, nola daiteke ekarpen handiagoa egitea?

Egia da atzeritik etorritako biztanleriaren pobrezia-tasak handiagoak direla biztanleria osoarenak baino. Hala ere, haiek zer ekarpen egiten duten eta zer jasotzen duten pentsatzen jartzen garenean, gizarte-laguntzak soilik hartu ohi ditugu kontuan, baina kalkulu horretan beste hainbat partida ere sartzen dira, hala nola etxebizitza, hezkuntza eta osasungintza. Osasungintzan eta hezkuntzan, gastuan duten eragina txikiagoa izan ohi da. Nolanahi ere, jasotzen dutenari soilik erreparatzen badiogu, ez dugu aintzat hartzen zer ekarpen egiten duten, eta hori izan ohi da harrera-gizartetik begiratzeko modua.

3. Zenbait datuekin azaldu daiteke?

Datuek erakusten dute atzerriko biztanleriaren enplegu-tasa gizarte osoaren enplegu-tasa baino txikiagoa dela, baina aldea ez da oso handia. Zehazki, 2018ko datuen arabera, Euskadiko guztizko enplegu-tasa % 68koa zen, eta atzerriko biztanleriarena, % 62. Gainera, jarduera-tasaren arabera, atzerriko biztanleriaren % 77 aktiboa da lan egiteko; ostera, euskal gizarte osoa kontuan hartuz gero, biztanleriaren % 56 da aktiboa. Lan-merkatuko jarduera horrek guztiak eragin positiboa du administrazioak biltzen duen zenbatekoan, bai PFEZ

zergaren bidez bai gizarte-kotizazioen bidez. Hau da, egoera larrienean bizi diren etorkinei erreparatzeko joera dugu, baina ahaztu egiten dugu etorkin gehienek lan egiten dutela, kotizatu egiten dutela eta zergak ordaintzen dituztela. Horri dagokionez, Ikuspegiren arabera, 2012. urtean, ekonomia-krisi betean eta egungoa baino testuinguru okerrago batean, kalkuluaren arabera administrazioak, atzerriko biztanleriaren aldetik, 200 milioi euro bildu zituen PFEZren bidez, eta 277 milioi euro, gizarte-kotizazioen bidez.

4. Baina ekonomian ere badute eraginik?

Ekonomian egiten den eragin oro kalkulatzeko –izan ekintza, faktore edo ekitaldi–, BPGd-an duen eragina neurtzen da. Atzerriko biztanleriak, kontsumoari dagokionez, Euskadiko BPGd-ri egiten dion ekarpena neurtzen duen azterketa argitaratu berri du Ikuspegik. Ekonomia-azterketa horretan ondorioztatzen denez, 2018an, atzerriko biztanleriak 758 milioiko ekarpena egin zion EAEko BPGd-ri, hau da, BPGd osoaren % 3,1. Datu horrek agerian uzten du migrazio-fenomenoak Euskadiko ekonomiaren dinamizaziorako duen eragin positiboa.

5. Baina datuek esaten dute pisu handiagoa dutela DSBEn... ez dut ulertzen...

Egia da atzerriko biztanleriak diru-kopuru handia jasotzen duela DSBEn eta bestelako gizarte-laguntzen bitartez; izan ere, biztanleria-talde horren pobrezia-tasa eta gizarte-zaugarritasunaren tasa handiagoak dira. Beraz, horrek adierazten du laguntzen sistemak dagokion funtzioa betetzen duela. Dena den, ahaztu egiten dugu prestazio ekonomiko mota horiek eragin handia dutela ekonomian; hau da, babes edo laguntza horiek jasotzen dituzten pertsonak era bateko edo besteko gaiak kontsumitzeko baliatzen dituzte, oso-osorik, oinarritzko gastuak ordaintzeko nagusiki, hala nola etxebizitza, fakturak, elikadura eta arropa. Beraz, diru hori ekonomiara itzultzen da berehala, eta diru-kutxa publikoetara iristen da, kontsumoarekin lotutako zergen bitartez. Ikuspegiren azterketaren arabera,

2012an, atzerriko biztanleriak egindako kontsumoaren ondorioz, ogasunek 84 milioi bildu zituzten BEZaren bitartez, eta 59 milioi, Zerga Berezien bitartez. Eta krisiaren aldirik gogorrean geunden.

6. Baina hainbeste kontsumitzen al dute etorkinek?


Bai, atzeritar jatorriko familiek jasotzen duten ia guztia gastatzen dute. Immigrazioak Euskadiko BPGd-an duen eraginari buruz Ikuspegik egindako azken txostenaren arabera, atzeritar jatorriko familiek 1.565 euro gastatzen dituzte hilero, batez beste. Euskadin bizi diren atzeritar jatorriko 81.219 familia erreferentziatzen hartuta (EUSTATEko datuak), urtero 1.500 milioi euroko kontsumoa kalkula dezakegu. Ikus daitekeen moduan, atzerriko biztanleriaren kontsumoa oso altua da.

7. Esaten duzunak ez du heldulekurik; etorkin gehienak gizarte-laguntzetatik bizi direla entzuten dugu...

Etorkin gehienak gizarte-laguntzetatik bizi diren ideia mito bat da, zurrumurru faltsu bat. Lehen aipatu dizudan bezala, etorkin gehienek lan egiten dute. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren EABI inkestako datuak aintzat hartuz gero, ikusiko dugu, 2018an, etorkin gehienek lan batengatik jasotako soldata zutela diru-sarrera nagusia. Zehazki, etorkinen % 59,8 beren soldatetik bizi zen, nagusiki, eta % 7,6k soilik zuen laguntza ekonomikoa diru-sarrera nagusitzat. Baina krisi-garaian ere, ildo bereko datuak genituen; 2014an, esaterako, etorkinen % 15,3k soilik zuen laguntza ekonomikoa diru-sarrera nagusitzat, eta % 46,4ren diru-sarrera nagusia errenta bat edo soldata bat zen.

8. Ados, ikusten dut uste baino lan gehiago egiten dutela, baina sektore prekarioetan egiten dute, eta horrek eragina du haien ekarpenean.

Egia da etorkinak, batez ere, lan prekarioetan eta gaizkien ordaintzen diretan aritzen direla. Halere, joera orokorra hori izan arren, haien lan-sektoreak dibertsifikatzen ari dira azken urteetan. 2018ko EABI inkestako datuen arabera, etxe-zerbitzua, ostalaritza eta merkataritza dira oraindik sektore nagusiak, baina ikusten dugu gora egin duela beste sektore batzuetan lan egiten duten etorkinen kopuruak, hala nola osasungintzan, gizarte-zerbitzuetan, metalurgian, garraioan eta komunikazioan.



USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: zaintzaile migratzaileak bizitzaren sostengurako

Lucía Martínez Virto

Azken urteotako aldaketa sozial, demografiko, politiko eta ekonomikoek izugarritzko eragina izan dute gure zaintza-ereduan. Emakumeak soldatapeko lan-merkatuan sartu dira, gizartea zahartzen ari da eta migrazio-fluxuak ditugu; horrek adierazten du, hein batean, nolakoa den gaur egungo gizartea. Horren haritik, bizitzaren sostenguak beste zenbait alderdi hartzen ditu bere baitan, hala nola zaintza eskubidetzat hartzea, ereduaren finantziazioa, lurraldearen aniztasuna, familietako zaintza-ereduak eta zaintzaren inguruko lan-sektorearen sustapena; hori guztia kontuan izanik, bizitzaren sostenguaren etorkizunean, zeharka eragiten dute hiru ardatz nagusi hauek: genero-berdintasuna, migrazioak eta gizartearen zahartzea.

1. Zein da 2030erako aurreikuspena, migrazioen ikuspegitik?

Bada, gizarte zahartuagoa eta kultura-anitzagoa. Eustat-ek 2031rako egindako proiektzio demografikoaren arabera (2020), 65 urte baino gehiagoko biztanleen ehunekoak, biztanle guztiekiko, gora egingo du % 22,8tik % 28,2ra. Hau da, ia-ia 6 puntu egingo du gora. Gorakada hori antzekoa izango da gizonen zein emakumeen kasuan; Euskadiko gizonetako guztien artean, 65 urtetik gorakoek % 20 egiten zuten 2020an, eta % 25,4 egingo dute 2031n. Emakumezkoen buruzko datuak antzekoak izango dira: Euskadiko emakumezkoen % 25,4 ziren 65 urtetik gorakoak 2020an, eta % 30,8 izango dira 2031n. Datu horiek guztiak argi adierazten dute **gure gizartea gero eta zaharragoa dela**.

2. Bizi-itxaropena luzatu izana oso kontu ona da, bai?

Jakina! Osasun- eta pentsio-sistema publikoak erabakigarriak izan dira bizi-itxaropenaren luzatze horretan. Gero eta urte gehiago bizi gara, eta bizi-kalitate hoberekin biziko gara. Bizi-kalitatearen hobetze horrek, halaber, zahartzeko moduak aldatzea eragin du. Zaintzaren inguruko joera berriek agerian utzi dute egonaldi luzeko ospitale-arreten kopuruak behera egin duela, edo ohiko egoitza-zaintza ez den beste formula batzuk ugaritu egin direla.

Bestalde, munduan barrera izandako aldaketa ekonomiko eta politikoek berekin ekarri dute, azken bi hamarkadetan, herrialde eta kontinenteen arteko migrazio-fluxuak ugartzea. 2019. urtean, Euskadin bizi diren pertsonen % 92,4 Espainiako Estatuaren barruan

jaioko dira, eta % 7,6 atzerrian jaioko. Horrek esan nahi du 3 puntu egin duela gora ehunekoak 2007. urteaz geroztik, urte horretan biztanleen % 4,4 baitzen estatutik kanpo jaioko. Horien artean, Ikuspegik emandako datuen arabera (2019), % 52,6 emakumezkoak ziren eta % 47,4, gizonetakoak.

Datu horiek nazionalitatearen arabera xehakaturik, atzerrian jaiotako pertsonen % 38 Amerikatik etorriak dira (% 24 Hego Amerikako herrialdeetatik eta % 14 gainerako herrialdeetatik), % 29 Afrikatik (% 19 Magrebetik, eta % 10 gainerako herrialdeetatik), % 26 Europatik (% 16 Ekialdetik eta % 10 gainerako herrialdeetatik) eta % 9 Asiatik edo Ozeaniatik. Bai migrazio-prozesuak eta bai zahartze-prozesuak adierazten dute nolakoa den, hein handi batean, Euskadiko eta gainerako Espainiako Estatuako zaintza-eredua.

3. Garrantzitsua al da zaintzaren eta bizitzaren sostenguaren gaia?

Zaintzak ezinbestekoak dira, baldin eta aldaketei eta eraldaketei aurre egingo dieten lurraldeak eta gizarteak eraikiko baditugu. Zaintzea, tratu ona bermatzeko haurtzaroon; zaintzea, gizarte-bazterketa bizi duten pertsonen aukera hobea izan ditzaten lortzeko; eta zaintzea, mendekotasunen bat duten edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen beharrei erantzuteko. Zaintzak, horrenbestez, ez du esan nahi bizitzaren azken urteetan lagun egitea bakarrik, zaintzaren funtzioa bizi-ziklo guztiaren joanean gauzatzen baita, gizarte indartsuak eta erresilienteak eraikitzeko.

Gizarte-sektore zaharrenei dagokienez, Mendekotasun Legea indarrean egon aurretik, gizarte-zerbitzuetako politiken bidez eman zitzaion konponbidea adineko pertsonen zaintzari, eta horretarako jarri zituzten baliabideak, besteak beste, zaindua izateko beharrari eta norberaren ingurunean bizitzen jarraitzeko nahiari erantzuteko ziren, bai eta egoitzaren baterako sarbidea edukitzeko ere. Baliabide horietako asko oraindik ere baditugu (etxez etxeko laguntza-zerbitzua, telelaguntza, egoitzak, eguneko zentroak, etab.), eta guztiak izan dira funtsezkoak pertsonen zaintzarako. Nolanahi ere, funtsezkoa izan da, halaber, familia; izan ere, familia arduratu da zaintza kudeatzeaz eta antolatzeaz.

4. Nork zaintzen du Euskadin?

Beste lurralde askotan bezala, Euskadin ere areagotu egin dira besteren kontura zaintzeko lan-jarduerak.

Familia-zaintzarekin zerikusia duten langileen kopuruak nabarmen egin du gora azken bi hamarkadetan. Eustatek emandako datuen arabera (2019), “Bestelako gizarte-jarduerak eta zerbitzu pertsonalak” jardueraren alorrean diharduten pertsonen kopurua bikoiztu egin da 1996. urteaz geroztik; zehazki, 1996an 23.881 lagun aritzen ziren eta 2019an, berriz, 40.719. “Etxeko lanak” egiteko etxeetan lan egiten duten pertsonen kopuruak ere nabarmen egin du gora: 4.419 lagun ziren, eta azken datuen arabera, 28.131 dira; hau da, 1996ko kopurua halako sei da 2019an.

Horrenbestez, datu horiek agerian uzten dute etxeko zaintza asko jada hasi direla horretarako propio kontratatutako pertsonen gain geratzen. Garai bateko egoerarekin alderatuta, garbi dago izugarri aldatu dela zaintzaren alorra. Zer dela-eta gertatu ote da?

Zaintzaren alorreko gizarte-antolaketa izandako aldaketei buruzko literatura zientifiko ugari dago, osotasunean aztertu nahi izan baita nola egin zaion aurre zaintzak berekin dakarren presio sozialari. Azterketa horietan, azken hamarkadetan gure historian garrantzi handia izan duten hiru prozesu identifikatu dira: emakumezkoen emantzipazio progresiboa, gizarte-politiken ugaritzea eta migrazio transnazionalak.

Emakumezkoak soldatapeko lan-merkatuan sartzeak berekin ekarri du familietan zaintzen antolaketa aldatu beharra, emakumeak egin ohi baitu lan hori. Baina prozesu horrek ez du eragin proportzio berean gizonaek lan hori egitea. Zaintza-alorreko “**erantzukidetasuna**” esan zaion prozesu horrek ez du lortu emakumezko familien zaintza- eta sostengu-arduratik askatzea. Eustatek denboraren erabilerari buruz egindako inkestaren arabera (2018), 2013. urtean baino 10 minutu gutxiago ematen dira Euskadin etxeko lanak egiten, hala nola otorduak prestatzen, garbitzen edo erosketak egiten. Emakumezkoek eta gizonaek etxeko lanak egiten ematen duten

denboraren arteko aldea ere murriztu egin da; 2018an emakumezkoek ordu 1 era 11 minutu gehiago ematen zituzten etxeko lanak egiten gizonaek baino, eta 2013an, berriz, ordu 1 eta 24 minutu gehiago. Zaintza-lanetan, ordea, denbora gehiago ematen dugu; etxekoak zaintzen, adingabeak zein adinekoak, egunean 2,25 ordu ematen dira, batez beste. Halako lanetan diharduten gizonaek 2 ordu eta 3 minutu ematen dituzte egunean, eta lan horietan diharduten emakumezkoek 2 ordu eta 41 minutu. Oso datu adierazgarriak dira: gizartearen jarrera gero eta erantzukideagoa da, baina familiek gero eta denbora gutxiago ematen dute zeregin horietan. Denbora gutxiago ematen dugu eta zaintza-sektorean besteren konturako gero eta langile gehiago daude; argi dago zein den joera: **zeregin horiek merkantilizatzen ari dira.**

5. Nola txertatzen da prozesu horretan Mendekotasun Legea?

Bestalde, ongizate-estatuak ere egin behar izan dio aurre zaintzen alorreko *presio* gero eta handiagoari. 39/2006 Legeak, Mendekotasun Legea esanda ezagutzen denak, gizarte-zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen katalogo berri bat jarri zuen abian, adineko pertsonen edo mendekotasunen bat duten pertsonen zaintzari aurre egiteko Espainian. Lege horrek aurrerapen ukaezina ekarri zuen eskubidearen terminotan; legeak zerbitzu-prestazioak oinarri zituen zaintza-ereduaren aldeko filosofia zuen, eta ez prestazio ekonomikoak oinarri izango zituen. Baina praktikan, familiei zuzenean emandako prestazio ekonomikoak izan ziren legearen ekarpen nagusietako bat.

Euskadin, 2020ko urtarrilaren 31n, IMSERSOK argitaratutako datuen arabera, 67.180 lagunek jaso zuten mendekotasunaren arretarako sistemaren prestazioa. Laguntza horietatik, ia erdia familia-ingurunean zaintzeko zen (% 39,8, familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa, eta % 7, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa). Espainian, batez beste, prestazio guztien % 30,29 egiten du familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoak.

Mendekotasun Legeak aurrekaririk gabeko aldaketa eragin zuen zaintzen ardura publikoan. Nolanahi ere, legea argitaratu aurretik jada ari zen zaintzen inguruko familia-lana berregituratzen. Martínez-Bujan katedradunak adierazi zuenez (2010), etxeko kideen artean modu arduratsua goan banatu ordez, berrantolaketa horrek zaintza-lanetarako etxe-langile bat kontratatzea eragin zuen. Joera hori are gehiago areagotu zen migrazio-fluxuak, oso feminizatuak, ugaritzearekin batera 2000. urteaz geroztik.

Harrezkero, emakume asko hasi ziren, batez ere Latinoamerikakoak, zaintza-lanetan eta etxeko lanetan. 2011. urtera arte, etxeko lanen eta zaintzen sektorea 1424/1985 Errege Dekretuak arautzen zuen.

Lege hori izugarri diskriminatzailea zen beste lan-erregimen batzuen aldean, eta desparekotasuna ere agerikoa zuen: hitzeko kontratua ere onartzen zuen, soldataren zati handi bat gauzaz ordaintzeko aukera ematen zuen, langabeziagatiko prestaziorako eskubidea ez zuen jasotzen, ez eta gaixotasun arrunt eta profesionalengatiko gutxieneko estaldura ere, besteak beste. Langile horiek egin zuten presioari eta zenbait gizarte-mugimenduren laguntzari esker, zenbait aldaketa egin ziren sektore horren lan-erregulazioan. IMSERSOK mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez profesionalei buruz erregistratutako datuen arabera, 2020ko urtarrilaren 31n, guztira, 56.546 pertsona ziren, eta horietatik Euskadin 8.306 lagun (% 14,7). Espainiari dagokionez, zaintzaile horietatik, % 89,2 kontuan hartuta, 10 emakumeetatik 4 emakume 50 urtetik beherakoak dira. Kontuan hartu beharrekoa da, halaber, gizarte-segurantzian alta emanda dauden etxeko langile eta zaintzaileak baino ez daudela erregistratuta, sektore horren zati handi bat oraindik ere ezkutuko enplegua baita.

6. Familia-ingurune zaintzak BPGri egiten dion ekarpena funtsezkoa al da gizarte osoaren orekarako?

Emakumeek doan egin dituzten etxeko lanen eta zaintza-lanen ekarpena dirutan zehazteko beharra 80ko hamarkadaz geroztik atsedenek izan ez duen borroka izan da. María Ángeles Durán katedraduna izan zen azterketa ekonomiko horren aitzindaria. Azken urteetan, Estatistika Institutu Nazionalak 2008an argitaratutako *Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta* oinarri hartuta, mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako 2008an egindako zaintza-lan informalek ekarpen ekonomikoa kuantifikatu zuten, eta adierazi zuten urte horretako barne-produktu gordinarek (BPG) % 2,3-3,8 artekoa izan zela ekarpena; edo beste modu batera esanda, 25.000-40.000 milioi euro artekoa. Eta zenbait autonomia-erkidegotan, ekarpenak BPGren % 6 ere egin zuten. Euskadiri dagokionez, lan hori 132,21 milioi ordutan kuantifikatu zuten, eta ordu horien guztien % 77,64 emakumezkoek egin zuten. Ekarpenean **BPGren % 4,078** ingurukoa izan zen. Horrenbestez, zaintza-lanen balio ekonomikoa ukazina da.

7. Zer dira “zaintza-kate globalak”?

Euskadin, XXI. mendean **migrazio-fluxuen kopuruak gora** egin du; gehienak, lehen ere esan dugunez, Hego Amerikako edo Afrika iparraldeko herrialdeetatik etorritakoak. Gero, fluxu horiek beste leku batzuetatik etortzen hasi ziren, hala nola Ekialdeko Europatik, Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta Amerikako eta Europako gainerako herrialdeetatik. **Oso migrazio feminizatua da, eta haietako asko zaintza-**

sektorean hasi ziren lanean; horrek berekin ekarri du eragin globaleko zaintza-kudeaketa.

“Zaintza-kate globalak” kontzeptua Arlie Hochschild-ek erabili zuen lehenbizikoz, honako hau adierazteko: “munduko hainbat tokitan dagoen jendearen arteko hartu-emanak, oinarri dituztenak zaintza-lanak, soldatapekoak zein soldataz kanpokoak”. Gerora, beste egile batzuek honela definitu zuten kontzeptua: “bizimoduari eutsi ahal izateko osatzen diren kate transnazionalak, zeinetan etxeetan zaintza-lanak batzuetatik besteetara transferitzen dituzten, botere-ardatzak baliatuta, hala nola generoa, etnia, gizarte-klasea eta jatorria”. Kontzeptu horren baitan, aztergai dugun fenomenoaz azaltzen laguntzen duten funtsezko hiru dimentsio batzen dira: zaintzen kudeaketa, migrazioak eta generoa.

2000. urtearen erdialdeaz geroztik, Europan hainbat azterlan egin ziren, zaintza-lanen erregimenen eta emakumezkoen migrazioen arteko loturak aztertzeko. Azterlan horiek agerian utzi zuten familiek zuzenean kudeatutako prestazio ekonomikoek sustatu zutela etxeko langileak kontratatzea, etxean zaintza-lanak egiteko.

Testuingurua halakoa izanik, zaintza-laneko sektore batean sartzen den emakume migratzailea –jakinik sektore horrek gizartean onespenez gutxi duela, erregulazio prekarioa duela eta babesgabetasuna handia dela– hiru arrazoiengatik diskriminatzen da: emakumea, pobrea eta etorkina izateagatik. Sonia Parellak honela adierazi zuen, oso ongi adierazi ere: diskriminazio hirukoitza, gizarte-klasea, generoa eta etnia direla-eta.

8. Zaintzen sostengua da kontua, edo justizia sozialeko kontu bat da?

Orain arte adierazitakoa aintzat hartuta, argi geratu da oso lotuta daudela migrazio-prozesuak eta zaintza-lanetako zein etxeko lanetako beharrak. Zaintza-lanbidea ez da lanbide errentagarria. Ez zen inoiz izan etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten zituzten emakumeentzat, eta orain ere ez da, oso prekario bizi baitira lanbide hori dutenak. Orain gutxi egindako azterketek ere agerian utzi dute oso desberdintasun handiak eragiten dituela etxeko lanen eta zaintza-lanen sektorean lan egiteak, desberdinkeria zein prekaritateko terminotan. Horren hari beretik, Intermon Oxfam erakundeak egin berri duen txosten baten arabera (2019), emakumezkoen lan-prekarietatea da, hain zuzen, pobrezia-egoeren eragile nagusia eta emakume horien eta haien familien autonomiarako eragozpena.

Horrez gain, zaintza-lanak, lan prekarioa izateaz gain, ondorio kaltegarriak eragiten ditu zaintzaileen osasunean. Zaintza-lanak zaintzailearen egoera fisikoan, psikologikoan, emozionalean, sozialean eta ekonomikoan eragiten du; zaintzaileek berek onartzen

dute hala dela. Osasunean eragiteaz gain, familia-harremanetan ere badu eraginik, bai eta aisiarako denboran eta gizartean parte hartzeko denboran ere, eta horrek isolatzeko arriskua areagotu egiten du. Beste egile batzuek, gainera, emakumezkoen eta gizonezkoen kostuen artean alde nabarmenak hauteman dituzte: emakumezkoenak handiagoak dira. Euskadin antzeko ondorioak atera zituzten, Euskal Autonomia Erkidegoko osasunaren inkesta aztertu ondoren.

Azken batean, oso konplexua da ulertzea familia askotan lortutako oreka, zaintzen kudeaketan migrazioen aldagaia baliatu gabe. Gure gizartean egin duen ekarpenak balio ekonomiko ukaezina du, kasu askotan bi hamarkada baino gehiagoz; baina gure gizarte- eta familia-garapenean ere balio biderkatzailea izan du, zaintza fisiko edo emozionalaren terminotan pertsonen eta gizartearen garapenean egindako ekarpenarengatik. Zaintzaile horietako askoren lan-egoerak ez du konponbide erraza. Konponbidea aurkituko badugu, gizartearen eta politikaren konpromisoa behar da, haien lana eta ekarpena aitortu behar da eta horretarako beharrezko baliabideak jarri behar dira. Etorkizuneko eta sostenguko kontu bat izateaz gain, justizia sozialeko kontu bat ere bada.



USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: immigrazioa, enplegua eta zaurgarritasuna Euskadin

Luis Sanzo González

1. Adin aktiboan dauden (16-66 urte) atzerritar jatorriko etorkinek ba al dute lan egiteko borondaterik?

Bai. Datuek oso argi uzten dute:

*Populazio horren % 92,4k lan egin nahi du. Oso zenbaki altua da.

*Aintzat hartutako etorkinen % 81,2k izan du lan-esperientziaren bat EAEn, kopururik handiena 2010etik hona.

*Atzerritar jatorriko 16 eta 66 urte arteko eta Euskadin lan-esperientzia izandako etorkinen % 86,5 aritu da lanen bat egiten azken urtean EAEn

2018an, lanean ari dira atzerritar jatorriko 98.661 pertsona. Egoera asko hobetu da 2014ren nahiz 2010en aldean. 2018ko langileak % 28,1 gehiago ziren 2010en aldean, eta % 31,1 gehiago 2014ren aldean. Lanean ari ziren 16 eta 66 urte arteko jatorriz atzerritarrek % 52,1etik % 48,4ra jaitsi ziren 2010etik 2014ra, eta % 62ra igo ziren 2018an.

2. Beraz, altua al da atzerritar jatorriko etorkinen jarduera-tasa?

Bai. % 77koa da, Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestaren arabera (EABI).

3. Egoera irregularrak nola eragiten die adin aktiboan dauden (16-66 urte) atzerritar jatorriko etorkinen lan-aukerei?

Uste denaren kontra, % 6k bakarrik eskura ditzakete enplegu irregularrak soilik.

16 eta 66 urte arteko atzerritar jatorriko etorkinen % 86,2k EAEko edozein enplegu-mota eskura dezake, 2010eko % 78,8k baino gehiagok. Lurrealdearekin edo jarduera-arloarekin lotutako mugak ditu % 0,1ek (oso gutxi dira eta gero eta gutxiago, 2010eko % 0,9ren aldean).

4. Atzerritar jatorriko etorkinen pisua gero eta handiagoa al da Euskadiko langileen artean?

Bai. EAEko langileen artean ugarituz doaz atzerritar jatorria dutenak: 2010eko % 8,3tik 2014ko % 8,5era eta 2018ko % 10,5era.

5. Atzerritar jatorriko etorkin-talde guztietan ikusten al da lanerako borondatea nagusi dela?

Zalantzarik gabe, diferentziak daude jatorriaren arabera, bai enplegua eskuratzeko zailtasun bereziak daudelako, bai emakumea beranduago bildu delako lanera. Baina borondate hori orokorra da. Hala, 16 eta 66 urte artekoen artean, nagusi da lan-esperientzia minimoa: magrebtarren % 62,8 eta gainerako Afrikakoen % 63,8.

6. Atzerritar jatorriko etorkinek zer zailtasun dituzte lan-merkatuan?

Datu guztiek erakusten dutenez, atzerritar jatorriko etorkinek problema bereziak dituzte lan-merkatuan: langabezia eta prekaritate handiagoa, lanean errotazio gehiago, zailtasun bereziak lan-baldintzetan, etab.

7. Langabezia handitzen ari al da atzerritar jatorriko etorkinen artean?

Ez. 2010 eta 2014 artean 48.880ra igo ondoren, langabezia nabarmen jaitsi da 2018an (23.875 pertsona), hau da, % 30,9 langabe gutxiago 2010en aldean eta % 51,2 gutxiago 2014ren aldean.

Hala eta guztiz ere, 16 eta 66 urte arteko atzerritar jatorriko etorkinen % 15 lanik gabe dago. Atzerritar etorkinei 2018an egindako inkestaren arabera, langabezia % 19,5koa da, askoz gutxiago 2010eko % 31ren eta 2014ko % 39,4ren aldean.

8. Orokorra al da langabeziaren jaitsiera?

Bai. 2014tik 2018ra, langabezia % 11,3 eta % 13,3 artean jaitsi zen Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika eta gainerako Latinoamerikaren kasuan; % 16,2 eta % 18,2 artean Bolivia eta Kolonbia/Ekuador/Peruren kasuan; % 21,1 Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeen artean; % 27,8 gainerako munduaren kasuan eta % 30etik gora Afrikako herrialdeetako etorkinei dagokienez (Magreb, Senegal eta gainerako Afrika).

9. Hala gertatzen al da iraupen luzeko langabeziarekin ere?

Bai. 2014-2018 artean, iraupen luzeko langabeziaren jaitsiera handia egon da atzerritar jatorriko etorkinen artean. Urtebetetik gorako langabezia 31.838 pertsonatik 11.331ra jaitsi da tarte horretan, hau da, % 64,4. Langabezia-mota hori jasan zuen atzerritar jatorriko etorkinen % 65,1ek 2014an, baina % 47,5era jaitsi zen 2018an. Iraupen oso luzeko langabezia (bi urtetik gorakoa) 2014ko 19.267 pertsonatik 2018ko 5.738ra jaitsi da (% 70,2). Langabe gutzien artean duen pisua 2014ko % 39,4tik 2018ko % 24ra igaro da.

10. Baina, atzerritar jatorriko etorkinen artean, ba al dago problemaren bat langabeziaren dinamikan?

Bai. Langabeziaren adierazle guztiak hobetu diren arren, langabezian jarraitzeko arriskua askoz handiagoa da 2018ko lanik ezak eragin zientzat. Horregatik, langabezian jarraitzen dutenek zailago dute: langabeen % 51,8k ez zuen lanik egin hilabete bakar batean ere aurreko urtean (2010), baina 2018an % 68,4 dira.

11. Zein dira enplegua aurkitzeko oztopo nagusiak atzerritar jatorriko etorkinentzat?

Oztopo nagusiak kualifikazioarekin eta esperientziarekin daude lotuta, oraindik ere. Hala, % 26,7k prestakuntza-maila aipatzen du enplegua eskuratzeko mugatzat, eta % 32,6k lan-esperientzia. Kualifikazioaren arlo honetan, tokiko hizkuntzen (euskara eta/edo gaztelania) jakintza-maila ere aipatzen du % 21,8k. Adina ere oztopo esanguratsua da: aztertutako langabeen % 17,2k aipatzen du. Familiako kargak ere sarri aipatzen dira (% 10,9k).

Jatorriz atzerritar direnek bi oztopo berezi dituzte. Lehenengoa, **administrazio- edo lege-egoera**: % 15,4k ditu horrekin lotutako eragozpenak. Bigarrenagoa jatorriarekin dago lotuta: etorkin langabeen % 18,1k aipatzen du **jatorrizko herrialdearekin** lotutako zailtasunak dituela enplegua lortzeko.

12. Atzerritar jatorriko etorkinen artean ugaritzen ari al da laneko errotazioa?

Bai. Krisialdiaren ondoren enplegua eskurago dutenez, azken urtean bi lan edo gehiago izan dituztenak ugaritu dira gehien, hau da, % 16. Ehuneko hori 2014ko % 8,8 eta 2010eko % 14,1 baino handiagoa da.

13. Laneko prekaritateak nola eragiten die atzerritar jatorriko etorkin langileei?

Jatorriz atzerritar diren soldatapeko 83.550 etorkinen artean oraindik maiz ematen da **behin-behinekotasuna edo kontraturik eza**. Hala, aztertutako etorkinen % 32,0ren kontratua ez da mugagabea, eta kontraturik gabe ari da % 6,1, guztira % 38,1. Dena dela, gutxitzen ari dira halakoak, 2010eko % 51,2tik 2014ko % 44ra.

14. Laneko prekaritate horrek gehiago eragiten al die etorkinen multzo batzuei?

Bai. Mugagabekoa ez den kontratazioa eta kontraturik eza 2018an % 51,7-51,8 artekoa da Magrebetik eta gainerako Afrikatik etorritakoen artean. % 40tik gorakoa da jatorriz boliviarrak (% 43,5) eta senegalarrak (% 40,3) direnen artean.

Gainerako multzoetan, behin-behineko kontratazioa edo kontraturik eza % 35,3 eta % 39,4 artekoa da, hiru salbuespenekin: Argentina/Txile/Uruguaiakoak, oraindik % 30etik gora (% 31,9), eta EBren mendebaldeko herrialdeetakoak eta Txinakoak (% 21,8 eta % 23,8, hurrenez hurren).

15. Baina, atzerritar jatorriko etorkinen artean ugaritzen ari al da kontratazio mugagabea?

Bai. Atzerritar jatorriko etorkinen kontratazioa dela eta, etengabe ari da handitzen kontratazio mugagabearen pisua.

Atzerritar jatorriko etorkinen artean, kontratu-mota hori dutenak 2010eko % 48,8tik 2014ko % 56ra eta 2018ko % 61,9ra igaro dira. Zenbaki absolututan, jatorriz atzerritar direnen artean, kontratu mugagabea zutenak 2010ean 31.884 ziren, 2014an 35.376 eta 2018an 51.757. Beraz, 2010etik 2018ra % 62,3 ugaritu dira kontratu mugagabea duten soldatapekoak.

16. Atzerritar jatorriko etorkin langileen egoera aztertzeko orduan, laneko prekaritatearen zer beste adierazle hartu behar da kontuan?

a) **Gizarte Segurantzaren afiliatu gabe ari da** % 5,6, baina behera bidean doa 2010eko % 14,7ren eta 2014ko % 7,5en aldean. Afiliaziorik gabeko kontratazioak batez bestekotik gora daude Boliviatik datozenen artean (% 9,2) eta, batez ere, Paraguaitik eta gainerako Latinoamerikatik datozenengan (% 16,9 eta % 16,0).

b) **Lan partziala**, astean 30 orduetik beherakoa, nabarmena da jatorriz atzerritar direnen artean (% 24,8). Nahiz eta 2014ko % 30,4 dezente jaitsi den, oraindik gaitz egiten du 2010eko % 21,7. Lan partzialari dagokionez, % 30etik gorakoa da Boliviatik eta Paraguaitik datozenen artean (% 34,9 eta % 34). Eragina % 25,4 eta % 26,9 artekoa da Errumaniatik eta EBren ekialdeko beste herrialdeetatik, Kolonbia/Ekuador/Peru/Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikar eta gainerako Afrikatik datozenen artean.

17. Zer sektore eta adarretan aritzen dira atzerritar jatorriko etorkinak?

Jatorriz atzerritar gehienak **zerbitzuen sektorean** aritzen dira, **guztien % 76,8**. Hirugarren sektorearen baitan, orain arteko berak nagusitzen dira: etxeko zerbitzua (2018ko langile guztien % 21,4), ostalaritza (% 18,5) eta merkataritza (% 9,5). Hiru adar horietan biltzen da 2018ko langile guztien % 49,4. Bestalde, 2010 eta 2014an langile guztien % 15,7-16,0 artean izan ondoren, 2018an % 20,4 dira garraioak eta komunikazioak, enpresentzako/finantza-erakundeentzako zerbitzuak eta osasuna eta gizarte-zerbitzuak.

18. Baina ugaritzen ari al dira zerbitzuen sektoretik kanpoko langileak?

Bai. 2014-2018 artean indartu egin da industriako eta eraikuntzako enplegua, zerbitzuen sektoretik kanpora. 2010-2014 artean bi sektore horietako langileak % 39,7 murriztu ondoren (atzerritar jatorriko langileak 19.219tik 11.587ra pasatu ziren), 2018an langileak ugaritu eta gaitz egin ziren lehengo mugak, 21.459 pertsonarekin, 2010eko maila % 11,7 gaitz egin. Langile guztien artean, industrian edo eraikuntzan ari den % 21,8k aise gaitz egin du 2014ko % 15,4. Hala ere, 2010eko % 25etik behera dago.

19. Enplegua zerbitzuetatik kanpora hobetzeak ba al du eragin onik atzerritar jatorriko etorkin-multzo batzuetan?

Bai. Senegalgo eta gainerako Afrikako etorkinek zerbitzuetatik kanpora duten enplegu ugaria loturik doa industrian duten % 30etik gorako presentziarekin (% 30,3 eta % 35,1, hurrenez hurren). Afrikar jatorriko etorkinek industriadar duten joera ikusten da Magreben kasuan ere, % 22,9ra mugatzen den arren. Industriadar presentzian batezbestekoa gaitz egin du EBren mendebaldeko eta Errumaniako eta EBren ekialdeko besteek ere (% 19,2 eta % 16,6), baina bi multzo horiek garrantzi berezia dute eraikuntzan (% 19,2 eta % 17,3). Senegaldarren multzoa da nekazaritza eta arrantza pisua duen bakarra (% 14,3).

20. Zer lanbidetan aritzen dira atzerritar jatorriko etorkinak?

Atzerritar jatorriko langileen % 54 **kualifikatuak edo erdi-kualifikatuak dira** (53.289 pertsona), ez-kualifikatuak (% 27,4, hau da, 27.062 pertsona) halako bi. Zuzendariak, teknikariak edo administrariak % 18,6 besterik ez dira (18.310 pertsona).

2010en aldean, baina, zuzendariak, teknikariak eta administrariak dira hazkunde erlatiborik handiena izan dutenak. % 40,9 haziz gaitz egin du langile kualifikatuak edo erdi-kualifikatuak % 36,7 eta ez-kualifikatuak % 8,1.

21. Ba al dago egokitzapen minimorik atzerritar jatorriko etorkinen prestakuntza-mailaren eta egiten duten lanaren artean?

Bai. EAEn lan-esperientzia duten langileen enpleguen % 80,4 bat dator pertsonen prestakuntza-mailarekin, 2010eko % 69,9 eta 2014ko % 77,6 baino nabarmen gehiago.

22. Atzerritar jatorriko etorkinen artean ba al da enplegu-aniztasunik?

Jatorriz atzerritar direnen % 4,5ek enplegu bat baino gehiago ditu. 2010eko % 7,3 eta 2014ko % 8,1 baino dezente gutxiago da. 2018an bakarrik gaitz egin da % 10eko muga, jatorriz paraguaiarrak direnen kasuan (% 14,2).

23. Atzerritar jatorriko etorkin langileek ba al dute problema larriak lan-baldintzetan?

Bai. Azken urtean EAEn laneko esperientzia izan duten 16 eta 66 urte arteko jatorriz atzerritarren % 29,8k dioenez, laneko problemaren bat jasan du. % 25,8k problema izan omen dituzte lanaldiarekin, soldatarekin edo kontratuarekin; % 9,8k mailaz igotzearekin, erantzukizunak izatearekin eta tratua pertsonalarekin; eta % 7,1ek diskriminazio-egoeraren batekin.

24. Zein dira lan-baldintzekin lotutako problema nagusiak (diskriminazioaz aparte)?

Honako hauek dira arazo nagusiak:

- * Aparteko orduak eta kontratuan ezarritakoak baino lanaldi luzeagoak egin beharra (% 13,6ri eta % 12,6ri eragiten die).
- * Gainerako langileek baino soldata apalagoa jasotzea (% 7).
- * Araituta dagoena edo kontratuan ezarritakoa baino soldata apalagoa jasotzea, atsedeen-eskubidea ez betetzea edo modu irregularrean lan egin beharra enpresariaren aginduz (% 4,1 eta % 6,2 artean). Horri dagokionez, baldintza irregularrean lan egin beharrak gainditu egiten du administrazio-egoera erreala. Euskadin aktiboan dauden eta lan-esperientzia duten herritarren % 12,1ek gutxienez enplegu irregular batean aritu behar izan du azken urtean, 2014ko % 18,5 baino gutxiago baina 2010eko % 9,5 baino gehiago.
- * Tratu umiliagarria edo zereginik txarrenak ematea atzerritar izateagatik (% 4,1-5,3).
- * Mailaz igotzeko aukerarik eza, atzerritar izateagatik (% 3,8).
- * Erantzukizunik hartu ezina, atzerritar izateagatik (% 3,5).
- * Lankideek baztertzea (% 3).

25. Atzerritar jatorriko zenbat etorkinek nabaritzen dute diskriminazioa lanean?

2018an aztertutako eta azken urtean lan-esperientziaren bat izandako langileen % 7,1ek jasan omen du **diskriminazio-egoeraren bat**: % 5,6k, arrazarekin edo etniarekin lotuta; % 5,3k, nazionalitatearekin lotuta, eta % 1,1ek erlijioarekin lotuta.

26. Atzerritar jatorriko etorkin-multzoz guztiak al dituzte lan-aukera berdinak?

Ez. Zenbait kolektibok nabarmenago jasaten dituzte lan-merkatura iristeko problemak eta laneko baldintza zailak. Horrela, bada:

- * Lanpostu irregularrak bakarrik eskuratzeari dagokionez, arazo hori larriagoa da, % 9,7 eta % 11,9 artean, Paraguai, Senegal eta gainerako mundutik datozenengan. Proporzioa % 15,7koa da gainerako Latinoamerikan eta % 20,5koa gainerako Afrikan (2018an kolektibo honetan bakarrik gainditu dira 2014ko eta 2010eko mailak).
- * Euskadin laneko esperientzia izan dutenen artean, azken urtean enplegu irregular gehien izan dutenak (% 29,7), Paraguitik etorritakoak dira. % 19,2 eta % 22,8 artean daude Bolivia, gainerako Latinoamerika eta gainerako Afrikatik etorriak.

* Ikasitako mailaren azpitik lan egiteak gehiago eragiten die (% 19-20 edo hortik gora) Errumaniatik eta EBren ekialdeko herrialdeetatik etorritakoei, Latinoamerikako eskualde gehienetatik (Argentina/Txile/Uruguai eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikatik izan ezik, % 15,8 eta % 17,3 artean) eta gainerako mundutik etorritakoei.

* Lan-baldintzekin lotutako arazoen gehiago eragiten diete Senegaletik eta gainerako Afrikatik etorritakoei: % 39k jasan dute laneko arazoren bat azken urtean. % 34,9 dira Andeetako Hego Amerikatik eta Paraguitik etorritakoen artean, eta % 34,2 gainerako Latinoamerikatik etorritakoen artean.

Erdibidean daude magrebtarrak (% 27,2) eta mendebaldekoak ez diren EBko herrialdeetakoak (% 26,1). Laneko arazoen eragina askoz txikiagoa da Txinatik (% 19,0) eta gainerako mundutik (% 17) etorritakoen artean. % 10,6koa da EBko mendebaldeko herrialdeetakoaren artean.

27. Diferentzia horien ondorioz, desberdin nabaritzen al dira diskriminazio-egoerak?

Bai. Diskriminazio-problemen eragina oso nabaria da Andeetako Hego Amerikatik eta Paraguitik datozenen artean (% 9,9) eta gainerako Afrikatik datozenen artean (% 12,9). Bi kasu horietan hurbil dago edo gainditu egiten da %10eko maila, aipatzen diren arraza- edo etnia-diskriminazioari dagokionez (% 8,3 eta % 12,9), baina aipatu egiten du Magrebetik eta gainerako Latinoamerikatik datozen % 4,2k eta % 5ek ere. Diskriminazio-problema orokorrak garrantzitsuak dira bi talde horiengan, eta nabaritutako eragina % 7,2 eta % 6,2 artean dago erreferentziako kolektiboaren artean.

Nazionalitatearen diskriminazioa aipatzen da arestiko lau taldeetako kideen % 4,2 eta % 7,7 artean. Erlijioarekin lotutakoak ere garrantzia du gainerako Afrikatik eta Magrebetik etorritakoen artean (% 4,1 eta % 2,9).

28. Egoera hauek guztiak laneko asegabetasuna eragiten al dute?

Ez. Adierazitako problema guztiak gorabehera, **lan-baldintzen balorazio positiboa nagusitzen da** gaur egun EAEn lanean ari diren jatorriz atzerritarren artean. Gaur egun lanean ari direnen % 83,7 pozik dago lanpostuarekin eta, hain pozik ez dauden artean daude Andeetako Hego Amerikatik eta Paraguitik etorritakoak (% 77,5), eta gainerako Afrikatik etorritakoak (% 78,6).

Bi arlotan bakarrik murrizten da poztasuna: enpresan mailaz igotzeko aukeretan (% 33,5 ez daude pozik); ordainsarian (edo lan autonomoaren sarreretan), % 33,2. Dena dela, kasu honetan ere poztasuna da nagusi (% 56,1 eta % 60,9, hurrenez hurren).

29. Atzerritar jatorriko etorkinen artean ba al dago enplegu-zerbitzu publikoen irudipen txarrik?

Ez. 16 urteko edo hortik gorako atzerritar jatorriko % 4,5ek bakarrik aipatzen du enplegu-zerbitzu publikoen arreta desegokiren bat. Proportzioa % 10etik beherakoa da, jatorriaren arabera.

30. Atzerritar jatorriko etorkinek ba al dute ekintzaileen?

Bai. Atzerritar jatorriko langileen **% 14,9 dira enplegatzaile, autonomo edo familia-laguntzaile.** 2010etik hona gero eta langile gehiago dituen kolektibo bakarra da.

Ekintzaileen pisua nabarmena da Txinatik etorritakoen artean, gehienak halakoak baitira (% 72,1). Ekintzaileek pisu handia dute EBren mendebaldeko herrialdeetatik, Argentina/Txile/Uruguai eta gainerako mundutik datozenengan, % 20,5 eta % 26,4 artean. % 15etik gora dira Magrebetik datozenen artean (% 16,1). % 11,0 eta % 13,9 artean dira Errumaniatik eta EBren ekialdeko beste herrialdeetatik, Boliviatik eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikatik datozenengan.

31. Atzerritar jatorriko etorkinen enpresa-ekimenak ba al du arriskuren bat?

Bai. Aztertutakoen artean, % 4,2k porroten bat jasan du enpresa-ekimenen batean, 2010eko % 4,4 baino gutxiago, baina 2014ko % 3 baino gehiago. Kasu honetan, % 5a gainditzen da immigrazioetik etorritako zenbait talderengan. Besteak beste, EBren mendebaldeko herrialdeak (% 6,0), Txina (% 5,7) eta latinoamerikar jatorriko hainbat kolektibo: Kolonbia/Ekuador/Peru (% 5,3), Argentina/Txile/Uruguai (% 6,5), eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika (% 9,4).



USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: egonkortasun-*continuum*a

Gorka Moreno Márquez

1. Nola neur daiteke etorkinen kolektiboaren integrazioa?

Hori da, hain zuzen ere, sari nagusirako galdera —edo supersarirakoa—, eta ez da inola ere erraza horri erantzutea. Horregatik behar ditugu kontzeptuzko tresnak, operatibizatzeko atzerritar jatorriko etorkinen kolektiboaren integrazio-prozesua, betiere integrazio sozial eta materialari dagokiona. Izan ere, integrazio identitario eta kulturala beste kontu bat da.

Esandakoaren harira, modu bat baino gehiago ditugu aukeran. Haietako bat izan daiteke integrazio-prozesua kopuru erlatibotan aztertzea; hau da, bertako biztanleriaren egoera ekonomiko eta sozialarekin alderatuta. Bistan da, aukera interesgarria eta egokia dela, baina kontuan hartu behar da, halaber, hain desberdinak diren bi kolektibo alderatzeak gaizki-ulertuak eragin ditzakeela, bai eta etorkinen kolektiboen egoera benetan dena baino okerragoa dela pentsaraztea ere. Horrenbestez, oso errotuta dauden eta giza zein gizarte-kapital eta kapital ekonomiko handia duten pertsonak etorkinen kolektiboarekin konparatzea ez da egokiena, baldin eta integrazio-prozesuak sakon aztertu nahi baditugu.

Beraz, integrazio-prozesua aztertzeke edo neurtzeko beste modu bat bertako kolektiboa alde batera uztea da, eta xehetasunez aztertzea zer-nolakoa izaten ari den etorkinen kolektiboaren gizarteratze- eta barneratze-prozesua harrerako gizartean, kasu honetan, Euskadiko gizartean. Eta aztertzeke modu horren barruan, kontzeptuzko tresna baliagarria izan daiteke *egonkortasun-continuum*a, eskura ditugun datuak balia baitaitezke prozesua aztertzeke.

2. Zer da *continuum* delako hori?

Nazioarteko migrazioen alorreko testu espezializatuetan behin eta berriz adierazi dute egonaldiaren iraupena (aldagaia) erabakigarria dela integrazio-prozesuan. Beste modu batera esanda, **zenbat eta egonaldi luzeagoak, orduan eta**

integrazio-adierazle hobeak eta alderantziz. Joera hori erreferentziatzen hartuta, eta kontuan hartuta atzerritar jatorriko pertsonentzako Espainian **dauden izapide administratibo eta legal** gehienak lotuta daudela, baita ere, egonaldiaren iraupenarekin, *egonkortasun-continuum*ak bi aldagai horiek hartzen ditu aztergai.


Horren arabera, egonaldiaren iraupena zenbat eta luzeagoa izan eta egoera administratibo eta legezkoa zenbat eta hobea izan, orduan eta egoera hobean egongo da, *a priori*, atzerritar jatorriko pertsona. Horregatik adierazten da *continuum* hori eskailera gisa, lineala eta goranzkoa, eta han jasotzen dira gizarteratze-prozesuaren barruko egoerak eta kategoriak.

3. Zer maila adierazten dira *egonkortasun-continuum* horretan?

Irudian ikus daitekeenez, integrazio-prozesuaren eta *continuum* delakoaren barruan, zenbait kategoria edo egoera nabarmentzen dira. Banan-banan azalduko ditugu egoera horiek, txarrenetik hoberenera; lehen adierazi dugunez, egonaldiaren iraupenarekin oso lotuta daude.

- **Administrazio-egoera irregularreko eta erroldatu gabeko pertsona:** egoerarik okerrera litzateke; izan ere, egoera honetan dagoen pertsonak ezin ditu baliatu erroldatuta egoteak ematen dituen eskubideak, hala nola osasunaren alorrekoak, gizarte-zerbitzuetakoak eta prestazio ekonomiko batzuk jasotzeko; eskubide horiek baliatzeko, neurri handi batean, gutxieneko denbora-epe batez egon behar da erroldatuta. Bestalde, Euskadin bizitzen zenbat denbora daramaten egiaztatzea konplexuagoa da. Pertsona hauen zaugarritasun-maila eta gizarte-bazterkeriaren maila handiak izan ohi dira. Atzerritar jatorria duten pertsonen artean, oso ehunekoa txikia da.

- **Erroldatuta dagoen eta administrazio-egoera irregularra duen pertsona:** multzo honetako gehienak etorri berriak dira eta hemen bizitzen denbora jakin bat daramatela egiaztatu behar dute –hiru urte, bizileku-baimena lortzeko errotze sozialaren bidez–. Denbora-epe horretan ezin da lan-kontratu bat lortu, eta oso egoera ekonomiko eta sozial ahula izan ohi dute.
- **Bizileku-baimena duten pertsonak:** egoera honetan, bizileku-baimena edukitzeak –lan-baimena ere edukiz gero–, kontratu bat lortzeko aukera ematen diete, bai eta aurreko multzoetakoek ez dituzten zenbait berme eta eskubide ere. Kategoria honen barruan, esan genezake badela *egonkortasuneko mini-continuuma*, bizileku-baimen iraunkorra edukitzeak asko laguntzen baitu integrazio-prozesuan.
- **Nazionalitate espainiarra duten pertsonak:** atzerritar jatorria duen pertsona batek nazionalitate espainiarra lortzen duenean, nazionalitate horrekin jaio diren gainerako pertsona guztiek dituzten eskubide berberak eskuratzen ditu –boto-eskubidea, etab.–. Horrezaz gain, oso garrantzitsua da azaltzea Schengen pasaportea lortzen duela, eta horrek berekin dakarrela, mugikortasunari dagokionez, inolako mugarik edo ondorioz gabe herrialdeetik atera eta herrialdean sartzea. Nazionalitatea lortzeko egonaldi-iraupena ere funtsezko baldintza da; nolana ere, baldintza hori ez da berbera pertsona guztientzat, jatorriaren arabera baita. Esate baterako, Latinoamerikako biztanleek –eta beste jatorri batzuetakoek– bi urteko bizileku-baimena justifikatu behar dute, nazionalitate espainiarra eskatu ahal izateko; beste jatorri batzuetako biztanleen kasuan, hala nola Magrebeko eta Asiako herrialde askotako biztanleen kasuan, egonaldi-iraupena 10 urtekoa da. Horrek, bistan da, ibilbidea *egonkortasun-continuumean* azkarragoa edo motelagoa izatea dakar berekin. Kategoria honetan egoteak ematen du egonkortasun handiena, eta integrazio-prozesuko adierazle hobe batzuek gozatzeko aukera gehiago eskaintzen ditu.



urteetan ehuneko horrek gora egin du, krisi-garaikoaren aldean. Hori txarra al da? Bada, ziur asko erantzun onena da esatea ez dela ez txarra eta ez ona... Migrazio-fluxuen ondorio da hori.

Irregularitasun-egoera, *egonkortasun-continuumean* agerian geratu denez, oso lotuta dago egonaldi-iraupenarekin, eta, bereziki, hasierakoarekin. Beraz, gaur egun, migrazio-fluxuak –etorrerak– hazi egin diren garaian, normala da irregularitasun-egoeren kopuruak gora egitea. Eta atzeraldi-garrietan, berriz, behera egitea. Eta ez egoera hobea edo kaskarragoa delako, baizik eta fluxuak moteldu egiten direlako.

Hala, atzerritarren alorreko legeak eragin du irregularitasun-epea kasik derrigorreko epea eta etorrerari lotutakoa izatea. Baina, aldi berean, bada azpimarratzeko moduko daturik: gehienek legezko egoera lortzen dute denboraren joanean, eta oso etorkin gutxiri bihurtzen zaie kroniko hasierako gizarte-egoera ahula. Egoera hori kroniko bihurtu zaienen kopurua handia balitz, izango litzateke, bai, kezkatzeko modukoa. Gaur egun, ez da horrelakorik gertatzen.

Paradoxa badirudi ere, irregularitasun-egoeran daudenen kopuruak gora egiten duenean, batez ere adierazten du Euskadiko ekonomia- eta lan-egoera ona dela, eta ez hainbeste, atzerritar jatorriko etorkinen kolektiboa egoera ahulean edo ez hain ahulean dagoela.

4. *Spin-off* bat... Zenbateraino kezkatu behar gaitu administrazio-egoera irregularrak?

Irregularitasunaren gaiak oihartzun handia du etorkinen kolektiboaren integrazio-prozesuei buruzko azterketetan, bai eta jendearen iritziazen pentsamoldean ere. Gaur egun, bizileku-baimenik gabeko pertsonen kopurua ez da handia, % 15- % 20 artekoa dela esan genezake. Azken hiru edo lau

5. *Continuum*a beti goranzkoa eta lineala al da? Eta krisi-garaietan, zer?

Egonkortasun-continuumak goranzko integrazio-prozesua adierazten du, lineala eta etenik gabea. Jakina, azterketa sinplifikatua da, eta egoera orokorrean hobeto ulertzeko eta azaltzeko balio duen tresnatzat hartu behar da; pertsona askorentzat

continuum hori ez da automatikoki gertatuko. Balorazioak balorazio, pentsa genezake *continuuma* baliozkoa dela ekonomiaren oparaldian, eta adierazgarritasun gutxiago duela atzeraldian.

Zer gertatu da 2008tik 2014ra bitarteko epean? Datuen arabera, **continuuma krisi ekonomikoko garaietan ere baliagarria da**. Nabarmena da, jakina, adierazgarritasun gutxiago duela; baina agerian geratu da baliagarria izan dela egoerari aurre egiteko. Kasu horretan, legezko administrazio-egoerak ugaritzeak eta nazionalizazioak ugaritzeak ekonomia- eta lan-egoera orekatzen lagundu dute.

Beste modu batera esanda, *egonkortasun-continuuma* moteldu egin zen epe horretan, baina tresna baliagarria izaten jarraitu zuen integrazio-prozesuak aztertze, edo, gutxienez,aldi horretako egoera ekonomikoari aurre egiteko prozesuak eta estrategiak aztertze. Halakoetan, *euste- edo erresistentzia-continuuma* dela esan genezake.

6. Zer adierazten dute datuek *continuumaz*?

Horretarako, Etorikin Atzerritarrei Buruzko Inkestako – EABI– datuen berri emango dut; izan ere, Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin egiten duen estatistika ofiziala da, eta haren bidez lortutako informazioari esker, Euskadiko gizartearen *egonkortasun-continuuma* benetan gertatzen den adierazteko aukera ematen digu.

Oro har, hauteman daiteke administrazio-egoerak hobera egin duela denboraren joanean –2010., 2014. eta 2018. urteak–. Izan ere, 2010ean atzerritar jatorriko etorkin guztien % 69,7k zuen bizileku-baimen iraunkorra eta nazionalitate espainiarra; 2014an, berriz, % 75,4k; eta 2018an, % 86,9k. Datu horiek guztiak administrazio-egoeraren eta integrazio-prozesuen egonkortasunari buruzko egoera nahiko positiboa dela adierazten dute; gainera, hori hala dela berresten duten beste datu batzuk ere badira.

Hortaz, egoera ekonomikoarekin oso lotura handia duten adierazle sozioekonomikoen arabera, egungo egoera hobea da 2014. urtekoa baino, bai eta 2010ekoa baino. Langabeziari buruzko datuak, berriz, hauek dira: 2010ean % 23,4; 2014an % 31,4; eta 2018an % 15.

Diru-sarrerarik gabeko pertsonen buruzko datuen arabera, 2010ean % 29,9 ziren, 2014an % 27, eta 2018an % 24,8. Eta azkenik, pobrezia-erantzukizun % 11,4 zen 2010ean, % 18 zen 2014an eta % 7,9, berriz, 2018an. Horrenbestez, agerian dago egonaldi-iraupeneko adierazleek eta adierazle ekonomikoek (erabat lotuta egoera ekonomikoarekin) goranzko joera dutela denboraren joanean.

7. Zer esan daiteke datozen urteei buruz? Zer joera ikusten dira?

Beti da zaila etorkizunean zer gertatuko den iragartzea. Edonola ere, pentsatu behar dugu integrazio-prozesuak eta *egonkortasun-continuumak* hemen adierazi dugun **goranzko joerari utsiko diotela**.

Hori bai, oso kontuan izan behar dugu etorkinen fluxuak ez direla inoiz eteten, eta, gainera, azken urteetan ugaritzen ari direla. Horrenbestez, ezin izango dugu esan etorkin guztiak lortuko dutela noizbait egoera egonkorra nolabait ere. Iritsiko den jende gehiena *continuumaren* beheko aldeetan kokatuko da, eta horregatik erreparatu behar zaiei bereziki pertsona horiei eta haien beharrei.

Horren harira, etorkinen kolektiboaren gizarteratze- eta integrazio-prozesuetan gertatzen diren egoera guztiak kontuan hartuko dituen esku-hartze bat edo foku anitzeko ikuspegi bat bilatu beste biderik ez dago. Eta horretarako, hiru talde edo egoera hauek adieraz ditzakegu:

- Pertsona etorri berriak: *egonkortasun-continuumaren* beheko mailetan kokatzen dira. Administrazio-egoera ezegonkorra eta egonaldi-iraupen txikia, eta ahultasun-maila, berriz, handia. Pertsona hauek harrera-politikak behar dituzte, batez ere.
- Epe ertain edo luzean errota dauden pertsonak: *continuumaren* erdiko eta goialdeko mailetan kokatzen dira. Aurreko taldeak baino administrazio-egoera egonkorragoa eta integrazio-maila handiagoa, eta egonaldi-iraupen ertain edo handia. Kasu honetan, integrazio-politikei eman behar zaie garrantzia, lan-merkatuarekin zerikusia dutenei, batez ere.
- Etorकिन seme-alabak: hasiera batean, *continuumaren* goialdeko mailetan kokatu daitezke, eta ia-ia hortik kanpoko egoera batean ere bai. Pertsona horietako gehienek administrazio-egoera egonkorra dute, bertako biztanleriak –nazionalitate espainiarra– duenaren baliokidea, eta denbora luze daramate edo zuzenean hemen jaioak dira. Talde honentzat, aniztasuna kudeatzeko politikak pentsatu beharko liriteke –horietako asko ez dira jada etorkinak–, bai eta gizarte-mailan gora egin ahal izateko politikak ere, eta haietan hezkuntzak eta eskolak berebiziko garrantzia dute.

8. Zer aurreratu dezakezu gaizki izendatzen dugun bigarren belaunaldiaz? Lehenbizi, nola izendatu behar dugu?

Etorकिन seme-alabak izendatzeko moduari dagokionez, ez dago adostuta zer termino erabili, denek dute gabeziaren bat. Bigarren belaunaldiaren kontzeptua ez erabiltzeak ez du esan nahi kolektibo horri lotutako problematika desagertu denik.

Horrenbestez, gure ustez, beste termino bat bilatu bitartean ezin dugu orain arteko izena baztertu; izan ere, garrantzi handiko egoera sozial bat definitzeko eta zehazteko balio du, immigrazioa eta integrazio-prozesuak aztertzean.

9. Eta bigarrenik, zer esan dezakezu haien integrazioaz edota gizarteratzeaz? Zer prozesu dira nabarmentzeko moduak, nahiz eta ikusezinak diruditen?

Immigrazio-fenomenoa Euskadin nahiko berria da, eta zaila da zorroztasunez adieraztea kolektibo horren gizarteratze-ibilbideak nolakoak izaten ari diren. Nolanahi ere, badugu informazio pixka bat eta zenbait susmo. Ikuspegik egindako azterlanen arabera, **gazteak integratuta daude, eta gizartearen gora egiteko dinamikak dituzte, hezkuntzaren bidez; baina nabarmentzekoa da, halaber, bertako biztanleriaren sektore batzuek ez dituztela onartzen sentitzen dutela askotan.** Akordio bat dagoela dirudi: gazteek uste dute egin beharrekoa egin dutela —euskara edo gaztelania ikasi, bertako biztanleriarekin erlacionatu eta abar—, baina harrerako gizarteratze badirudi, ordea, hori nahikoa ez dela askotan. Horrek guztiak badu eraginik integrazio-ereduan, eta ulertzen lagutzen du, halaber, zergatik ez dugun testu honetan sakonago aztertzen; nolahi ere, adierazi beharra zegoen, labur-labur bada ere.

Haurrei dagokienez, ikusi dugu interakzio-prozesuak eskolan nahiko modu normalizatuan ari direla gauzatzen; jakina, gizarte-mailekin lotutako mugak eta guzti; baina ezin daiteke beste modu batean gauzatu. Harremana berdinen artekoa izango da, jatorri berdinekoen artean, eta gizarte-maila berekoen artean ere bai.

Azken batean, gure ustez, gizarteratze-prozesuak nahiko modu positiboan ari dira gauzatzen, eta prozesu horretan izan ohi diren egiturazko mugak kontuan hartuta, baikorrak izateko moduan gaude epe ertain eta luzean ere.

Egoera askoz ere konplexuagoa eta anitzagoa da, galderak bere baitan hartzen duena baino. Emakume musulman guztiak ez daude mendean hartuta, eta musulmanak ez diren emakume guztiak ezin dute beren burua asketzat hartu. Emakumearen gorputza gauza bihurtzearen kultura oso modu bitxian egiten da ageriko mendebaldean: 38 neurria ezinbestean. Europako haremak gaztetetasunaren edertasuna sakratu egin eta ikono eta identitatearen erabakigarri bilakatu du; eta heldutasuna, berriz, ikusezin egin du, konnotazio estetiko negatiboengatik. Fisikoa oinarri duten kodeek eta etengabeko dietek narkotiko edo lasaigarri gisa jarduten dute, eta emakumeak emozionalki desegonkortzen ditu; izan ere, besteek begiratzeko erakusgai huts bihurtzen dituzte emakumeak, eta horren ondorioz, botere ekonomiko eta politikoa modu ekitatibagoan banatzea xede duten borroka eraldatzaileak geldiarazten dituzte.

USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE)

Itziar de la Peña Laustalet

1. Zer da zehazki DBEa?

DBEa edo diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazio ekonomiko bat da, hileror ordaintzen zaiena horren beharra duten pertsona eta familiei. Diru hori **pertsonen oinarrizko edo funtsezko beharrak estaltzeko** baliatu behar da –alegia, elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak ordaintzeko ohiko gastuekin lotuta daudenak–, eta orobat inklusio-prozesuaren ondoriozko gastuetarako.

Eskubide subjektibo bat da, eta horrek esan nahi du horren beharra duen pertsonak bermatua duela hori kobratzea, ez baitago aurrekontu-mugapenen mende. Gure ongizatearen zutabeetako bat da, osasunarekin, hezkuntzarekin eta gizarte-zerbitzuekin batera; eta batez ere, horri esker da EAEko pobrezia-tasa, hain zuzen ere, Europako guztien artean txikienetakoa.

Literatura batzuen arabera, horixe da pobrezia murrizteko *tresnarik* eraginkorrena, eta beste batzuek azpimarratzen dute identitatearen eta elkartasunaren eredu aitzindaria dela, Euskadin 1989an sortu zenetik. Herritar askok Oinarrizko Errenta izen teknikoaz ezagutzen denarekin nahasten dute, baina DBEa Gutxieneko Errenten familiakoa da.

2. Nork eta nola ordaintzen du?

Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzua) kudeatzen du DBEa, eta hark sartzen du hileror dirua bizikidetzaren buruaren banku-kontuan, hura baita prestazioa hartzeko eskaria egin duena. Titularrak hartzen du bere gain eta bermatzen du laguntzaren erabilera egokia, eta gainera, haren ardura da administrazioekin lotutako konpromisoak bizikidetzaren kide guztiek betetzen dituztela ziurtatzea. Ildo horretatik, Lanbidek bermatzen du DBEa dela **azken segurtasun-sarea**, hau da, DBEa eskatu baino lehen bizikidetzaren kide guztiek **baliatu dituztela beren eskubide ekonomiko guztiak**. Eskubide ekonomiko horiek hainbat esparrutatik etor daitezke, eta funtsean honako hauek dira: langabezia-

prestazioa, kotizaziopeko pentsioak (erretiroa, ezintasuna, alarguntza, zurtasuna, senideen aldekoa), kotizazio gabeko pentsioak (erretiroa, baliazintasuna), langabeziari lotutako kotizazio gabeko prestazio estatalak (Gizarteratzeko Errenta Aktiboa-RAI, PRESTATU, Langabeziagatiko Laguntza Berezia-SED...), elikadura-pentsioak edo konpentsazio-pentsioak, herentziak...

3. Zer da zehazki bizikidetzaren unitatea? Batzuetan nahasi egiten da, pertsona bat dela dirudi, baina beste batzuetan familia-nukleoa da, ezta?

Bai, horixe; izan ere, biak izan daitezke. Pertsona bat bakarrik bizi bada, edo etxebizitza beste batzuekin partekatzen badu, haiekin inongo harremanik ez duela, ez ahaidetasunik, ez kideetasunik, ez eta bikote harremanik ere, pertsona bakar horrek osatzen du bizikidetzaren unitatea, eta **kide bakarreko bizikidetzaren unitatea** dela esaten da. Aldiz, horrelako loturak dituen jendearekin batera bizi bada, bizikidetzaren unitatea harreman-mota hori duten pertsonen osatzen dute; gehienetan familia-harremanak izaten dira, eta horregatik deritza **familia-nukleoa edo familia-unitatea**: bikotea bere seme-alabekin, edo amona bilobekin, edo bi anai-arreba elkarrekin.

Gainera, bizikidetzaren unitate baten barruan beste bizikidetzaren unitate **bereizi** batzuk egon daitezke, arrazoi desberdinak tartean: pentsioduna izatea, tratu txarren biktima izatea, adin txikikoak edukitzea, etxebizitza, dibortzioak... Bereizketa hori 24 hilabeteko epe mugatueterako egiten da (pentsiodunen kasuan salbu, ezaugarri hori mugagabea baita), eta bizikidetzaren unitate **bereiziak** deritze.

Garrantzitsua da azpimarratzea bizikidetzaren unitatea osatzeko eskatzen dela ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremana duen beste pertsona hori ere etxe berean bizitzea (salbuespena da EAEtik laneko arrazoiengatik atera izana, edo etorkina izanik

ezkontidea atzerrian izatea; azken horiei epe mugatu bat ematen zaie familia berrelkartzeko).

4. Zehazten zaila da, beraz?

DBEaren kudeaketan, bizikidetzaren unitatearen osaera da gairik zailenetako bat, harremanak zehaztea zaila delako, eta modu berezian, etxe baten barruan ezkontzaren antzeko harremana zehaztea.

Gizarte-aldaketen ondorioz, gero eta gehiago gertatzen da etxe berean familia bereko bi edo hiru belaunaldi elkartzeko, eta era berean, bizikidetzaren modu txikiago, ezegonkorrago eta konplexuagoak agertu dira. Aldaketa horiek zailtasun handia eragiten dute kudeaketarako, gero eta gehiago urrutitzen direlako jatorrizko bizikidetzaren unitatearen planteamendutik, non oinarria etxekoek edo familiak osatzen zuten.

Ondorio ekonomikoetarako, kideak zehaztea oso garrantzitsua da, bizikidetzaren unitateak sei taldetan sailkatzen direlako, bi aldagairen arabera: kide kopurua (1, 2, 3 edo gehiago) eta kideetako bat pentsioduna izatea. Katalogazio horren arabera erabakitzen da zein izango den bizikidetzaren unitate horrek jasoko duen gutxienezko diru-sarrera bermatua.

Eta orain pentsa ezazu **zaintza partekatuan**, kasu horretan txikiak hainbat denbora igarotzen dutelako guraso bakoitzarekin, eta pentsa ezazu, baita ere, gaur egun adosten diren bizikidetzaren modalitate desberdinetan. Hara, bada, bizikidetzaren era horien ondorioz, hilabete berean bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideen kopurua aldatu egiten da. DBEak bermatu behar du adingabeek beren oinarrizko beharrak estaliak izateko, dela hilabete berean bizikidetzaren unitatez aldatzen badira –bi gurasoek DBEa jasotzen dutenean– dela sisteman sartzen eta ateratzen badira –gurasoetatik batek bakarrik jasotzen duenean DBEa, adibidez–. Hori guztia zehazten eta kudeatzen zaila da.

5. Alegia, etxebizitza berean bi bizikidetzaren unitate izatea, ezta?

Batzuetan jendeak parez pare jartzen ditu bizikidetzaren unitateak eta DBE prestazioa, eta kontzeptu guztiz desberdinak dira: bizikidetzaren unitatea da DBE prestazioaren onuradun izateko kontuan hartzen den pertsona-multzoa. Etxebizitza batean bizikidetzaren unitate ugari izan daitezke; esaterako, etxebizitza berean elkarren artean inongo harremanik ez duten lau pertsona biziz gero, bakoitzak bizikidetzaren unitate bat osatuko luke, hau da, lau bizikidetzaren unitate egongo lirateke etxe berean. Beste kontu bat da etxebizitza bakoitzeko bi DBEa ematen direla gehienez, alegia, ondorio praktikoetarako, lau bizikidetzaren unitate horietatik bik bakarrik har dezakete prestazioa, eta eskatu duten lehenengoei ematen zaie, baldintzak betez gero, noski.

6. Eta ez al dago salbuespenik, etxebizitza berean bi prestazio baino gehiago kobratu ahal izateko?

Bai, badira etxebizitza kolektiboak, eta horietan ez da mugatua prestazioen kopurua. Batez ere **aldi baterako harrera-zentroen** kasua izaten da hori: harrera-etxeak, tratu txarren biktimak diren emakumeentzako egoitza-zentroak, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak... gehienez, inklusiorako banakako planaren bilakaeraren eta jarraipenaren arabera izaten da pertsonak han egiten duen egonaldia.

7. Jende guztiak du kobratzeko eskubidea?

Ez horixe. DBEa jasotzeko, arautegian zehaztutako baldintzak bete behar dira, besteak beste, nahikoa diru-sarrera ez izatea –hileko diru-sarrerak eta ondarea–, Euskadin hiru urte baino gehiago ematea bizitzeko, 23 urtetik gorako izatea... Gainera, kobratza jarraitua bermatzeko, **zenbait betebeharrak bete behar dira, eta modu aktiboan parte hartu behar da hitzartutako inklusio-prozesuan**, hau da, lanean aritzeko moduan dagoen pertsonak lana bilatzeko jardura aktiboa izan behar du.

Adibidez, hauentzat da... Une batean bizi-proiektu bati ekin eta, ondoren, diru-sarrerak urritu eta beren oinarrizko beharrei erantzunik emateko modurik ez duten pertsonentzat. Alegia, esaterako, lanpostua nahi gabe galdu ondoren langabezia-prestazioa agortu bazaizu, laguntza hau kobratzeko eskubidea duzu, berriro zure gastuei zeure baliabideekin aurre egiteko moduan zauden arte. Edo emakume askok, banandu edo dibortziatu ondoren, adingabeak umeak dituzte beren kargura eta konpentsazio-pentsioa da haien diru-sarrera bakarra, eta laguntza osagarri bat behar izaten dute aurrera egiteko.

Adibidez, ez da hauentzat... EAEra kanpotik iritsi berria den pertsonak ezin du berehala jaso prestazioa, baldintzetako bat baita hiru urtez hemen bizilekua izatea (horrela eragotzi nahi da *dei-efektua* eragitea, gure inguruko lurraldeetan ez baitago gutxienezko errentarik edo errenta bermaturik, Nafarroan izan ezik); era berean, 23 urtetik gorako gazte batek ere, gurasoen etxea utzi berri duenean, ezin du prestazio hau kobratu, beste baldintzetako bat delako urtebetez bere kabuz bizitzea eta bestelako diru-sarreraren falta nabarmena izatea (horren helburua da *emantzipazio ez-naturalak* eragozteko, edo DBEaren diru-sarreraren gainean bakarrik oinarritutako *emantzipazioak*).

8. Enplegu-bilaketa aktiboa... Eta bizileku-baimenik ez dutelako lan egiterik ez dutenak?

DBEaren onuradunek, lanean aritzeko moduan egonez gero, lanean hasteko pronto egon behar dute, eta, beraz, Lanbiden izena emanda egon behar dute **enplegu-eskatzaile** gisa (salbuespenak dira

pentsiodunak, 23 urtez azpiko ikasleak edo bazterketa-egoeran egoteagatik lan-merkatu sartzu ezin diren pertsonak).

Bizileku-baimenik ez duten atzerritarrek ere eskatzaile gisa egon behar dute izena emanda Lanbiden, baina **prestatuntza- eta orientazio-zerbitzuen eskatzaile** gisa. Zerbitzu horiek pertsona horien enplegarritasuna hobetuko dute eta haien egoera administratiboa aldatzen denean lanean hastea errazagoa izango dute.

9. Eta zer ulertzen da “nahikoa diru-sarrera” esaten denean?

Hori jakiteko, bizikidetzaren unitateak hilero zer diru-sarrera dituen eta zer ondare dituen kuantifikatu behar da. Bizikidetzaren unitateek epe ertain eta luzera zer gaitasun ekonomiko duten neurtzen du, eta horrek lotura izaten du mantentze-pobreziarekin eta metatze-pobreziarekin.

Ondareari dagokionez, jabetzan izan dezakezu bai zure etxebizitza (garajea eta trastelekua barne), eta bai lanerako darabilzun higiezin (baldin eta lanean ari bazara), baina ez beste ondarerik. 2020an, pertsona bakarreko unitatearen gehieneko ondarea, pentsioduna ez bada, 35.805,44 eurokoa da, hau da, DBEaren urteko gehieneko zenbatekoa halako lau.

10. Eta nola kalkulatu dira “nahikoa diru-sarrera” horien mugak?

Katalogazioko sei taldeetako bakoitzean ezartzen da zenbatekoa den “nahikoa diru-sarrera”, bizikidetzaren unitatearen ondorio ekonomikoetarako, eta **lanbide-arteko gutxieneko soldatarekin (LGS)** lotuta dago —urteko ekitaldiari dagokion LGSarekin bat ez badator ere—.

Une honetan, 2017tik hona, DBEaren zenbatekoak **EAEko Aurrekontu Orokorren Legean** ezartzen dira, aurreko ekitaldiko zenbatekoari portzentaje bat gehituta. 2020an, DBEaren zenbatekoak % 4 igo ziren aurreko urtekoen aldean; eta 2019an, % 4,5 igo zen pentsiodunen bizikidetzaren unitateentzat eta % 3,5 gainerakoentzat.

11. Baina, orduan, egia da DBEa ukatzen dizutela baratze baten jabe bazara?

Ez, hori ez da hain zorrotza, era berezian baloratzen direlako **balio gutxiko higiezinak**. Bizilekurako erabiltzen ez duzun higiezin bat —edo gehiago— baldin baduzu jabetzan, eta katastro-balioa 10.000 €-tik beherakoa bada, ez da kontuan hartzen prestazioa ukatzeko. Baina katastro-balio hori, ordea, kontuan hartzen da ondarearen balorazioa egiteko.

Hau da, zure baratzeak 3.000 €-ko katastro-balioa badu, ez zaizu prestazioa ukatuko arrazoi horregatik, baina 3.000 € horiek ondarearen balorazioan aintzat

hartuko dira, eta guztia batuta onartutako gehieneko zenbatekotik gora badago, ukatu egingo zaizu. Beraz, pertsona batek bere kontu korrontean 15.000 € baditu eta 3.000 €-ko katastro-balioa duen baratze bat badu, DBEaren onuradun izan daiteke.

12. Eta hori betiko da? DBEtik bizi daiteke bizitza osoan?

Kobratu daiteke, betiere **premia-egoeran** bagaude eta administrazioarekin norberak hitzartutako inklusio-prozesuan modu aktiboan parte hartzen badugu.

“Premia-egoera” esaten dugunean, denbora-mugarik ez duen aldi bat adierazten dugu, bistan da, *a priori* ezinezkoa baita esatea pertsona baten *bolada txarrak* zenbat iraungo duen. DBEaren espiritua da gutxieneko diru-sarrera duinak bermatzea, beharrezkoa den bitartean.

13. Baina, funtsean, DBEa kobratzea eta gaurkoen moduko soldata bat kobratzea... antzekoa da.

Ez, hori ez da hain erraza. Hilabete bukaeran kobratzen den zenbatekoari begiratzen badiogu, antzekoa dela pentsa daiteke, baina atzean kontu gehiago daude. Pertsona bat lanean ari den bitartean egoera horri lotutako eskubide-sail bat sortzen ari da, DBEarekin lotu ezin direnak: langabezia-prestazioa, subsidioa, Gizarte Segurantzako kotizazioa (erretiroa, aldi baterako ezintasuna, baliaezintasuna, heriotza eta biziraupena) osasun-laguntza, amatasun- eta aitatasun-prestazioak, eta minbizia edo beste eritasun larriren bat duten umeen zaintzagatikoa.

14. Nola kalkulatu dira jaso beharreko zenbatekoak?

Bada gutxieneko zenbateko bat ezarria, bizikidetzaren unitate guztiek beren beharrei aurre egiteko eskuratu behar dutena —aurrez esandako nahikoa diru-sarrera horiekin koherentzian—. Ordaintzen dena da bizikidetzaren unitateak dituen diru-sarreretatik (pentsioak, laneko diru-sarrerak, konpentsazio-pentsioak...) gutxieneko diru-sarrera horretara iritsi bitarteko aldea.

15. Zenbat izan daiteke? Zenbatekoak dira gutxieneko horiek?

Esate baterako, 2020an, pertsona batek bermatua du 693,73 € arteko diru-sarrera; bikote batek, 890,81 € artekoa; eta seme-alabak dituen bikote batek, 985,41 € artekoa. Gutxieneko horiek handitu egin daitezke: pentsioduna bazara, 100 € inguru gehiago; guraso bakarreko familia bazara, 50 € inguru gehiago; eta lanean ari bazara, diru-sarreraren eta kide-kopuruaren arabera kalkulatu da zenbatekoa.

Gainera, DBEa jasotzen ari bazara eta alokairuko etxe batean bizi bazara, 250 euroekin osatu daiteke DBEa;

EPO edo **Etxebizitzarako Prestazio Osagarria** deritzo, eta DBEaren osagarri erantsi baten moduan kudeatzen da.

16. Baina, lanean ari zarela ere DBEa kobratu dezakezu?

Bai horixe. Izan ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Errentaren alderdi bereizgarrietako bat **enplegurako pizgarriak** dira; sistema aitzindaria izan zen enplegurako hobariak emateko mekanismoen inplementazioan.

Zure lan-jardunak ematen dizkizun diru-sarrerak ezarrita dagoen gutxienezkotik behera badaude –lanaldi partzialeko kontratuak, edo asteburuak–, horien osagarria izan daiteke DBEa. Horrez gain, enplegua lortzeko pizgarri gisa, eta lanean aritzea onuragarriagoa izan dadin, portzentaje batzuk deskontatzen dira laneko diru-sarreretatik. Ea, bada, ondo ulertzeko: zure laneko diru-sarrerak 200 €-koak badira, adibidez, gutzia deskontatzen da, eta ondorio praktikoetarako, ez dira kontuan hartzen bizikidetzaren diru-sarrerak kalkulatzeko. Diru-sarrerak handituz joan ahala, proportzio handiagoan kontabilizatzen dira; esaterako, 400 €-tik 75 € inguru konputatzen dira, 600 €-tik 250 inguru...

Izan ere, DBEaren espedienteen % 20k laneko diru-sarrerak dituzte. Alderdiri kezkagarriena horren gutziaren atzean dagoena da: batzuek *pobrezia berria* deitzen dioten hori indar handiz gorantz joatea. Pobreziatik ezin atera izatea, lanean arituta ere. Hori pentsaezina zen orain dela 50 urte.

17. Eta zergatik daude pentsiodunak DBEan?

DBEak gutxienezko diru-sarrerak bermatzen ditu, eta laneko diru-sarrerak osatzeko erabiltzen den bezala, pentsioetatik sortzen diren diru-sareren osagarria ere izan daiteke, berdin kotizaziopeko pentsioak izanik nahiz kotizazio gabeko pentsioak izanik. Gainera, laneko diru-sarrerarik ez duten pentsiodunentzat DBEaren gutxienezko pixka bat altuagoak dira, ezin direlako izan enplegurako pizgarrien onuradun. Kotizaziopeko pentsio batzuen gutxienezkoak DBEaren gutxienezkoak baino altuagoak dira, baina beste batzuk, adibidez alarguntza-pentsioaren gutxienezkoa, DBEaren gutxienezkoen azpitik daude.

DBE espediente guztien % 25 pentsiodunei dagozkie, eta ez da kopuru txikia.

18. Ba al da kolektiborik, abantailazko salbuespenik duenik?

Bai, DBEak arreta berezia jartzen du bizitza-proiektu berri bati heldu behar dioten kolektibo kalteberenetan, eta sisteman sartzeko errazten die. Esaterako, dibortziatu edo banandu ondoren bizilekua aldatu behar duten pertsonak, etxegabetuak, **genero-**

indarkeriaren biktimak, adingabeko seme-alabak beren kargura dituztenak... Horiek dira lehen aipatu diren bizikidetzaren unitate **bereziak**, aldi batez ezaugarri bereziak dituztenak, eta haientzat, DBEaren sistemara sartzeko baldintza batzuk leundu egiten dira.

Ondo ulertzeko, imajina dezagun genero-indarkeriaren biktima izan den emakume bat, diru-sarrerarik ez duena: gurasoen etxera itzuli da eta haiek lanean ari dira. Hara, bada, emakume hori **unitate berezitat** hartzen da, eta, bi urtez, haren gurasoek osatzen duten bizikidetzaren unitate berezitan da (gogoratu bizikidetzaren unitateak ahaidetasun-harremanetan oinarritzen direla, eta, baldintza normaletan, guztiek bizikidetzaren unitate bakarra osatuko luketela). Dударik gabe, inguruan familia edukitzea da egokiena indarkeriaren biktima batentzat, baina senideak etxean hartzen dituzten pertsonen zama ekonomikoa arindu egin behar da, kasu honetan haren gurasoena, aldi batez bada ere. Edo pentsa ezazu alderantzizko kasua: zure gurasoak DBEa kobratzen ari dira, eta zu, dibortziatu berria, etxera itzuli zara, soldata on batekin. Bi bizikidetzaren unitate berezitan dira, gurasoek DBEa kobratzen jarraitu ahal izateko –izan ere, bizilekuaren arazoa duzu, besterik ez, eta haiek aldi batez hartzen zaituzte beren etxean–.

19. Baina DBEan gehienak etorkinak dira, ezta?

EAEn 2,2 milioi pertsona daude, gutxi gorabehera, eta horietatik 90.000 mila baino gehiago dira DBEaren onuradun, alegia, biztanleriaren % 4tik gora, eta horietatik zati bat etorkinak dira. Askotan konparatzen da DBEan dauden etorkinen proportzioa biztanleria osoan duten portzentajearekin, baina konparazio okerra da; Euskadin kalteberatasun-egoeran dagoen biztanleriarekiko duten portzentajearekin konparatu behar da, eta talde horretan gehiago nabarmena dira etorkinak.

Hala ere, DBEa jasotzen duten gehienak bertako jatorriko pertsonak dira, eta etorkinak asko direla egia bada ere, gehiago dira **guraso bakarrez eta adingabeko umeez osatutako familiak**; izan ere, azken azterlanen arabera, era horretako familia gero eta gehiago dago pobrezia-taldeetan eta pobrezia-arriskuko taldeetan.

“Gehiengo” esanda erdiak baino gehiago direla ulertzen badugu, esan daiteke gehiengo **emakumeak** direla, zoritxarrez pobrezia emakumeak jotzen baititu gehien, Euskadin eta mundu osoan.

20. Baina etorkinak kronifikatu egiten dira DBEan...

Bai, **kalteberatasun-egoeran** dauden pertsonak kronifikatzen direlako. Gaur egun EAEn % 10etik beherako langabezia-tasa dugu, eta 2018ko iraupen luzeko langabezia-tasa % 6koa zen; horrek erakusten

digu zenbat pertsona dabilzan enplegu-bilaketa aktiboan 12 hilabetez baino gehiagoz. Pertsona horiek langabeziaren prestazioa jasotzeko aukerarik gabe geratzen diren unean, DBEa eskuratzen saiatu behar dute, aurrera atera ahal izateko gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko. Profil horretan ugari dira 55 urtetik gorako pertsonak, emakumeak ere asko, eta, bistan denez, etorkinak ere bai.

Administrazioek kalteberatasun handiko kolektiboan enplegua sustatzeko berariazko programak eskaintzen dituzte, eta programa horietan sartzen dira DBEa jasotzen duten pertsonak eta iraupen luzeko langabeak. Enpleguaren sustapenean lan egin behar da, batez ere kalitateko enplegua sustatuz, baina gaur egun adituen artean eztabaida bizia dago enplegu-mota horren bideragarritasunari buruz, DBEaren beraren existentziatik harago ere.

21. Zergatik dago hainbeste emakume DBEan?

Arestian esan dugunez, DBEa jasotzen duten kolektiboak, batez ere, pentsiodunak dira, diru-sarrera gutxiko langileak, adingabeko umeak dituzten familiak —batez ere guraso bakarrekoak—, indarkeriaren biktimak, desgaitasuna duten pertsonaren bat beren kargura duten familiak, dibortziatu edo banandu ondoren etxetik atera behar izan duten pertsonak... Hau da, azken kasu hori alde batera utzita, gehienbat emakumeek osatzen dituzten kolektiboak.

Batetik, emakume pentsiodunak daude, kotizazio gabeko pentsioak eta alarguntza-pentsioak jasotzen dituztenak —belaunaldi horretako emakumeak ez baitziren lanean aritzen etxetik kanpo—; bestetik, badira enplegu prekarioak dituzten emakumeak —aldi baterakoak, partzialak, aldizkakoak eta soldata urrikoak, emakume horien lan-jarduna familiaren beharren arabera izaten delako, batez ere pobrezia-egoeretan—; badira beren kargura umeak dituzten emakume bakarrak ere —DBEan dauden guraso bakarreko familien % 95 emakume baten kargura daude, eta guztien % 16 dira—; eta badira indarkeriaren biktimak... Alegia, ez dela gauza berria emakume izatearen aldagaiak berebiziko pisua izatea kalteberatasunean.

22. Dei-efektua eragiten al du DBEak?

Ezin da erabat ukatu eraginen bat sortzen duenik, baina migrazioaren arloko adituen esanetan, zentzugabekeria da efektu hori eragiten dela ziurtasunez baieztatzea, baldin eta aldi berean egiaztatzen ari bagara Euskadiko immigrazioaren portzentajea Espainiakoa eta gure inguruko lurraldeetako bano txikiagoa izan dela beti. Bi datu horiek ez datoz bat. Oso litekeena da etorkinak beste migrazio-asmo batekin etortzea, eta haien zatibabes sozialak ez izatea lehen mailako irizpidea. Beste gauza bat da, bizileku-herritartasunarekin lotuta, behin hemen kokatu eta lanean hasi ondoren, etorkinek

hemengo bertako jendeak dituen eskubide berak izatea. Migrazio-gaietako lehengo aditu horiek berek diotenaren arabera, dei-efektuak baino eragin handiagoa du gizarte hartzailearen **behar-efektuak**; izan ere, ikusi besterik ez dago zer sektoretan dauden enplegatuta etorkinak: etxeko nahiz zaintzako zerbitzuetan eta zerbitzuen sektorean, hain zuzen ere.

23. Zer da “lehenik bertakoak” delako lelo hori?

Hara, bada, oso uste sinplea da, gizarte guztietan aise onartzen dena eta, beraz, indar handiko arrazoibidea; horren arabera, zerbitzuek eta prestazioek “lehenik bertakoentzat” izan behar dute. Ideia horrekin lortu dute arrakasta Brexit-zaleek, Trumpek eta beste buruzagi politiko batzuek. Atzerritar jatorriko pertsonak DBEa jasotzeko eskubiderik ez dutela defendatzen duten pertsona askok sustatzen dute hori. Hala ere, ez dirudi zuzena denik Euskadin bizi eta lanean ari diren pertsonak ez izatea gainerako herritarren eskubide berak. Immigrazioaren euskal ereduari, izatez, bizileku-herritartasuna hartzen da erreferentziatza, eta, beraz, laguntzak eta zerbitzuak jasotzeko eta inbertsio sozialari dagokionez, behinik behin, guztiok berdinak gara. Oso bide zentzuzkoa da.

24. Inklusiorako prozesua, inklusio aktiborako hitzarmena... zer dira?

DBEa Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sisteman integratzen den prestazio ekonomiko bat da. Sistema horrek bi eskubide ezartzen ditu, prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea eta inklusiorako eskubidea, eta hor gizarteratzea eta laneratzea lortzeko zenbait laguntza eta tresna bideratzen dira, gizarte-babesaren hainbat esparrutatik (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, enplegua eta etxebizitza).

DBEa hartzen duten pertsonentzat, bigarren eskubideak, hau da, gizarteratzeko eta laneratzeko eskubideak, betebeharra ere badakar, konpromiso bat eskatzen baita, **enplegua modu aktiboan bilatzeko konpromisoa, lanpostu egoki bat onartzekoa, eta informazioko, orientazioko nahiz prestakuntzako ekintzetan parte hartzekoa**, lanpostu bat lortzeko aukerak zabaltzeko.

25. Hori prestazioa merezi izateko baldintza da, eta bete ezean eten daiteke, ezta?

Ez, xehetasun garrantzitsu bat hartu behar da kontuan prestazio-eteteetan. DBEa eteteke arrazoi nagusiak bi dira: **baldintzak aldi batez galtzea eta betebeharrak ez betetzea**. Lehenengo kasuan, baldintzak galtzen dira, gehienetan, hilabeteko diru-sarrerak gaintzen direlako, normalean DBEaren hartzailea lan batean hasi delako; horrek esan nahi izaten du behar ekonomikorik ez dagoela, aldi batez behinik behin. Bigarren kasua —hau da, betebeharrak ez betetzea—

kobratu beharreko zenbatekoaren kalkuluan eragina izan dezakeen aldaketaren bat ez jakinarazteagatik gertatu ohi da, edo laneko orientatzailearekin duzun hitzordura ez agertzeagatik, harekin hitzartu duzulako gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonala... Alegia, askotan, prestazioa eteteak adierazten du beharra amaitu dela, baina beste batzuetan, etetearen arrazoa izaten da hartzaileak ez dituela hartutako konpromisoak bete; izan ere, konpromiso horiek – pertsonarengan oinarrituak eta pertsona bakoitzaren gaitasunen arabera eskakizun-mailakoak– bete egin behar dira, DBEa prestazio baldintzatua baita. Eskakizun eta betebeharren etengabeko balorazio horren ondorioz, prestazioari buruzko ikuspegian “merzei izateari” erreparatzen zaio, eta horrek lausotu egiten du eskubideen logikaren ikuspegi erreala.

26. Ez al da izaten DBEaren inguruan ikuspegi punitibo bat ere?

Bai horixe. Inklusioa lortu beharra derrigorrezkoa den heinean, pertsona batek enplegu erregularrik aurkitu ezean, gizartearen aldeko derrigorrezko lan informal batzuk egin beharko lituzkeela pentsatzen du hainbatek. Bote lasterrean agudo zabaltzen den ideia horrek beste ondorio bat ere izaten du, horren defendatzaileak ohartzan ez badira ere: beste **enplegu erregularren bat** suntsitu dezake. Bukatzen ez den soka da. Beste hainbat berezitasun ere kontuan izan beharko genituzke; izan ere, ez al da lan duina ama bakarreko familia batean DBEa baliatzea umeak eskolatzeko, eta era horretan belaunaldi-arteak arrakala zabaltzea eta pobrezia-ereduak errepikatzea galarazteko? Beti izaten da DBEa edo gizarte-laguntzak hartzen dituen pertsonari “zigorra” ezartzeko gogo antzeko bat, baina jarrera hori zalantzan jartzen eta baztertzen hasi beharko genuke.

27. Eta ez litzateke errazagoa izango diru finko bat ematea pertsona guztiei? Errenta Unibertsala...

Ez da baztertzea aukera hori aurrera begira, baina hori beste kontu bat da, eta beste norbaitek iritzia eman dezan uzten dut. Kontuan hartu beharko da enpleguak zer bilakaera duen, eta pertsonen gizarteratzea enpleguan oinarrituko den edo beste aukera batzuk zabalduko diren. Orain ezin jakin.

Zalantzarik ez da, ordea, zaila dela lan ahul –eta gero eta prekarioago– baten gainean gizarte sendo bat eraikitzea eta finkatzea. Baina hori hurrengo urteetan ikusiko dugun prozesua da. Horregatik, ez da komeni alde aurretik ezer baztertzea. Are gehiago: plano teoriko-politikoan oso eztabaida sakona egiten ari bada ere gutxieneko errenten (DBEa, kasu) eta errenta unibertsalaren artean, biak izan daitezke *gizarte-babesaren continuum* baten osagaiak, gizartearen aldetik onarpen zabala eskatzen dutenak. Gaur egun DBEa kostata onartzen bada, ez dut uste Errenta Unibertsalaren onarpena automatikoa izango

litzatekeenik. Honetan guztian, enpleguaren bilakaeraren etorkizunari buruzko analisi zientifikoa sakona behar da, eta gizarte-adostasun zabala, inoiz ezarri eta mantenduko bada.

28. Zergatik lotzen da DBEa iruzurrarekin?

Komunikabideetan eta kaleko jendearen ahotan daudenak bi gai oso diferente dira: bidegabeko kobrantzak eta iruzurrezko jokabideak.

Bidegabeko kobrantzak prestazioaren kudeaketagatik sortzen dira, halaberrez. Prestazioa hilabete bukaeran ordaintzen da, jendeak hilabete horretan izan dituen diru-sarrerak zehazki jakinarazteko aukera izan aurretik (15 egun daude jakinarazteko). Hori dela eta, hilabete batean lan egin baduzu, eta hurrengo hilabetean jakinarazten baduzu, Lanbidek ez du kontuan hartu eta hilabete horretan behar baino gehiago ordaintzen dizu. Gehiegizko ordainketa hori itzuli egin behar dute hartzaileek, eta horri esaten zaio **bidegabeko kobrantza**, iruzurrarekin zerikusirik ez duena. Kolektibo askok aldarrikatzen dute izendapena aldatzea eta **bidegabeko ordainketa** deitzea, argi uzteko DBEaren hartzaileak subjektu pasiboak direla; baina izena edozein dutela ere, administrazioari itzuli beharreko dirua dela ulertu behar da, inongo errudunik bilatu beharrik gabe.

Iruzur egiten da inork DBEa jasotzeko baldintzak betetzearen itxurak egin eta datuak ezkutatzen dituenean, datu horiek prestazioa kobratzea galaraziko lioketelako. Oso kasu deigarriak ateratzen dira prentsan, baina ez da oso gauza zabaldua, ez eta normala ere. Hitz egitean orokortzea ohikoa izaten da.

29. Eta herriko tabernan lan egiten duen auzokide horren kasua, DBEa kobratzen duena, beltzean lan egiten duelako, hori ez al da iruzur egitea?

Bai, noski. Ezkutuko ekonomia eta laneko iruzurra da. Batez ere kotizazioen sistemari egiten zaio iruzurra, diru-sarrerarik airtortzen ez duelako eta, beraz, ez duelako ordaintzen dagokion zergarik pentsioen sistemarako; eta sistema horren oinarriak, hain zuzen ere, kontribuzioen proportzionaltasuna eta unibertsaltasuna dira. Bistan denez, kasu horiek ez dira DBEa kudeatzen dutenen eskumena, baina Lanbide horren jakinaren gainean jartzen denean, eta diru-sarrerak horiek jakinarazi ez direla egiaztatzen denean, prestazioa bertan behera geratzen da, eta kobratutako zenbateko guztiak itzuli behar izaten dira.

30. Zergatik da hain zaila talde politikoak ados jartzea?

Beharizan hori neurtzea eta “horren beharra” duten pertsonak identifikatzea prozesu “konplexua” da: bai definitzeko bai kudeatzeko. Sistema aldi berean eta modu orekatuan babeslea eta bideragarria izatea lortzeko ahalegin horretan etengabeko tirabira dago,

hainbat ikuspegitatik ebaluatu behar direlako. Gainera, aspaldi errotu eta oso zabaldua dagoen ideia baten arabera, integrazeko erarik onena enplegu on bat lortzea da. Egia da! Garai batean enplegua izan da integrazioarako biderik onena, eta espero dezagun hala izaten jarraitzea. Baina kontuan hartu beharra dago DBEa eta beste gizarte-politika batzuk gizarte-inbertsioa ere badirela.

31. DBEa hain garrantzitsua bada, zergatik erabiltzen da trukerako txanpon gisa negoziazio politikoetan?

DBEa euskal gizartearen balio handia da, eta inork ez du hori zalantzan jartzen. Talde politiko guztiek sistemaren bikaintasuna bilatzen dute, baina, bistan da, bakoitzak bere alderdiaren printzipioetatik. Batzuen kezka nagusia gastua mugatzea izaten da, beste batzuen pertsonak babestea, eta zaildu egiten da zehaztea zer kolektibok hartuko dituen baliabide horiek: “etxekoek”, etorkinek, irregularrak... eta gauza bera, bermatu beharreko gutxieneko kopurua zehazterakoan. Nik uste dut eztabaida horiek beharrezkoak direla lehen aipatu dugun oreka hori lortzeko, baldin eta ahazten ez badugu diru-sarrerak bermatzeko sistema gizarte-laguntzaren arloko gaia dela, babesaren arlokoa, eta pertsonak direla lehentasuna, bizileku-herritartasun kontzeptua egiazkoa izatea nahi bada.

32. Eta egiaz eraginkorra al da?

Sistemaren eraginkortasuna aztertu duten hainbat azterlanen arabera, **DBEa ezinbestekoa da Euskadin pobrezia aurrea hartzeko eta muga jartzeko**, bai eta gizarte-kohesioaren eta ongizatearen indize orokorrak hobetzeko ere. Izan ere, azterlan horietan azaldu dute sistema horri esker pobrezia % 35 eta % 40 artean murriztu dela, aztertutako zenbait

urtetan. Bestalde, azterlan horiek agerian jarri dituzte DBEaren mugetako batzuk ere; besteak beste: prestazioa jasotzen duten pertsona guztiak pobreziatik ateratzeko zailtasuna –eskuratutako diru-sarreretatik pobrezia atalera bitarteko aldea nabarmen murrizten badu ere–, eta zenbait pertsonak prestazioa eskuratzetik ez izatea, premia-egoeran egonda ere.

33. Eta ez dago hutsune horiek konpontzeko asmorik? Hori jorratuko al da DBEaren erreforma berrian?

Bai, besteak beste, horietan dira DBEaren erreforma berriarekin konpondu nahi diren gaietako batzuk. Pentsa ezazu legearen azken aldaketa 2011koa dela, eta batez ere une hartako krisi gogorari heldu zitzaioa. Ordurako gauza jakina zen askotariko “familia” eredu berriak daudela –denak zehaztea zaila– eta, hala ere, harremanetan oinarritutako familia-eredu tradizionala erabiltzen jarraitzea onetsi zen.

Beraz, bizikidetzaren eredu berriek nolabaiteko parekotasun eza eragiten dute antzekoak diren kasuen tratamendu ekonomikoari dagokionez, bizikidetzaren unitatearen osara zehazteko aplikatzen diren irizpideen arabera. Adibidez, etxebizitza batean pertsona bakarreko bi unitate baziren, biak ere diru-sarrerarik gabekoak, guztira 1.387,46 € jasotzen zituzten, baina adingabeko bi ume zituen bikote batek 985,41 € bakarrik jasotzen zituen. Disfuntzio horiek nolabait aldarazi egin dezakete bizikidetzaren taldeak osatzeko dinamika naturala, bizikidetzaren unitate mota desberdinen arteko konparaziozko bidegabekeria eragin dezakete, eta kalte handia egiten diote DBEaren gizarte-onarpenari.

Familia-ereduak aldatu baldin badira, logikoa da DBEa gizartearen errealitate berri horren arabera egokitu behar izatea, eta pobrezia forma berriak babestea, batez ere **umeen pobrezia**.

Espero dezagun DBEa Euskadiko unean uneko gizarte-aldaketan arabera egokitzen asmatzea.

USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: arraza, etnizitatea eta beste zenbait kontzeptu

Andrea Ruiz Balzola

1. Baina, existitzen al da arraza? Eta zer da zehazki?

Arraza inolako zehaztasunik gabeko kontzeptua da, eta hala adierazi du komunitate zientifikoak. Oro har, **“arrazan” oinarritzen diren doktrinak desagertu egin dira biologiarene eta genetikaren alorretatik**: zientzia arruntak ez du giza aniztasuna arraza kontzeptuan oinarrituta azaltzen.

Neurri berean da “zientifikoa” gizakiak arrazatan multzokatzea eta pekatsutan/ez-pekatsutan edo ilehoritan/beltzaranean multzokatzea. Hiru kasu horietan, testuinguru historiko, ekonomiko eta kulturean oinarrituta erabakitzen da zer den pekatsua, kaukasoarra edo ilehoria izatea. Ez dago berezkoa edo naturala den ezer esanahi horretan.

2. Maila berean al daude pekatsua edo beltzarana izatea eta arraza?

Bistakoa denez, gure gizartearen, ez da gauza bera pekatsua edo ilehoria izatea eta fenotipo iluna izatea. Mendebaldean hainbat mendez iraun duen ideologia arrazistak azalaren koloreari egozten dion esanahia sakonki uztartu zaigu desberdintasunak ikusteko eta eraikitzeke moduan. Ezinbestean, desberdintasun hori biologizatu egiten dugu, eta, ez dezagun inoiz ahaztu, hauxe baita garrantzitsuen, berdintasun eza eta esplotazio-ordena legitimatzen ditu horrek.

3. Ez al gara minimizatzen ari aurpegiara edo ezaugarri etnikoen potentzial politikoa?

Ez. Ezaugarri fisikoek, hala nola azalaren koloreak, berebiziko garrantzia dute gure gizarteetan, eta ardatz izan dira hainbat eta hainbat pertsonaren biografietan. Halaber, beltz kultura, esaterako, mobilizazio politikorako tresna politiko sendo bihurtu daiteke. Baina kasu horietan guztietan, eraikuntzei buruz ari gara, ez oinarri buruz. Ildo horri jarraitzen dio **“gutxiengo arrazializatuak”** kontzeptuak; adierazten du “arraza” kontzeptua gizarte hegemoniko eta “zurien”

eraikuntza bat dela, eta bitzta sozialari buruzko beren arraza-ikuspegia ezartzen dutela gizarte horiek.

Ezaugarri etnikoek ez dute zerikusirik arraza kontzeptua eraikitzeke ardatz gisa hartu ziren elementuekin. Beste kontu bat da, askotan, etnia kontzeptua arraza kontzeptua ordezteke erabiltzen dela hainbat diskurtsotan.

4. Orduan, zer da etnizitatea?

Etnizitatea identifikazioen dinamikarekin lotutako prozesu bat da, bai eta horrek dituen ondorio egituratzaileekin ere, soziopolitikoarekin eta sozioekonomikoarekin alegia. Eragile sozialek identifikazio etnikoekin, hau da, jatorriaren arabera argudioetan oinarritutakoekin, sortzen duten dinamikarekin du lotura.

5. Arraza kontzeptua desagerraraziz gero, arrazismoa desagertu egingo al da?

Tamalez, ez. Zergatik? Arrazismoa desberdintasunak biologizatzen dituen mendebaldeko ideologia modernoa delako, eta arraza kontzeptua eraikitzen duelako. Hau da, arrazismoa etorri zen lehenbizi, eta gero, arraza; ez alderantziz. Arrazismoa existitzen delako existitzen dira arrazak.

Berdintasun-eza eta esplotazioa legitimatzen dituen ideologia bat da arrazismoa. Berdintasun eza –hau da, gizakien arteko hierarkia– legitimatzeko, gizakien arteko desberdintasunak biologian eta naturan kokatzen zituen ustezko kontzeptu zientifiko bat eraiki zuen ideologia horrek. Hori horrela, kategoria arrazisten hierarkia giza izaeran berezko diren eta aldatu ezin diren baldintza gisa aurkezten zen.

6. Baina hori aldatu da, ez? Jendeak ez du uste zuria edo horia izateak jokabide edo izaera jakin batzuk dakartzanik...

Agian ez, baina arrazismoa aldatuz joan da, eta garai bakoitzera egokituz; horrela, gaur egungo arrazismoari *arrazismo kultural* edo *arrazismo dotore* esaten diote zenbait egilek. Hau da, arraza hitzaren ordez kultura (edo etnia) erabiltzen dugu, eta pertsona baten (aurrez kultura jakin batean sailkatua) edo gizatalde baten jokabidea haren kulturaren arabera azaltzen dugu. **Fundamentalismo kulturala** egitea da hori.

7. Bi kontu, baina bata bestearen atzetik. Zer da arrazismo dotorea? Klase-arrazismo bat, edo arrazismo kulturala besterik gabe, ordezkatzeargudio gisa?

Ziurrenik bi gauza horiek aldi berean. Ez dezagun ahaztu arrazismoa klase kontzeptuaren bidez adierazten dela askotan, eta alderantziz.

8. Bigarren kontua: *fundamentalismo* zer?

Fundamentalismo kulturala. Erredukzionismo edo esentzialismo modu bat da: kulturak beste guztiaren gainetik agintzen duela eta giza jokabidea baldintzatzen duela sinestea da.

Ez da bidezkoa arrazaren ordez kultura eta etnia kontzeptuak erabiltzea —oso kontzeptu abstraktuak eta zehaztugabeak, biak ere—, eta gauza bera egitea azken finean: gizatalde jakin batzuk esentzializatzea eta hierarkiak eta desberdintasunak ezartzea.

9. Baina desberdintasunak egon badaude...

Bai, eta beti egongo dira. Baina aldatu egiten dira denborak aurrera egin ahala, eraikuntza sozialak direlako; badirudi hori ez dugula beti garbi ikusten.

Irakasle batek esaten badu etnia desberdinetako ikasleak dituela... nola daki hala dela? Zerri erreparatu dio? Txileko edo Argentinako pertsonak europarragoak direla diogunean, zer esan nahi dugu? Ezagutzen al dugu herrialde horietako barneko aniztasun kultural izugarria? Ezetz esango nuke. Bi kasu horietan, azalaren koloreari erreparatu diogu. Etnikoak dira beste kolore batekoak direlako. Europarragoak dira zuriagoak direlako (batez ere Andeetako berezko herritarrekin alderatuta). Orduan, zeren arabera finkatzen dugu desberdintasuna? Azalaren kolorearen arabera, berriz ere?

10. Baina populazioen aniztasuna muturreraino eramanez gero, norbanakora murriztu arte, hitz egin al dezakegu nolabaiteko multzokatze sozialei buruz?

Kontua ez da gizatalde baten barne-aniztasuna deskonposatzea edo muturrera eramatea norbanakora murriztu arte. Kontua da gizarteak argi eta garbi kultura jakin bati dagozkion unitate gisa

identifikatzeko joera deseraiki behar dugula, eta oso uztartuta dago joera hori. Noski, badaude mendetan zehar irauten duten ohitura kultural bereziak, baina kultura horiek nahasi egin izan dira beti. Iraupen luzeko konstanteak eta zenbait jatorritako elementuen loturak markatzen dituzte kulturak.

Baina oinarri zehatzak eta aldaezinak behintzat ez dira inola ere, baina hori baieztatzen duten ideiak egoten dira, hain zuzen ere, gaur egungo eskuin muturreko mugimendu nazionalista askoren atzean.

11. Ba al dago lotzen gaituen ezer, giza espeziearen berezko batasunaz harago?

Bai: era askotako bizimoduak sortzeko dugun gaitasun unibertuala. Eta horrek esan nahi du lehentasuna duela *anthropos elementuak* (gizakiaren batasuna) *ethos elementuaren* (gizartearen eta kulturaren ekoizpen zehatza) gainetik. Izan ere, espeziearen batasuna ardatz hartuta bakarrik gozatu daiteke haren aniztasunaren paisaiaz.

12. Desberdintasunak justifikatzeko desberdintasunak biologizatze hori gertatzen al da beste kasu batzuetan ere?

Bai, noski. Emakumeekin azpikoko bera erabiltzen da. Denbora luzez —bai eta gaur egun ere, zenbaitetan—, emakumeen desberdintasun-egoerak justifikatzeko, gure ezintasunak eta trebetasunak naturaren edo biologiaren esparruan kokatzen zituzten argudioak erabili izan dira: izaki emozionalagoak garela, ez hain arrazionalak, zaintzarako joera dugula, eta “amatasun-sena” eta “erloju biologikoak” ditugula.

13. Anti-arrazista batzuk ere badute esentzializazioarako/biologizazioarako joera, ez al da hala?

Bai, hala da. Esate baterako, sare sozialetan zabaldutako bideo batzuetan, DNA testak egiten zaizkie pertsona batzuei, eta beren genetikan dituzten uesteko jatorri batzuen portzentajeak erakusten dituzte emaitzek. Jatorri horiek zer dira, nazionalak? Kulturalak? Etnikoak? Protagonistak liluratuta eta harrিতта gelditzen dira “anitzak” direla ikusita, genetikak “zientifikoki” baieztatu dien eran.

Oso deigarria da arrazismoaren aurkako mugimendu sozial eta erakunde batzuek horrelako bideoak erabiltzea. Izan ere, eutsi egiten diote argudio arrazista nagusiari, eta indartu egiten dutela ere esan genezake; hau da, desberdintasunek oinarri biologikoa edo genetikoa dutela dioen ideari.

Esaten badugu inuita edo afrikarra zarela %8an, zer esan nahi du? Ezer ere ez. Edo odolaren bidez (genetikaren bidez, kasu honetan), alderdi kulturalak transmititzen direla pentsatzera itzuliko gara berriz?

14. Zer egin dezakegu zuk diozun zentzuzko teoria horrekin, ezaugarri etniko jakin batzuk izateagatik baztertuak direla sentitzen duten pertsonen talde politikoen aurrean?

Nik uste dut bi plano bereizi behar direla: azterketa sozialarena, eta, hain zuzen, politikarena. Lehenengoaren ikuspegitik, garbi dago etnizitateak ez duela talde bat ezaugarritzen, harreman batzuk baizik. Baina azterketaren planoan hori baieztatzeak ez du esan nahi inori nortasun etnikoa tresna politiko gisa erabiltzeko aukera kentzen zaionik, edo identitatean oinarritutako deialdi politikoak egiteko legitimitatea kentzen zaionik. Zalantzarik gabe, identifikazioak garrantzitsuak dira, eta ez dira seta hutsa, ez eta ekonomia-kontua bakarrik.


Tentsio morala sortzen da hemen: nortasunaren kosifikazioak kritikatzearen eta identifikazio-prozesuan ekitatea moralki aitortzearen arteko tentsioa, hain zuzen ere.

Interes jakin batzuen inguruan edo, gutxienez, subjektu politikoaren arteko desberdintasunari buruzko kontzientzia diskurtsiboren baten baitan, antolatutako ekintza politiko gisa bakarrik hartzen du kultura aniztasunak gogoetazaletasun etnikoaren forma. Eta etnizitatea etnopolitiko bada, gatazka-egoera batean izan behar du.

15. Bukatzeko, zer da nazionalismo metodologiko delako hori?

Fenomeno sozialak eta kulturalak aztertzeko erabili izan den aparatua kontzeptual klasikoak dakartzen mugei erreferentzia egiten dien kontzeptu bat da. Muga horiek garbi ikusten dira gaur egun onartzen den ideia honetan: nazioa-estatua-gizartea hirukoa mundu modernoaren forma politiko eta sozial *naturala* dela. Horrek gizarte-zientzien imajinarioa lurraldetzea dakar, eta elkartasuna nazioaren mugei barruko populaziora mugatzea.

Paradigma horri jarraiki, honako hiruko hau sinesten dugu: **gizartea=kultura=lurraldea**. Baina horrek egia izateari utzi dio —inoiz egia izan bazen—. Gizarte batean zenbait kultura egon daitezke bizikidetzan, eta kultura batzuk mugaz haraindikoak dira.



USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: estatuak, gutxiengo nazionalak eta etorkinen gizarteak

Xabier Etxeberria Mauleon

1. Immigrazioa, beste arazo baten nahaspila handitzen duen arazoa?

Euskadin, Estatuko beste lurralde batzuetan bezala, identitate nazionalen aniztasuna dago "autoktonoen" artean: euskalduna eta espainiarra. Horrela hartuta, subiranotasun politikoaren idealarekin lotzen direnez, gatazka sortzen da euren artean: azken batean, subiranotasuna bakarria izan daiteke. Gatazka delikatua da, ez dirudielako bideragarria biak irabazten aterako diren soluzio bat aurkitzea: euskal naziotasunarekin identifikatutako biztanleria ugaltzen bada, euskal subiranotasunak babes handiagoa du eta, aldi berean, euskalduntasunarekin, baina Espainia barruan, identifikatutako biztanleak gutxitu egiten dira eta, ondorioz, baita espainiar subiranotasunarekiko babesba ere; eta alderantziz. Beraz, ikuspuntu horretatik, denek partekatutako identitate "etniko" gisa, barne borroka bati lotuta dago euskalduna: sektore batentzat ezaugarri "etno-nazionala" da, eta beste batentzat, ez. Zailtasuna areagotu egiten da, ez da nahitaez larritzen, herritarrek intentsitate eta eskakizun desberdinekin bizi dutelako, baita gorabeherekin ere, euskalduntasunaren eta espainiartasunaren arteko tentsio hori. Nolanahi ere, argi geratu behar du gatazka bide demokratikoetatik bakarrik kudeatu behar dela, baita oso zaila bada ere, aukera eta proposamen berritzaileetara irekita egonda.

2. Beraz, etorkinak instalatzearekin...?

Errealitate gatazkatsu hori konpontzen zaila den "arazotzat" hartzen bada, Euskadin beste estatu nazional batzuetako etorkin egoiliarren ehuneko handi bat egotea, lehen begiratuan, aurrekoetan korapilatuta txertatzen den hari berri gisa aurkezten da, nahaspila areagotuz. Honako hauen moduko galderak sortzen dira: zer neurritan ahuldu ditzakete identitate nazionalak haiek bizi dituzten izaera politikoko identitateek? Etorkinek – eta haien seme-alabek –, aukera propioengatik edo kanpoko eragin

eta baldintzatzaileengatik, bata ahuldu eta bestea sendotu dezakete? Edo, beste norabide batean, aberastasunak ekar diezazkiekete bi identitateei, eta haien artean elkarbizitza-giro hobea sortzen lagundu? Hasteko, aurreiritzirik ez izatea inposatzen da, hau da, errealitatearen ezagutza zehatzaren aurreko iritziak ez izatea, izan ere, iritzi horiekin batera, askotan, balorazioak egiten dira, beti bat ez datozenak guztion giza eskubideekiko errespetuak eskatzen digunarekin eta ematen digunarekin (bi gauzak). Aurreiritzi horiek, erdi egia edo gezur bidez finkatuta, bide ematen diete zurumurruei.

Hemen jorratuko ditugu horietako batzuk. Beti hartzen dugu, abiapuntu gisa, bi aukera nazionalisten zilegitasun osoa, bai espainiarra, bai euskalduna. Analiaren edukiak euskalduna-nazionala ikuspegitik aurkezten dira, hain zuzen, euskaldunak Estatuan "gutxiengo nazionala" direlako, eta, beraz, euskaldunen artean izaten delako gehienbat immigrazioa mehatxu bat izan daitekeen ustea, *beste identitatearekin duten gatazkari dagokionez*. Gatazka horretatik haratago, eta Estatu mailan, immigrazioa espainiar identitaterako mehatxu gisa hartzen da, dagozkion aurreiritziak elikatuz; baina gai hori ez da hemen jorratzen. Has gaitezen, bada, aurreiritzi eta proposamen polemikoak aztertzen.

3. Euskadin beren burua espainiarizat dutenek eta alderdi espainolisteek etorkinak erabiltzen dituzte euskal nazioaren indarra ahultzeko

Hori baieztatzea akusatzea da. Hala gertatzen den guztietan bezala, frogak behar dira. Akusazioak errealitate global batera eramaten duenean, kasu honetan bezala, ez da nahikoa egiazkoak diren adibide zehaztetan oinarrituta egotea. Askotan, ez dira errealitate horretan gertatzen dena "eredugarri" egiten duten adibideak, errealitate horretako salbuespenak dira, garrantzi partikularrekoak, eta garrantzi orokorra eman nahi diegu. Eta argudiatzeko

modu horri bere izenez deitu behar zaio: sofisma. Hau da, egiaren itxura duen gezurrezko argudioa, amarru bidez zerbait egiazat jotzeko erabiltzen dena, egia ez izan arren. Baina horrek ez du esan nahi etorkinak manipulatzearaz akusatatu ezin direnik hala gertatzen denean; egin beharrekoa da. Baina akusazioari dagozkion garrantzia eta orientazioa emanaz.

Beste pertsona bat manipulatzearaz egiazkotasunez akusatatu ahal izateko, norberak erakutsi behar du ez dagoela prest modu berean manipulatzeko, ahal duenean eta komeni zaionean. Espainiar identitate nazionalaren alde egiteko eta euskal identitatea ahultzeko etorkinak manipulatu direla salatzen bada eta, aldi berean, horretarako aukera izandakoan, euskal identitatearen alde egiteko manipulatu badira, kontraesan batean erortzen da. Kasu batean zein bestean, pertsonak eta kolektiboak manipulatu da larriena. Baina norberaren identitatea defendatzeko modu maltzurra ere bada, gaizkia kutsatzen zaiolako. Benetan modu horretan indartu nahi al da? Edo, funtsean, identitatea horrela defendatzen duenak –euskalduna edo espainola–, ez al dio kalte egiten?

4. Horrek ez du esan nahi etorkinak euskal nazionalismoa ahultzeko erabiltzen ez direnik...

Hasiera batean, erabilera hori hauteskundeetan egin daiteke, etorkinengan edo botoa eman dezaketen etorkinen seme-alabengan pentsatuta: Espainiako nazionalitatea dutenak eta, udal-hauteskundeetan, botoa emateko eskubidea duten egoiliarak. Bestalde, manipulazioa ez da nahastu behar edozein alderdi politikok boto-emaile guztien artean botoak biltzeko egiten duen bidezko bilaketarekin. Lehenengoa, boto-emaileei egindako engainuaren bidez botoak irabazi nahi direnean bakarrik gertatzen da, hainbat aldaeratan: errealitateari edo arerio politikoari buruzko faltsutasunak, betetzeko asmorik ez duten edo bete ezin diren promesak, komunikabideetan aurkariarenganako klima emozional oso erasokorrek sortzea, funtsik gabeko iragarki katastrofistak – esaterako, immigrazioari buruzkoak –, benetan katastrofikoak izan daitekeena ezkatzea, etab. Eta, arlo horretan, galdera alderdi politiko guztiei zuzendu behar zaie, nazionalismoarekiko duten jarrera dutela. Guztiei zintzotasuna eskatu behar zaie, herritar guztiei eta, zehazki, etorkin-jatorriko herritarrei hitz egiten zaie; zintzotasuna, halaber, immigrazioari buruz egiten dituzten proposamenetan. Gero, horrek biztanleriaren sektore horren botoan izango duen eragina onartzeko, baita nazionalismoaren kontuan izango duen eragina ere.

Herritar onak bere interes partikularrak interes orokorraren esparruan jarriz bozkatzeko du. Seguruenik, etorkin-jatorriko pertsonak (premiagatik edo jazarpenagatik immigratzera behartuta daudenek

eta ez Espainian bizitzen jartzen diren ingeles erretiratuek) betetzen dute irizpide hori ongien, arrazoi simple batengatik: pertsona horietako gehienek interes partikularra (oinarrizko giza eskubideez gozatzea) interes orokorraren barruan dago berez, hau da, eskubide horiek guztiak pertsona guztiengan gauzatzearen barruan dago. Ia esan liteke ez dutela guztien eskubideak urratzen dituzten interes partikularretarako aukera materialik. Beren kezka nagusia eskubide sozialak eskuratzeko da. Dagoeneko finkatuta daudenean, Euskadin jarraitzeko borondatearekin, eta argi eta garbi bigarren belaunaldian, haientzat esanguratsua bihurtu daitezke auzi nazionala. Eta ez dago zertan aurrez pentsatu, jatorriagatik, espainiar nazioaren aldeko aukera egingo dutela. Kontu horretan, gainerako herritarrek bezala, botoak banatzea izango da normalena. "Alde" bateko eta beste alderdiei zintzotasunez lortzea dagokie, eta haien gizarteratze zibiko gisa ikusi behar da kontu hori. Zergatik ez pentsatu etorkinek, alde aurretiko aurreiritzirik gabe eta inpartzialtasunetik abiatuta, aldeei lagundu ahal izango lieketela gai horri buruzko eztabaida politikoa behar bezalako deliberazio demokratikoa izan dadin?

5. Euskadiko etorkinek nahiago izango dute Estatu nazionalitate nagusira, hau da, nazionalitate espainiarrera egokitzea, eta horrek kalte egingo dio euskal identitate nazionalari.

Gogoan izan behar dugu hemen aintzat hartzen ditugun etorkin gehienak familia-gabezia handiek bultzatuta etorri direla, beren oinarriko premiei dagokienez, edo jazarpenak bultzatuta, horri hemen irtenbide egokia aurkitzeko itxaropenarekin. Normala da, Espainiara etorritakoan, egoerarik egokienean kokatu nahi izatea, itxaropen hori egia bihurtu dadin. Horixe egingo genuke guztiok. Horixe egin dute euskaldun askok historian zehar. Ez dugu ahaztu behar emigrazio-arloan dugun historia zabala, penintsula barruan eta beste herrialde batzuetara, ia industrializazioa finkatu zen arte. Horregatik, etorkin batzuentzat, Espainia eta, zehazki, Euskadi, beste estatu batzuetara igarotzeko bide soil bat baino ez da. Beste batzuentzat, Espainia barruan aukera onenak eskainiko dizkien lekua bilatzea da. Batzuetan, autonomia-erkidego batean finkatzeko informazioarekin eta kontaktuekin etortzen dira. Beste batzuetan, berriz, etorri ondoren erabakitzen dute; horrela, Euskaditik beste erkidego batera joan daitezke (euskal gazte askok egiten duten bezala), edo, alderantziz, Euskadira etor daitezke. Gogora dezagun: etortzen badira, gehienak, "lan-merkatuan" behar ditugula antzematen dutelako da: beren beharra betetzen dute, gurea ere betez.

6. Azken batean, horrek esan nahi du euskal nazioa ez zaiela interesatuko eta nahiago izango dutela hemen oinarriko sustraiak bakarrik izatea, ez

euskalduntasuna, Espainiako eremuan malgutasunez mugitzeko...

Arazoa konplexuagoa da. Dinamika horretan, euskaldunon artean eztabaidatzen dugun identitate nazionalaren gaia, ez da, bistan denez, haien lehentasuna. Baina oztopo garrantzitsutzat hartzen badute bakarrik hartuko dute kontuan euren mugikortasunean. Behin eta berriz diogu, kokaleku egokia behar da, haientzat garrantzitsua izan dadin, eta orduan enpatiarik handiena sortuko dien helbide "nazionalera" hurbilduko dira.

Panorama horren aurrean, euskal identitate nazionala sendo bizi duen bertakoak pentsa dezake ez zaiola interesatzen migratzaileei aukerak eskaintzea. Orduan, lehen egin dugun galdera bat egin beharko litzateke: zer motatako identitate nazionala sortu nahi du? Bere baitan eta bere interesetan erabat autozentratutako identitate bat ala identitate ireki bat? Gogoan izan, etikoki, besteen aurrean eta geure buruaren aurrean, identitate partikular bat defendatzeko justifikazioa dugula, baldin eta identitate hori bidegabea ez bada beste identitate batzuekin, eta modu horretan eta elkartzasunez bizi badugu. Behar duten migratzaileei laguntzea, harrerako gizarteak izanik, baita "probetxurik" ateratzen ez bada ere (adibidez, igarobidean daudenei arreta egokia ematea), ez da pertsona horiekiko gizatasun-betebeharra bakarrik, norberaren nortasuna sendotzeko bide etikoa ere bada. Kontrakoa, "Euskadi, lehena", ezagutzen dugun "Amerika, lehena" negargarria kopiatzea da, azken batean, indartsuen nagusitasunean oinarritzen dena.

Horrek, Euskadin finkatuta bizi direnekin zuhurrak, malguak eta pedagogikoak izatea eskatzen du, haiek "betebehar identitario" gisa (adibidez, euskararen erabilera) hauteman dezaketena planteatzeko orduan: ez zaizkie blokeatu behar beren beharrak asetzearekin zerikusia duten aukerak; saiatu egin behar da betebehar gisa ez ditzaten hauteman, gizarteratzeko bide egokiago gisa baizik; behar dituzten laguntzak eskaini behar zaizkie; horiek egiteko uneak bilatu behar dira (euskalduntzeari erabat irekitzekoa, gehienentzat, eskolan egin beharko da, seme-alabekin batera). Berriz ere, horrelako estrategietan lotuta doaz giza eskubideekiko errespetua eta identitatearen sendotasun morala finkatzea. Dinamika horiekin finkatutako kolektibo etorkin batek aldatu egingo du hasierako galdera pragmatikoa –Non ditut beharrak asetzeko aukera gehiago?–, eta sustraitzeko nahi eta erabakiekin lotutako beste hau egingo du: non geratu nahiko nuke?

7. Etorkinek ez dute inolako interesik euskal hizkuntza nazionala ikasteko. Edo gaztelania beren hizkuntza dela uste dute (latinoek) edo, beren hizkuntza ez bada, hizkuntza hori ikastearekin nahikoa dutela uste dute.

Hasteko, garrantzitsua da euskara Euskadin bizi diren herritar guztiei irekitako hizkuntza dela sumatzea eta, gainera, lurralde hori gainditzen duela. Hain zuzen ere, garrantzitsua da euskara nazionalismoak eskusiboki ez bereganatzea, haren defentsa ez monopolizatzea, nahiz eta normala den euskal nazioaren funtsezko ezaugarritzat hartzea, euskaldunen hizkuntza den aldetik. Horrela soilik lortuko du euskarak bere ghettoan harrapatuta egoteari uztea. Horrela bakarrik lortu ahal izango da hemen jaiotako etorkin guztiei eta haien seme-alabei irekitako inklusio-erreferentzia esanguratsua izatea, ez bakarrik nazionalismoarekin enpatia dutenei. Ez dagokigu guri haientzako euskara ikasteko eta erabiltzeko politikak aztertzen hastea. Aurreko puntuan aipatutako oinarriko irizpideak gogoratzera mugatu gara.

Hori finkatuta, aitortu behar da euskara hizkuntza gutxitua dela Euskadin, euskaldun-kopurua biztanle guztien laurdena baino ez baita. Immigrazioa kontzentratuta dagoen lurraldeko eremu zabaletan, euskararen benetako presentzia eskasa da. Eta horregatik, oso normala da etorkinek, premia larriek bultzatuta eta beren eguneroko bizitzan euskararen beharra sumatu gabe, beste lehentasun batzuk izatea. Baina hortik ez da ondorioztatu behar ez dutela ikasi nahi. Beste gauza bat da. Ez dira gehiegikeriak eskatu behar. Etorkinei euskararen aurrerakada geldiarazten ari direla leporatzea zentzugabekeria da. Zilegi da, ordea, bertakoek nahi izatea etorkinek, Euskadin sustraituz gero, euskal nazionalismoarekin enpatizatu edo ez, euskara estimatzea, seme-alabek ikas dezaten gogoko izatea eta, azkenean, seme-alabek eguneroko bizitzan eta/edo lanean komunikaziorako benetako baliabide gisa erabiltzen dutela hautematea.

8. Etorkinen ehunekoa handia bada, haien kultura-ezaugarriak ezarriko dizkigute azkenean, euskal kulturaren ezaugarri definitzaileak ahulduz.

Hasteko, kontuan izan behar da Euskadiko etorkin-kopurua txikia dela. Atzerritar jatorriko 225.000 pertsona inguru daude; kopuru hori proportzionalki txikia da Estatuko beste erkidego batzuetako biztanle-kopuruarekin alderatuz gero. Herritar guztiei euskal kultura "kaltetuko" duten ezaugarriak "inposatu" ditzaketela esateak (geuk ere eztabaidatzen dugu *euskal kultura* terminoa) ez du inolako funtsik, are gutxiago horietako gehienek bizi duten egoera ekonomiko-soziala eta haien artean dauden desberdintasun kulturalak kontuan hartuta. Hau da, aurreko esaldiak bere trinkotasun empirikoa galtzen du, oinarri duen hipotesia ez delako betetzen. Baina kontrako honako argudio hau ere erabil daiteke:

"Ados, baina hori gaur-gaurkoz gertatzen da, baina ez da ahaztu behar ugaltzen ari den biztanleria dela eta bertako biztanleria, berriz, urritzen ari dela; eta, gainera, gehienek hemen finkatzeko erabakia adierazten du". Horren aurrean honako hau argudia liteke: "Baina hazkunde-erritmoa txikia da". Eta horrela jarrai liteke etengabe. Horrelako argudio eta kontraargudioek erakusten digute, funtsean, kontua beste bat dela: Benetakoa al da, egokia al da etorkinekiko harremana kulturen arteko talka gisa planteatzea?

9. Etorkinen kulturak eta euskal kultura guztiz desberdinak dira eta horrek talka kulturalak eragiten dituenaz, euskalduntasuna defendatu beharra dago.

Egia esan, askotan gertatu da eta gertatzen ari da talde batzuk, beren jatorrizko lurraldeetatik kanpo finkatuta daudenak, beren kultura ezartzea lurralde horietako kolektiboek. Talde horiek identitate nazionalak menderatu eta desagerrarazi ere egiten dituzte. Baina hori ez da immigrazioa, baizik eta menderatze kulturala alderdi garrantzitsua duen inbasioa. Botere gehien dutenek gutxiago dutenen gainean egindako ekimena da, zapalduakoa esploratzeko eta haiei etekina ateratzeko gehiegikeriak eginez. Adierazpen gordinena militarra da, beste botere batzuk ere inplikatzeko direlako, baina formalki baketsuak diren beste batzuk ere oso eraginkorak dira. Horrelakoetan indarra politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa eta abar izan daiteke. Hortaz, beharrak edo jazarpenak behartutako etorkinek gure gainean botere mota hori dutela pentsatzeak ez du zentzurik. "Inbasioaz" hitz egitea, metaforikoki bada ere, egia ez bada, normalean giza eskubideen ikuspegitik justifikaezinak diren kontrolak eta kanporatzeak justifikatzeko. Kopuruaren indar "pasiboa" dutela argudia daiteke, baina kasu hori bermatzen duten zifretan gaudela pentsatzea, berriro ere, neurritz kanpoko da. Gogora dezagun beste behin ere, Espainia eta antzeko herrialdeetara guk behar ditugunak etortzen direla.

Gainera, immigrazioaren kasuan, eragin kulturala –presioa ez denean– etorkinek jasotzen dute, gizarte hartzaileak eraginda. Zenbait kasutan, guk eskatzen diegu –agian, nahi izan gabe eta errespetuz jokatzeko saiatuta– berariaz egokitu ditzatela alderdi kultural zehatzak, hala nola lanean ezartzen zaizkien moldaketetarako (gehiegikeriarik ez badago normala izan daitekeena); beste kasu batzuetan, berriz, bizimoduetan, esaterako, giro kulturalak berak betetzen du zeregina, bere estimuluekin eta propagandarekin. Eta ez dago esan beharrik zer gertatzen den errespetu hori ez badugu. Giza eskubideak kaltetzen dituzten alderdi kulturalak alde batera uzteko eskatu behar diegu, baina erraza da ulertzea bi baldintza betez egin behar dugula hori:

batetik, Mendebaldeko kulturak asko baldintzatu gabeko eskubide horien irakurketa bat eginez, hau da, eskubide horiek hainbat alderditan inkulturazio anitzak onartzen dituztela onartuz; eta bestetik, prest egon behar dugu haiek gogorarazteko haiekiko justizia transnazionalaren betebeharrak ditugula. Horregatik, kulturen arteko talka dagoela, gure kulturen adierazpenak eta euskal kultura nazionala mehatxatuta dagoela esatea gehiegikeria bat da.

10. Beraz, ezin al diegu ezer exijitu, lan-mundura ezinbestean egokitzetik harago, kultura nazionalari dagokionez?

Beste modu batean planteatu behar dira gauzak. "Elkarbizitza kulturala" zer modu izan daiteke onuragarriena eta gogobetegarriena denontzat? Errespetuan, inbasiorik gabe, autonomian oinarrituta, aberasteko elkarri eragiteko prest egonda, kulturarik indartsuena bertakoak izaten jarraituko duela jakinda, bertakook euskal naziotasunari modu erabakigarrian emango diogun presentziarekin. Jarrera hori onartzen da ohartzen garenean eraldatzeko prest ez dagoen kultura bat (nazionala izan edo ez) hilda dagoela. Eta eraldaketa hori, neurri batean, barneko dinamismo kritikoa eta sortzaileetatik etorriko da, baina, beste neurri handi batean, kanpoko eraginetatik ere bai, kritikoki eta bertako kulturaren integrazteko modulazio egokiek hartzen direnak.

Bada, ikuspegi horretan, onartu ez ezik, sustatu ere egiten da kultur adierazpen berezituatarako berariazko espazioak egotea (horien artean, etorkinenak), eta horien aurrean guztiek erakusten dute errespetua: kultura-aniztasuna. Eta, gainera, kulturalki desberdinak direnek elkarriketarako, elkartrakerako eta elkarlanerako, hau da, elkarrengandik ikasteko espazioak egotea: kulturartekotasuna. Ikuspegi hori onartzea da norberaren kultura fanatizatzearen aurkako erremediorik onena; izan ere, fanatizazioa kultura besteei inposatzeaz gain, autosuntsitzailea ere bada. Euskal kultura defendatzearen aldekoek, osagai nazionala izan nahiz ez izan, oso kontuan izan beharko lukete.

Etorkinei dagokienez, ikuspegi hori, batetik, haiei ere komeni zaie, haien fanatizazioa prebenitzeko eta haien sormena bultzatzeko. Eta, bestetik, denei komeni zaie bertako kulturetan bere marka utzi ahal izatea; urrats kualitatiboa da inklusioaren dinamikan.

Azkenik, inplikaturako kolektibo kultural guztietan pentsatuz, gauzak horrela bideratzeak identitate pertsonal konplexuak hobeto bizitzen laguntzen du, identitate sinpleak alde batera utzita. Azken horietan, gure erreferentzia identitario anizkoitzak erreferentzia bakarraren mende jartzen ditugu. Adibidez: "euskalduna naiz" esan eta nire gainerako ezaugarriak

(genero- eta erlijio-identitatea, ideologia politikoa, lanbidea, etab.) euskalduna izate horren mende jartzen ditut. Identitate konplexuetan, aldiz, nire identitate jakin guztien inbrikazioaren emaitza da nire identitatea, eta identitate horietako bakoitzak autonomia propioa duen eremu zehatza du. Lehen modalitatean, euskaldunak ez diren guztiak izan litezke niretzat etsaiak. Bigarrenean, identitate-espazio bakoitzean elkartasun-lotura desberdinak ezartzen ditut, eta gero elkarrekin lotzen ditut. Beraz, identitate konplexu hori askoz aberatsagoa da eta ez da batere fanatikoa. Bada, etorkinen presentzia, horietara irekitzen bagara, pizgarri indartsua izan daiteke gure identitatearen konplexutasunean aurrera egin ahal izateko; eta haiek ere aurrera egin dezaten. Mesede egingo diogu elkarrri. Baina, zoritxarrez, pertsona horiek mehatxutzat hartzen badira, haien presentzia gure identitate simple negargarria sendotzeko erabiliko da.

11. Euskaldun nazionalistok elkartasuna adierazi beharko genieke batez ere beren jatorrizko estatuetan nazio menderatzailearekin gure antzeko gatazkak pairatzen dituzten nazioetako etorkinei (Mendebaldeko Saharakoak, Latinoamerikako indigenak ...).

Euskal nazionalista berez erakartzen dute pertsona horiek, horrela hartzen dituenean. Hala ere, batzuetan, ez da erraza horiek aurkitzea, esaterako, Latinoamerikako indigenen kasuan; izan ere, gutxi dira eta beren estatuko herritarrek direla esaten dute jendaurrean, eta talde esanguratsu bat direnean baino ez dira animatzen beren burua indigena gisa aurkeztera (hor ikusten da arbuatuak izateko beldur justifikatua). Horrek immigrazioaren konplexutasuna erakusten lagundu dezake: etorkin guztiek dute egoera hori eta, horri atxikita, zenbait behar, eskubide, arazo... Baina, aldi berean, horietako bakoitza bakarra da, bere identitatea ez da mugatzen etorkin izatera, pertsona immigratzailea da, bere berezitasunarekin; eta horrela hartu behar da. Gainera, horien artean askotariko taldeak daude ikuspuntu askoren pean, eta horiek ere alde batera uzteko edo sinplifikatzeko joera dugu.

Normala da enpatia sortzea etorkinen eta bertakoen artean antzeko gatazka politikoak izaten dituztelako, inoiz berdinak ez badira ere. Enpatia hori elkartasun, laguntza eta proiektu partekatu bihurtu daiteke, haien identitatearen ondoriozko marjinazio berezia kontuan hartuta, halakorik jasan badute. Aliatu gisa ere har daitezke zenbait kausatarako. Hori guztia zilegi da bi baldintzarekin: haiek ez manipulatzeko, kasu honetan euskal nazioaren alde; eta elkartasun espezifikoa horrek inpartzialtasunari kalterik ez egitea, etorkin guztiek eskubide berberak baitituzte arreta publikoari dagokionez.

12. Estatuko nazio minoritarioetako lurraldeetan etorkinak sartzeko baldintzak bertako agintari politikoek zehaztu eta aplikatu beharko lituzkete; izan ere, Estatuak kontrolatzen baditu, nazio-identitate nagusiari kalterik ez egitea izango da haren kezka bakarra.

Estatua duten nazionalismo askoren jarrerari berriro heltzen dion erreklamazio bat da hori: erreklamazio horrekin, Estaturik gabeko nazionalismoek adierazten dute eskubide bera dutela beren lurraldeei aplikatzeko, baina baieztapenean gehiago nabarmentzen da arrazoi kulturala ekonomikoa baino. Baina geure buruari galdetu behar diogu eskatzen ari garena ez ote den jarrera horren orokortze handiagoa. Jarrera hori, horrela planteatuta, giza eskubideekiko errespeturik gabea izan daiteke eta errespeturik eza areagotu dezake.

Hasteko, hori aplikatzeak ez luke ekarri behar nazioarteko zuzenbideak jada ezarrita duena haustea, hala nola asilo-eskubidea edo adingabeak harreran hartzeko eskubidea. Baina, hortik harago, geure buruari galdetu beharko diogu ea egungo nazioarteko zuzenbideak, gainerako egoeretarako atzeritarren sarrera-kontrola ahalbidetzen duenak, indartsuenaren legea bermatzen duen, izan ere, errealtatean, ahulenak kontrolatu ditzakeen bakarra baita. Estatu batek etorkinen sarrera kontrolatzen duenean, zentzuzko segurtasun-neurri zorrotzetatik haratago, etorkinaren ikuspegi instrumental garbi eta gogorra du: komeni zaizkidanei bide emango diet, komeni zaizkidanerako, komeni zaizkidan baldintzetan eta komeni zaizkidan bitartean. Estaturik gabeko nazioek eta euskal nazionalismoak talde horretan sartu nahi al dute? Horrela finkatu nahi al du bere identitate politikoa? Espainiar nazioa defendatzen duenak bere Estatu nazionala horren kontrolatzailea izatea nahi al du?

Berez, immigrazioaren oinarritzko arauketa defenda daiteke, zurruna ez dena, gizarte hartzailearen eta hara immigratzen dutenen interesik onenak aldi berean jasotzen dituena. Baina nazioarteko justizia gauzatzeko aurrerapenen esparruan egin beharko litzateke, Nazio Batu berrituek koordinatuta eta estatu pobretu edo zapaltzaileetako biztanleei laguntzeko benetako lankidetzaz bihurtuta. Hori pentsatzea ametszkoa dela dirudi. Baina norabide horretan urratsak egiteko borondaterik ez badugu, erregulazio zurrunari lotzea gizagabetasunaren alde egitea da. Borondate hori maila zehatzetan adieraz daiteke, adibidez, ekintza humanitariorako eta garapenerako lankidetzarako ongi planifikatutako laguntza gisa, eta horietan gutxiengo nazionalak beren lekua dute. Maila globalean, gure artean, ekimenaren berezko lekua Europar Batasuna izan beharko litzateke, eragiteko gaitasuna duen bakarrak... baldin eta horretarako prest balego. Hori nahi al dute gutxiengo nazionalak eta Estatu nazionalak? Biek ala biek Europar Batasunari norabide horretan bultzatzea diezaizoten nahi al da?



USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: emakumeak eta erlijioa

Izaskun Saez de la Fuente

1. Kulturek eta erlijioek desberdintzat al dituzte emakumeak eta gizonak? Zergatik?

Bai, patriarkatuaren eragin historiko handiagatik. Emakumeak handietsi edo difamatu egin izan dira, eta ez dute beren burua definitzeko botererik izan. Heteroizendatutako objektu huts bihurtu izan dira, gizona erakitako diskurtso kultural eta erlijiosoen eraginez eta zenbait printzipiotan oinarriturik, hala nola garbitasuna/lohikeria, sufrimendua, sakrifizioa, bekatua eta errua.

2. Zer erlazio dute garbitasunaren eta lizunkeria edo lohikeriaren printzipioek emakumeen gorputza ulertzeko modu jakin batekin?

Emakumeen gorputzaren kosifikazioa (edo objektu huts bihurtzea) oso presente dago hainbat erlijio-tradizioan, eta gaur egun funtsezko erreferentzia da haien talde fundamentalistenen doktrina eta praktiketan. Evaren eta Pandoraren irudiek emakumea bekatuarekin eta sexuarekin identifikatzen dute tradizio grekoan eta judu-kristauan. Gaizkia haragiarekin eta gorputzarekin parekatu ostean, bien feminizazioa egiten da, eta identitate femeninoaren ikusmolde negatiboa egiten da, non uteroa den nagusi. Bibliaren tradizioan eta Eliza kristauen historian, askotan baztertu izan dira emakumeak eremu sagaratuetatik, batez ere hilekoa zutenean eta erditu ondoren, garbiak ez zirela eta kutsagarriak zirela iritzita. Gaur egun argudio hori erabiltzera inor gutxi ausartuko litzatekeen arren, teologikoki proiektatutako emakumeen ikuskera antropologiko jakin batek eragin erabakigarria du, eta, adibidez, emakumeak ezin dira apaiz izan. Gainera, horrelako eskemetan, emakumeei ezkondu aurretik birjintasuna eskatzea ere haien sexualitatearen kontrol ideologiko eta soziala egiteko modu pribilegiatu bat da, lohizat, bekatarizat eta menderakaiztat jotzen baita emakumea.

3. Orduan, zein da emakumeen gorputza edo atal jakin batzuk estaltzeko edo ezkutatzeko ekintzaren esanahia? Islamean bakarrik gertatzen al da?

Erljioak legitimatutako edozein belok –moja kristauenak barne– **emakumeen mendekotasuna irudikatzen du sinbolikoki, janzkeraren bidez, eta horrela mamitzen da emakumearen ikusezintasuna eta banaketa sexuala, bai lanean (gizon produktiboa/emakume erreproduktiboa), eta bai espazioan (sakratua/publikoa/maskulinoa eta profanoa/pribatua/femeninoa). Ikuspegi dogmatikoenak uste du janzkera femeninoak familiaren eta gizartearen egonkortasuna ahalbidetzen duela: emakumeen gorputza bekatuaren sinonimo izanik, emakumeen janzkera tradizionala da gizonen haragizko bekatuak ez egiteko modua, eta horrek, aldi berean, edertasun fisiko hutsaren terminoetan kontzeptualizatzetik askatzen ditu emakumeak, zaintzari lotutako rol generikoak indartzen ditu eta gizonen haien aurkako erasoak egitea saihesten du. Ez da erlijio musulmanaren errealitatea bakarrik izan, eta hori egiazta dezakegu emakume kristauek Espainia nazional-katolikoan izandako janzkera aztertuta.**

4. Emakume musulman guztiek belo mota berbera erabiltzen al dute?

Ez. **Belo islamiko mota bat baino gehiago** daude; emakumeen gorputza gehiago estaltzen dute batzuek, eta gutxiago beste batzuek. Zapi soil bat izan daiteke (*roosarie* edo *shaila*); *magneh* bat (mojen buruko bat bezalakoa, Iranen) edo *txador* bat (burua estaltzen duen eta kokotsean eusten den oihal karratu bat, Iranen eta Libanon); burutik orkatiletaraino doan estalki beltz bat da *abaya* (Persiar golkoan); Afganistango *burka*-k aurpegi osoa estaltzen du, begiak salbu, eta batzuetan sare bat izaten du, zailtasunekin bada ere ikusten uzten duena baina kanpotik begiak ikustea eragozten duena (*txadri*); *nikab*-a aurpegia erabat estaltzen duen beloa da;

salwar kameez esaten zaien zetazko tunikak Pakistanen erabiltzen dira, etab.

5. Arrazoi beragatik erabiltzen al dute guztiak?

Ez. Batzuek haurrak zirenetik ikusi duten gizarte-ohitura bat delako jartzen dute, ohitura horretan sozializatu direlako, edo/eta beren kultura-nortasunaren autoafirmaziorako elementu bat delako, edo beren burua babesten laguntzen dielako, ez ditzaten gogaitu, iraindu, gaizki tratatu, etab. Beste batzuk kentzera behartuta daude, indarkeria arrazistaren, xenofobiaren eta islamofobiaren beldur direlako. Horrenbestez, ez dira libre jartzeko, ezta kentzeko ere. Horiek horrela, komunitate etniko-erlijiosoa itxietan bizi eta gizarte-kontrol handia dutenean, zaila da jakiten zenbateraino jartzen duten beloa nahita eta zenbateraino behartuta. Gutxiengo batek mundu modernoari uko egiteko erabiltzen du, mundu modernoan guztia azalderia hutsa delakoan, eta balio estetikoak soilik hartzen direlakoan kontuan. Azkenik, beste emakume musulman batzuk jatorrizko herrialdeetan espazio publikoak okupatzeko hasi dira beloa erabiltzen; izan ere, beloa erabiltzeak horretan laguntzen diela konturatu dira. Hala, islamiar emakumeek ez dute beren amaren belo tradizionala onartzen, hau da, beren aburuz ezjakintasunaren, superstizioaren, itxita bizitzearen eta hezkuntzaren bidez atzean utzi duten guztiaren ikurra den belo hori; aitzitik, haustura erakusteko erabiltzen dute beloa. Dena den, ez dezagun ahaztu zapiaren azpitik emakume islamistek defendatzen duten proiektua, muturreko kasuetan, arriskutsua dela demokraziarentzat, eta, beraz, baita emakumeen eskubideentzat ere.

6. Ba al dago beloaren erabilera alternatiborik, ezagutzea merezi duenik?

Bai. Genero-parekidetasunari laguntzen dion identitate musulman baten sinbolotzat ere har daiteke. 2015eko azaroan Parisen izandako atentatuetatik bi hilabetera, gertaera esanguratsu bat izan zen. Guanyem Badalona plataformako Fatima Taleb zinegotzi musulmanak egitasmo bat gauzatu zuen, terrorismoaren gaitzespen hutsetik askoz harago joan zena: bikote gay bat ezkondu zuen lehen musulmana izan zen, eta, *hijab*-arekin apainduta, argazki bat atera zuen ezkongaien artean irribarrez. Hurrengo egunean, albistea *trending topic* bihurtu zen Twitterren Katalunian. Era berean, katolikoei erreparatzen badiegu, feministak diren eta kontzientzia soziala duten moja katolikoek probokazioz konbinatzen dituzte mojen burukoak eta galtza bakeroak edo kaleko arropa, beloari zentzu apurtzailea emateko.

7. Zer iritzi du euskal gizarteak beloaren erabiltzen duten emakumeei buruz? Emakume horiek besteek baino arazo gehiago al dituzte integratzeko?

Beloaren erabilerari buruzko diskurtsoa laxoagoa den edo ez den alde batera utzita, euskal herritarrek zapi islamikoa modu sinplistan lotzen dute pobreziarekin, hezkuntza edo prestakuntza faltarekin eta gizonarekiko mendekotasunarekin, eta horrek beste migratzaile batzuei baino gehiago zailtzen die integrazioa emakume musulmanei. Hezkuntza akademikoa jaso duten musulmanak kezu dira, beren eskubideei buruzko eztabaida beloa soilik oinarritzen delako; aldiz, gai garrantzitsuagoak, hala nola hezkuntzarako edo enplegurako sarbidea, bigarren mailan geratzen direla diote. Magrebetik eta Senegaldik etortzen diren emakumeen arazoa da askotan benetako "migrazio-isolamendua" bizi dutela, eta horrek haien ikusezintasuna elikatzen duela. Askotariko diskriminazioak jasaten dituzte, eta aukera handiagoa dute lan-abusua edo sexu-abusua jasateko: emakumea izateagatik, atzerritarra izateagatik eta beltza izateagatik, zuria ez den beste kolore batekoa izateagatik edo musulmana izateagatik.

8. Beloa erabiltzea debekatzea zer da, arazoaren parte edo konponbidearen parte?

Ez da konponbidearen parte, emakumea erabat ikusezin bihurtzen duten muturreko bertsioetan izan ezik. Beloaren erabilera debekatzeak, **emakumeen autonomia gutxiesteaz gain**, munitetik desbidera dezake arreta-gunea: alegia, genero-berdintasuna lortzean jarri behar da arreta, eta horretarako, neska-mutilen hezkuntza sustatu behar da, gatazka espezifikokoak desaktibatu eta etorkin musulmanen integrazioa errazte aldera elkarriketa eta bitartekaritza erabiliz, eta lan-, gizarte- eta partaidetza-arloetan baliabide egokiak emanez.

9. Islamiarrak baino askeagoak al dira Mendebaldeko emakumeak?

Galderak aditzera ematen duena baino askoz konplexuagoa eta anitzagoa da errealitatea. Emakume musulman guztiak ez daude zapalduta, eta musulmanak ez diren emakume guztiak ere ez dira libre. Emakumeen gorputzaren kosifikazio-kulturak eragin berezia du Mendebaldeko munduan, eta arropetako 38 neurriaren sindromearen bidez argi ikusten da hori. Europako *haremak* gazteen edertasuna sakralizatzen du, ikono eta determinatzaile identitariotzat hartuta, eta heldutasuna ikusezin bihurtzen du, bere konnotazio estetiko negatiboengatik. Gorputzean oinarritutako kodeek eta elikadura-dieta etengabeek narkotiko edo lasaigarri gisa jokatzeko dute, eta horrek emozionalki ezegonkortzen ditu emakumeak, besteen begiradaren mende dauden objektu huts izatera murrizten baititu. Ondorioz, botere ekonomikoa eta politikoa modu

bidezkoagoan banatzearen aldeko borroka eraldatzaileak geldiarazi egiten dira.

10. Oro har, erlijioek zein rol esleitu izan dizkiete emakumeei?

Erljioek besteentzako izakitza hartu izan dituzte emakumeak. Tradizio bakoitzaren mui sinbolikoaren gordailu nagusitza eta tradizio hori transmititzeko agente pribilegiatutzat hartu dira, **identifikazio argia eginez honako hauen artean: emakumea, ama, zaintzailea eta fededuna**. Horregatik, adibidez, emakume katolikoentzat tradizioz oso garrantzitsua izan da herri-erlijiositateko imajinario jakin bat; alegia, emakumeen ikuspegia Mariaren ikuspegi jakin batekin parekatzen duena: Maria fededunen amatza hartzea, eta emakumeak etxea zaintzen, seme-alabak hazten eta balioak transmititzen (batez ere erlijiosoak) aritzen diren fugaratzat hartzea.

11. Sekularizatutako gizarteetan, hala nola euskal gizarteetan, emakumeek jarraitzen al dute balio erlijiosoaren transmisio-agente izaten?

Datu estatistikoek erakusten dute **erlijio-kontzientziaren feminizazioarekiko haustura gertatu dela** argi eta garbi. Emakumeak beranduago bereizi dira erlijiotik, baina gizonak baino azkarrago egin dute prozesu hori. Gaur egun, gazteen artean, erlijiositate-tasak nahiko antzekoak dira bi sexuetan, eta agerian uzten dute Euskadi zenbateraino den buru Espainiako **exkultrazio**-prozesuan, hau da, kristau-erlijioaren sustrai kulturalak galtzeko prozesuan. Gaur egun, komunitatearekin konprometitutako pertsona erlijiosoaren profil nagusia adineko emakume batena da, eta oso zaila da profil horretan belaunaldi-aldaketa gertatzea; era berean, gutxien ageri den profiletako bat unibertsitateko ikasketak dituzten emakume gazte eta helduena da; filosofia feministak eragin handia du horietako batzuegan. Emakume gazte gehienentzat (eta ez soilik gizonentzat) erlijioa ez da jada beren bizitzako gai esanguratsu bat, eta Elizako hierarkiaren jarrerak, sarri, indartu egin ohi ditu Elizaren eta askatasunaren nahiz emakumeen emantzipazioaren arteko antinomiari buruzko estereotipoak.

12. Sekularizazioa geldiarazteko eta emakumeen funtzio tradizionala berreskuratzeko mekanismoa izango al da immigrazioa?

Etorkinak, askotan, sozializazio erlijioso eta kultural jakin bat nagusitzen den herrialdeetatik datoz, eta horietan, emakumeek oso eginkizun garrantzitsua dute familia zabaletan, haiek arduratzen baitira belaunaldiarteko transmisioaz. Oraingoan, jatorri atzeritarreko pertsonak aldendu egiten dira panorama orokorretik, ematen baitu erlijioak askoz garrantzi handiagoa duela haien bizitzetan bertako herritarren bizitzetan baino. Islamean nabarmentzen

da gehien erlijioa nonahi dagoela bizitzaren esparru ezberdinetan. Alde horretatik, etorkin musulmanen artean praktikante kopurua oso handia da, eta ia ez dago alderik emakumeen eta gizonen artean, baina katolikoaren eta ortodoxoen artean emakumeak praktikanteagoak dira gizonak baino. Edonola ere, erlijio bereko etorkinen artean ere badira aldeak; esate baterako, Kolonbiako emakume katolikoaren sekularizazio-maila eta Argentinako emakume katolikoena ez da bera. Akaso, horregatik eta beste adierazle batzuegatik pentsatu izan da immigrazioak **sekularizazioa** geldiarazteko balioko duela. Baina **egiturazko prozesu bat** da hori, itzulerarik gabea, belaunaldiz belaunaldi elikatua. Etorkizunean denborazko serieen estatistika-analisiei eta azterlan kualitatiboari esker zehaztu ahal izango da etorkinen seme-alabek eta bilobek zer neurritan eta nola gordetzen dituzten partzialki beren erlijio-nortasunak hibridazio- edo mestizaje-prozesuen bidez, eta zer neurritan asimilatzen diren jada berena ere baden gizartearekin.

13. Zertan bereizten dira aipatu dituzten exkultrazio eta sekularizazio terminoak (prozesuak)?

Sekularizazioa honela interpreta daiteke: tradizioz nagusi izan den erlijio-konfesio jakin baten sinesmen, arau eta praktikekiko lotura haustea edo galtzea, edo haien garrantzia galtzea; adibidez, erlijio eta Eliza katolikoarena. Euskadin eta Espainian, prozesu hori belaunaldi bakar batean gertatu da, eta adierazleak izugarri egin zuten behera 60ko hamarkadaren amaieratik; hain zuzen, 90eko hamarkadaren erdialdean jo zuten hondoa. Orduetik aurrera, prozesu hori beste batekin nahasten da –batez ere belaunaldi gazteenetan–, hau da, exkultrazioarekin: neska-mutulek hautsi egiten dute erlijioarekin eta haren erakundeekin harremanak ezinbestean izan behar diren printzipioa, eta haustura hori sendotu ere egiten dute; eta zabaldu eta dibertsifikatu egiten dira beren ibilbide biografikoan erlijiora inoiz "bildu gabeko" gizarte-sektoreak. Haustura hori erlijio-erantzun zehatzaren porrota izan daiteke, baina ez hori bakarrik: erlijiositateari edo transzendentsiari buruzko galderaren beraren porrota ere izan daiteke, eta banakoei eta komunitatei zentzua emateko duen ahalmenaren porrota ere bai.

14. Ba al dago loturarik emakumeen aurkako indarkeriaren eta erlijioen artean?

Lotura hori ez da ezinbestekoa, baina, zoritxarrez, maiz gertatzen da. Munduan emakumeek beren konfesioen barruan nahiz kanpoan askotariko indarkeriak jasaten dituztela ikusita ere, erlijioak oraindik ere **ez dira gai beren erantzukizunak beren gain hartzeko**, eta egiten dutenaren edo egiten ez dutenaren bidez ikusten da hori. Tradizioz, abnegazioa eta mendekotasuna eskatu izan die emakumeei, eta isiltasunaren kulturaren alde egin izan dute. Gaur

egun, adibidez, emakume katolikoek kongregazioek berek salatzen dute isiltasunaren kultura hori, biktimizazio bikoitza edo hirukoitza jasaten baitute. Bestalde, emakumeen aurkako indarkeriak lotura estua du **komunitate etnikoen, nazionalen eta/edo erlijiosoen barruan emakumeei esleitzen zaien eginkizunarekin**. 90eko hamarkadaren bigarren erdian, Balkanetako gerran, Europaren bihotzean, gordintasun osoz ikusi zen emakumeen bortxaketak gerra-armatzat eta garbiketa etnikorako armatzat erabiltzen zirela eta zenbateraino irauli ziren modu zitalean subjektu/objektu kategoriak: emakumeak sakratuenaren sinbolo huts dira, komunitate baten purutasun etniko erlijiosoa, eta ez subjektu eta biktima.


15. Erlijioa eta feminismoa bateraezinak al dira? Eta islamaren barruan?

Ez. Errealitate historikoak erakusten du **erlijio-konfesioetan badaudela korrante feministak**, etsaitasuneko testuinguruetan, eta erlijioen arteko elkarrizketa ekumenikoa sustatzeko joera dutela, sexu-indarkeriaren aurkako gaietan bereziki beligeranteak diren aliantzak eta sareak ezarriz. Teologia feminista kristauak –XX. mendeko 60ko hamarkadaren amaieran agertu zen, Bibliaren ikasketetan oinarrituta– analisi asko eta askotarikoak ditu, eta horiek erakusten dute emakumeak hainbat modutan izan zirela Jesusen ikasleen taldeko kideak: berpiztearen gertaera modu berezian gogoratzen du teologia feministak, emakumeak izan baitziren lehen lekukoak eta gertaera hura transmititzearen arduradunak. Feminista musulmanak ere saiatzen dira giza eskubideak beren erlijioarekin uztartzen, hau da, ohiturak iraultzen laguntzen, askatasunaren eta autonomia pertsonalaren alde eginez, baina erlijio-identitateari uko egin gabe. Kristauek bezala, haiek ere

genero-memoria aldarrikatzen dute, frogatu nahian islamak ez duela emakumeen azpiratzea sustatzen, eta ahalbidetu nahian, batetik, pertsonaren eta Jainkoaren artean harreman zuzena sustatzea, eta bestetik, elkarrekin demokrazia, pluralismoa, tolerantzia eta giza eskubideak elikatzea.

16. Ba al dago berezko loturarik islamaren eta emakumeen genitalen mutilazioaren artean?

Ez. Faraoen garairako egiten zen ohitura bat da ablazioa, Afrikako herrialde askotako gizarte tribalen artean hedatua, eta, beraz, kristautasuna eta islama agertu baino lehenagotik egiten zen. Ahozko tradizioaren bidez transmititu da, Koranean propio agertu gabe. Taldean sartzeko irizpidetzat hartzen da, eta horren azpian emakumeen sexu-identitatearen betiko auzia dago: neska izatetik emakume izatera igarotzea dakar, eta emakumeak gizonarekiko otzantasuna, obediencia eta fidelotasuna izatea bermatzen du. Erabat iraingarria da, helburua baita emakumeen sexualitatea kontrolatzea, plazera sentitzeko ahalmena ezabatzea eta haien birjintasuna zaintzea. Heriotza ere ekar dezakete haren ondorioek. Pairatu duten emakumeek bizitza osoan jasaten dituzte ondorio fisikoak, sexualak eta psikologikoak. Ablazioari aurre egiteko, ezinbestekoa da neurri juridiko eta penalekin batera bestelako estrategia batzuk aurrera eramatea: prebentziorako estrategiak, hezkuntzakoak eta pedagogikoak. Mutilazioa maiz gertatzen den herrialde eta eskualdeetan, erritual alternatiboak egiten hasteko aukerari buruz sensibilizatzen saiatzen dira GKEak, zeremonia publikoen bidez neskatoak beren komunitatean onartuak izan daitezzen eta ostrazismora kondenatuak izan ez daitezzen, baina ablaziorik jasan gabe.



USTEAK, USTEL!

Argitu ditzagun zalantzak: eskuin erradikalak

Jesús Casquete Badallo

1. Ultraeskuina aipatzen dugunean, zeri buruz ari gara?

Gaur egun, termino ugari erabiltzen dira eskuineko ideologia-ikuspegi estremistari aipamena egiteko, eta horrek, noski, nahasteak sortzen ditu aurrean dugun errealitatea definitzean. Hauxe da, hain zuzen, terminoen nahaste hori guztia ordenatzeko modu bat: **ultraeskuina demokrazia liberalaren aurkako espektro "antisistema"** da. Ultraeskuina bi familiatan edo multzotan banatzen da. Alde batean, *eskuin-muturra* dago, demokraziaren funtsaren etsaia, hau da, herri-subiranotasunaren eta gehiengoaren botoaren edo nahiaren etsaia. Eskuin-muturraren adibiderik argiena faxismo historikoa da (eta haren gaur egungo jarraitzaileak). Beste aldean, berriz, *eskuin erradikala* dago, demokraziaren funtsa onartu arren, demokrazia *liberalaren* funtsezko zenbait alde ukatzen dituen, hala nola gutxiengoaren eskubideak errespetatzea, legearen araberrako gobernu eta botere-banaketa. Nolabait esateko, eskuin erradikalak ez du zalantzan jartzen herriaren boterea, "printzipio demokratikoa"; eskuin-muturrak, aldiz, bai, zalantzan jartzen du, eta konponbide "autoritarioen" alde egiten du. Nolanahi ere, beti ez da erraza ultraeskuinen bi multzo horiek bereiztea.

2. Eskuin-muturrak demokraziari dion gorrotoa argitzeko adibiderik?

Adolf Hitlerrek honela definitu zuen bere mugimendua, *Nire borroka* (1925/1927) izeneko lan autobiografiko eta programatikoa: mugimendu "antiparlamentarioa bere funtsean eta barne-antolaketan, hau da, ez du gehiengoaren printzipioa onartzen ez orokorrean ez bere barne-egituraketan, liderra beharrezko baitu, besteen nahia eta iritzia ezartzera behartuz". Printzipio liberalaren erabateko ukapena da, gehiengoaren printzipioaren aurka egiten baitu, baina Hitlerrek ez

zuen guztiz baztertu demokraziaren ideia. "Demokrazia germaniarraren" defentsa ere egin zuen; ikuspegi horren arabera, lider batek soilik hartzen ditu komunitate politikoari dagozkion erabaki guztiak, inongo kontrolik gabe. Hau da, diktadura bat.

Egun, hauek dira era batera edo bestera faxismo klasikoaren legatuan inspiratzen diren eskuin-muturreko alderdiak: Alemaniako Alderdi Nazional Demokratikoa (NPD), Greziako Egunsenti Urrekara eta Hungaria Hobe baten aldeko Mugimendua (*Jobbik*).

3. Antidemokratikoak al dira eskuin erradikaleko alderdiak?

Teorian ez, ez baitute gehiengoaren printzipioa zalantzan jartzen, baina alderdi horien zenbait proposamenek **talka egin dezakete demokraziaren eratze-balioekin** (gizakiaren duintasuna, pertsonaren eskubideak edo herri-subiranotasuna). Vox alderdiak, bere programa-dokumentuetan, kritikatu egiten du demokraziaren funtzionamendua, baina, forma aldetik, ez du ezer gehiengoaren gobernuaren aurka. Bestalde, Frantziako 2017ko presidentetza-hauteskundeetara aurkeztutako konpromisoan, hau agindu zuen Marine Le Pen hautagaiak: "nire nahia da erabakiak herritarrengandik ahalik eta gertuen hartzea, eta herritarrek erabaki horiek kontrolatu ahal izatea". Frantziar buruzagiak "gertutasuneko demokrazia" esaten dio. Horrez gain, Le Penek herri-ekimeneko erreferendumak egitea proposatu zuen, eta ongizate-estatuari, immigrazioari, kulturantzatasunari edo Europar Batasunari lotutako gaietan bozketak egitea. Austriako Askatasunaren Alderdiak (FPÖ) "demokrazia zuzena garatzea" agintzen du. Eta Txekiar Errepublikako eskuin erradikaleko alderdi batek *Askatasuna eta Demokrazia Zuzena* du izena.

4. Ultraeskuina, eskuin erradikala, eskuin-muturra, horiek al dira termino guztiak?

Ez, eta, gainera, badu garrantzia. Alemanian, esaterako, eskuin erradikaleko alderdiak legezkoak dira (horra hor, esaterako, Alemaniarentzako Alternatiba, AfD), baina eskuin-muturrekoak, ordena konstituzionalaren aurka egiten dutenez, legez kanpo utz ditzakete.

Alderdi “**nazionalpopulistei**” buruz ere hitz egiten da; termino horren bidez, nazioaren kultura eta interesak lehenesten dituzten alderdiak aipatzen dira, hau da, “jendea” –bere errealtatetik eta arazoetatik urrun dauden elite ustelek gutxietsia eta engainatua sentitzen den “herria”– lehen lerroan jarriko dutela agintzen duten alderdiak. Hala, Frantziako 2017ko presidentetza-hauteskundeetan, goiburua adierazgarri hau zuen Marine Le Penen hauteskunde-programak: “Herriaren izenean”. Azkenik, eta, bereziki, beren postulatuei atxikitzen zaizkien taldeei buruz aritzeko, “eskuin identitarioa” etiketa erabiltzen da.

5. Eskuin erradikaleko alderdiak faxistak al dira?

Faxismoa gerra arteko aldi bateko mugimendua izan zen, eta zenbait herrialdetan boterera iritsi zen, Italian eta Alemanian, adibidez. Bai Mussoliniren Alderdi Faxistak, bai Hitlerren Alemaniako Langile Alderdi Nazionalsozialistak demokrazia mespretxatzen zuten, eta ahal zuten guztia egin zuten hura dinamitzeko (eta lortu, gainera). Batak zein besteak unitate paramilitarrak antolatu zituzten, kaleetan beren “etsaien” aurka indarkeriaz jarduteko, sozialisten eta komunisten aurka, bereziki. Alemaniak piztu zuen Mundu Gerrak dozenaka milioi hildako eragin zituen borroka-fronteetan eta kontzentrazio- nahiz deuseztatze-esparruetan. Egungo eskuin erradikaleko alderdiek ez dituzte mota horretako erronkak planteatzen. Ez da bi errealtate horien arteko analogia errazik egin behar. Hobe da historia garaikidean faxismoak adierazi duena ez hutsaltzea, horrelako alderaketak eginez.

6. Beraz, faxismo historikoak ez digu balio gaur egungo eskuin erradikala ulertzeko?

Ez, ez da hori. Gaur egun, eskuin erradikaleko alderdiak ez dira zehazki faxistak, baina nekez uler daitezke alderdi horiek Europan faxismoak zer eragin izan zuen jakin gabe. Bien arteko analogiaz hitz egiteak ez du esan nahi homologoak direnik. Antzekotasun bat dago bien artean, eta **zenbait ezaugarri partekatzen dituzte**, hauek, esaterako: ultranazionalismoa; politika lagun/etsai logikan

oinarritutako eremutat ulertzea; herrialdeak, kulturak eta pertsonak hobeen eta txarragoen artean banatzen dituen ideia bultzatzea, ezkutuago edo ageriago dagoena; gezurra erabiltzea (egun *fake news* esaten diogu) helburu propagandistikoekin; eta pertsona komunitateko proiektuen mende jartzea (haien kasuan, beti da aberria). Baina **funtsezko desberdintasunak ere badira** eskuin erradikalaren eta faxismoaren artean; esaterako, lehenbizikoek demokrazia, formalki, onartzen dute (nahiz eta kritikatu egiten duten eta beren flotazio-marrarako eraso ingura dezaketen), eta ez dute indarkeria erabiltzen beren helburuak lortzeko. Beraz, bien artean jarraitutasun-ildo bat dagoen heinean, haien arteko etenak albo batera utzi gabe, eskuin erradikala “postfaxista” dela esaten da.

7. Zenbat eskuin erradikal dago, bakarra ala hainbat?

Europan, eskuin erradikalaren egoera **heterogenoa** da, eta **oso plurala**. Alemaniarentzako Alternatiba (AfD), Frantziako Bilgune Nazionala (RN, Fronte Nazionalaren birfundazioa 2018an), Italiako Liga, Espainiako Vox, Austriako Askatasunaren Alderdia (FPÖ), Hungariako *Fidesz* edota Poloniako Legea eta Justizia izenpe berarekin sailkatzen ditugun arren, ez du esan nahi alderdi horiek postulatu berak defendatzen dituztenik. Ultraeskuinaren mundua, baita eskuin erradikalaren mundua ere, pluralean jokatzen dira. Horregatik, hobe da “eskuin erradikalez” hitz egitea.

8. Zer lotura dute eskuin erradikal horiek?

Aurrez aipatu bezala, mugimendu horiek guztiek **mesfidantzaz begiratzen diote demokrazia liberalari** (bada “demokrazia iliberalaren” alde egiten duenik ere, nork daki Hitlerren eta haren “demokrazia germaniarraren” erara agian). Eta denek jartzen dute beren programen eta beren jardun politikoaren aurrealdean aberria, desegite-arrisku larrian dagoen lurraldetzat hartuta. Ultranazionalismoa eta etniaren ikuspegitik ahalik eta nazio homogeneoena lortzeko xedea dira ultraeskuinaren ardatz ukaezinak, baita eskuin erradikalarenak ere. Alde horretatik, **natibistak** dira: nazioak bertan jaiotakoek osatzen dituztela aldarrikatzen duen ideologia onesten dute, eta, beraz, haien iritzi, bertan jaio ez direnak mehatxu dira nazioaren homogeneotasunerako. Hala, Marine Le Penek “aukera patriotikoa”, berea, eta “aukera mundialista” aurrez aurre jartzen ditu; batzuek “sustrai sakonak dituztenak” dira, eta besteak “kosmopolitak” dira. Zenbaitetan, nazioko berezko herritarrak ere baztertzen dira, ez

baitutuzte bertakotzat hartzen; hala gertatzen da, esaterako, Hungarian, ijitoen gutxiengoarekin. Baina, beti, etorkinak hartzen dira identitate nazionalaren mehatxu nagusitzat, tradizio judu-kristautik urrun daudenak (hau da, musulmanak), bereziki.

9. Baina zerk bereizten ditu?

Demokraziaren ikuspegi kritiko bera partekatzen dutenez, eta aberria beste edozein balio edo printzipioren gainetik pribilegiatzen dutenez, eskuin erradikalako alderdiek familia bat osatzen dute. Nolanahi ere, funtsezko desberdintasunak hautematen dira haien artean, eta, horrenbestez, zaila da “internazional nazionalista” (oximoron bitxia) gisako zerbait eratztea. Bada beste arrazoi bat ere, garrantzitsua dena: zenbait herrialdek, hala nola Austriak eta Italiak, lurralde-auzi historikoak dituzte, eta egoera horiek, noski, zaildu egiten dute haien arteko elkar-ulertzea (kasu horretan, Hegoaldeko Tirol da auziaren gaia). Eta ezin ditugu ahaztu ekonomiari edota moralari dagokien ez alderdi horiek egiten dituzten proposamenak.

10. Zer ekonomia-proposamen defendatzen dituzte eskuin erradikalak?

Alderdi horien ekonomia-proposamenek agerian uzten dute haien **barne-heterogeneotasuna**. Zenbait alderdik arlo sozialean esku hartzeko programak dituzte, eta, horrenbestez, erakargarriak dira gizarteko sektore ahulenen artean. Marine Le Penek, esaterako, “ongizatearen chauvinismoa” defendatzen du, alegia, Frantziak ongizate-estatu indartsu bat behar duela, herritarren beharrei erantzuteko gai izango dena, betiere herritarrak ezaugarri etnikoen arabera definituta. Hau da, elkartasuna bai, baina frantziarrentzat soilik, “benetako justizia sozialaren” baitan. Horrelako proposamen interbentzionistei esker, haren alderdia lehen aukera izatera iritsi da Frantziako langile-klasearen artean. Nazioarteko elkartasuna aldarrikatzen duten ezkerreko alderdiei botoa ematen zieten asko eta asko “elkartasun nazionalaren” defentsak liluratu ditu. FPÖ alderdia “austriarren etxeko alderdi sozialtzat” aurkezten da bere programan, eta “elkartasuna oinarri duen komunitatea” defendatzen du, “austriar guztiekiko elkartasuna” nagusi izango den komunitatea; hala, langileen eta lepo zuriko langileen erreferentziazko hauteskunde-aukera bihurtu da, betiko sozialdemokrazia ordezkatzuz.

11. Hala ere, eskuin erradikalako beste alderdi batzuek ekonomia-proposamen ultraliberalak defendatzen dituzte...

Bai, hala da. Vox alderdia Frantziakoaren guztiz kontrako adibidea da. Bere ekonomia-proposamenetan, ongizate-estatu estutzea eta, oro har, zergak eta gastu publikoa murriztea defendatzen ditu. Ekonomia-programa ultraliberala dute. Rubén Manso alderdiaren ekonomia-programa idaztearen arduradunak gutxieneko Estatu baten alde egiten du, aberatsek zerga-arloan jasaten duten “diskriminazioarekin” amaituko duena, eta osasungintzaren, hezkuntzaren eta pentsio-sistemaren pribatizazioan aurrera egingo duena. Estatuak, batetik, defentsa eta barne-segurtasuna bermatu behar ditu, arlo horietan ez da estutu beharrik (horregatik defendatzen dute Estatuko langileen kopurua murriztea, polizia, kartzeletako funtzionarioak eta militarrik salbu); eta bestetik, kontratuak betearaztea eta delituak justiziaren bidetik jazartzea bermatu behar du. Baina hor amaituko lirateke Estatuaren legezko funtzioak. “Espainiak Estatu indartsu bat behar du, baina funtzio mugatuekin” esaten du Voxek.

12. Eta moralari dagokionez, zer proposamen egiten dituzte eskuin erradikalak?

Ekonomian gertatzen den bezala, moral-kontuetan ere eskuin erradikalak bide kontrajarriak hartzen dituzte. Batetik, familiaren ikuspegia dugu. Voxek “familia naturala” defendatzen du, ama eta aita buru dituen. Ildo beretik, Austriako FPÖ alderdiarentzat ere familia “gizonak eta emakumeak eta bien seme-alabek osatutako komunitate bat” da, “oinarria eta gakoa, gizarte batek funtziona dezan”. Eskuin erradikalako beste alderdi batzuk, berriz, ez dira hain zorrotzak gai horretan. AfD alderdiak “familia tradizionala” hartzen du eredutzat, baina alderdiko liderren artean badira eredu horretatik kanpo daudenak, hala nola Alice Weidel; argi eta garbi erakutsi du homosexuala dela, sortzez Sri Lankakoa den bikotekiderek bizi da, eta adopzioan hartutako bi seme ditu. Bestalde, Pym Fortuyn ere, Holandako zerrenda xenofobo bateko liderra eta 2002. urtean erail zutena, homosexual aitortua zen.

13. Zer diote eskuin erradikalak immigrazioari buruz?

Immigrazioaren aurkako diskurtsoa da eskuin erradikalen programetako puntu gogorrenetako bat. Alderdi horiek arazotzat hartzen dituzte etorkinak, lau ikuspegitatik:

- 1) Mehatxua direlako ahalik eta nazio-identitate homogeneoena izateko.
 - 2) Kaleetako kriminalitatearen eta segurtasun-faltaren iturri direlako.
 - 3) Langabezia eragiten dutelako (Frantziako Fronte Nazionalak kanpaina bat egin zuen 1978an, lelo hau hartuta: “Milioi bat langabetu sobera dauden milioi bat etorkin dira”).
 - 4) Ongizate-estatuaz baliatzen direlako, eta, horrenbestez, bertakoentzat subsidio eta laguntza gutxiago daudelako.
3. eta 4. puntuei dagokienez, eskuin erradikaleko alderdiek “lehenetasun nazionalaren” ideia proposatu dute (FNren “lehenik frantziarrak” ereduari jarraituz); hau da, lehenetasuna bertakoei ematea proposatzen dute hainbat arlotan: lana, etxebizitza, osasun-laguntza, etab.

14. Moralarekin jarraituz, iritzi publikoarekin dituzten harremanetan, gezurra esaten al dute eskuin erradikaleko alderdiek?

Eskuin erradikaleko alderdiek, arrazoiari baino, emozioei heltzeko joera dute. **Propagandaren “artearen”** ohiko baliabidea da; hau da, helburua ez da “egia” lortzea, baizik eta norberaren “egiaz” besteak konbentzitzea. Eskuin erradikaleko alderdiak gardenak dira immigrazioari, identitate nazionalari edota tradizioari buruzko proposamenetan, beren gai nagusietako batzuk aipatzearen, baina haien erretorikak herritarren emozioei heltzen die, eta beldurrak sorrarazten dituzte, beldurra etorkinari, “genero-ideologiari” edota, Voxen kasuan, separatismoari, Espainiaren batasunaren aurkako mehatxutzat hartuta. Haientzat, gezurra baliabide paregabea da hainbat gairen inguruko beldurrak pizteko eta elikatzeke, hala nola delinkuentziari eta emakumeen bortxaketei buruzko gaietan, bai eta “gurasoen betoa” eta “berriazko baimena” beharrezkoak izan daitezkeen gazteek sexu-hezkuntza jasotzeko. Sare sozialak komunikazio-bide pribilegiatuak dira haien mezu propagandistak zabaltzeko.

15. Laguna nolako, eskuin erradikaleko familia halako.

Europako eskuin erradikalaren munduaren konplexutasuna murrizteko modu bat da Europako Parlamentuan dauden talde politikoei erreparatzea. 2019tik, *Identitatea eta Demokrazia* taldean daude, besteak beste, AfD (Alemania), RN (Frantzia), FPÖ (Austria) eta Liga (Italia) alderdiak; talde horrek 76 eserleku ditu 704tik, eta Parlamentuko laugarren indarra da. *Europako Kontserbadoreen eta*

Erreformisten Taldean, berriz, Legea eta Justizia (Polonia), Flandriako Aliantza Berria (Belgika), Vox (Espainia) eta Suediako Demokrotak daude. Azkenik, *Europako Alderdi Popularra* taldean, *Fidesz* Hungariako alderdia dago; alderdi horrek, berak bakarrik, 13 eserleku ditu, baina, une honetan, talde horrekiko duen lotura etenda dago.

16. Nork ematen dio botoa eskuin erradikalari? Eta zergatik?

Hautesleek eskuin erradikaleko alderdiei babes emateko arrazoi nagusia **immigrazioaren aurkako erresumina** da, beste kultura batzuetatik datozen pertsonen kultura “nazionala” “desagerrarazten” eta “bertakoei” lana “lapurtzen” dieten aldetik. Espainian, bada beste arrazoi espezifikoago bat, lurralde-gatazka, bereziki Kataluniaren eta Estatuaren artekoa, azken urteetan ikusi denez.

Eskuin erradikaleko alderdien hautesleak (eta horien buruzagiak), oro har, **gizonezkoak** dira, **langile-klaseko boto-emaeleen ordezkariak handiarekin**, eta goi-mailako ikasketak dituztenen ordezkariak txikiarekin. Alderdi horien hautesleek lehen bozkatzen zituzten aukerei dagokienez, kolore askotako aukerak ageri dira, herrialde bakoitzeko testuinguru politikoaren arabera (esaterako, lehen alderdi komunista indartsu bat egotea) edo ekonomia-alorreko proposamenen arabera. Frantzian, oso argi dokumentatuta dago botoak Alderdi Komunistatik Fronte Nazionalera joan zirela. Alemaniari dagokionez, 2017ko hauteskunde federalen ondoren egindako azterketen arabera, Alemaniarentzako Alternatiba alderdiak 1.200.000 abstentzionista mobilizatzea lortu zuen, eta, horrez gain, beste alderdietako boto-emaeleak erakarri zituen: CDUko 1.070.000 boto-emaele, sozialdemokraten 470.000 boto-emaele, eta Ezkerrako 400.000 boto-emaele. Angela Merkelen Gobernuak bultzatutako migrazio-politikaren aurkako protesta izan zen % 64,2k AfD hautatzeko izandako arrazoia. Bestalde, Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) 2019ko urtarrileko barometroaren arabera, hauek ziren Voxi botoa emateko asmoa zuten hautesleen jatorriak: % 28,02 PPko boto-emaele ohiak ziren; % 20,25, Ciudadanosekoak; % 16,97, beste alderdi batzuetakoak; % 13,70, abstentziora jotzen zutenak; % 11,25, Unidos Podemosekoak; eta % 1,8, PSOEkoak.

17. Eskuin erradikala eta teoria konspiratzaileak

Teoria konspiratzaileetan sinestea pentsamolde sektarioen ezaugarria izan ohi da, eta, politikaz ari garenean, muturreko pentsamoldeena. Eskuin

erradikalak horren adibide garbia dira. Nazionalismoa eta xenofobia “esparru nagusizat” dituzten alderdi horientzat, immigrazioa “kapital handiaren” zerbitzura dagoen arma bat da. Masen migrazioa ez luke eragingo bizi-baldintza hobek bilatzeko edo gerra-gatazketatik ihes egiteko nahiak; hau da, herrialde garatuetao klase politika aurrerakoiek antolatua litzateke, etorkizuneko boto-emaileak “inportatzeko”. Victor Orbán Hungariako lehen ministroak, *Fidesz* alderdikoak, George Soros izugarri aberatsa (eta judua) egin du konspirazioaren erantzulea. Kiko Fernández Monasteriok, Vox alderdiaren idearioa eraikitzen funtsezkoa izan den pertsona, honela dio: “Soros esperantoa hitz egiten hasi zen pertsona bat da. Mundialista bat da”, hau da, kosmopolita bat. Espektror ideologiko horretan, bada mugimendu feminista, XX. mendearen hasieran, Rockefeller Fundazioak finantzatuta sortu zela adierazten duenik ere. 2020ko otsailean TVE katean egindako elkarrizketa batean, Santiago Abascal, inongo frogarik aurkeztu gabe, adierazi zuen Venezuelako Gobernuak agintzen duela PSOE eta Podemos alderdien arteko koalizio-gobernuan, Podemosi buruzko informazio konprometigarria delako. Eta abar, eta abar...

18. Historia, lehiarako eremu

Eskuin erradikalak urrun samar dauden iraganak idealizatzen ditu, egungo errorekei aurre egiteko iparrorratzat balio baitute. **Mitoak eta legendak** baliatuz, **historia berreraikitzen dute, orainaren zerbitzura jartzeko**. Voxi dagokionez, Santiago Abascal Espainiaren Historiako hiru “gertaera garrantzitsu” nabarmentzen ditu: Errekonkista, Hispanitatea eta “frantziarren aurkako gerra”. Haien arabera, diru publikoa erabili eta zinema-ekoizpen handiak egin beharko lirakeke mito horiek zabaltzeko: “Espainiarrok geure burua hobeto ezagutzen lagunduko lukete. Mereziko luke horretarako diru publikoa erabiltzea, ekoizleak ez ezik, ikusleek ere irabazi egingo bailukete”. Nolanahi ere, prozesu historiko horien irakurketak zerikusi gutxi izan ohi du itzal handiko historialariek gaiari dagokionez frogatzen dutenarekin. Henry Kamen historialariak adierazten duenez, “Ez zen Errekonkistariak izan. Militarren kanpaina bakar batek ere ez ditu zortzi mende irauten”. Bestalde, José Álvarez Junco historialariak azaltzen duenez, ez zen frantziarren aurkako “Independentzia Gerrarik” izan; hau da, Frantziaren eta Ingalaterraren arteko nazioarteko gerra bat izan zen, Espainiako lurraldean egin arren.

19. “Garrantzirik gabeko” gauzen garrantzia: ikurrak eta eskuin erradikalak

Eskuin erradikalen praktikak eta diskurtsoak identifikatzeko, lagungarriak dira hiru adierazle hauek: teoria konspiratzaileei heltzeko joera, Historia desitxuratzeko, eta nazio-ikurrei ematen dieten garrantzia. Aberriaren ikuspegi nazionalistaren ikur diren aldetik, eskuin erradikalak **ikurrak (esaterako, banderak), oroimen-ekitaldiak eta “oroimen-lekuak” sakralizatzen** joera dute; esaterako, pentsa zer eztabaida izan diren Espainian Erorien Haranari buruz edota frankismoarekin lotutako kale-izenak dituzten herri eta hiriei buruz. Zenbaitetan, langile-klasearen ikurrak “banpirizatzen” ere iritsi dira, hasiera batean beren ikuspegietatik urrun dauden gizarte-sektoreetara iristeko. Zenbait hauteskudetan, Frantziako Fronte Nazionalak bere egin izan ditu sozialismoaren pertsonaia historikoak, hala nola Léon Blum eta Jean Jaurès, haiek “botoa FNri emango ziotela” ondorioztatuta.

20. Zer-nolako gobernu-itunak egin nahi dituzte eskuin erradikalak?

Haien helburua gobernu-alderdi bihurtzea izanik, eskuin erradikalak aberria eta immigrazioa beren gai izar bihurtuko dituzten indar politikoekin egin nahi dituzte itunak. FN/RN alderdiak “osasun publikoaren eta Frantziako Errenazimentuaren aldeko borrokan” indarrak batu nahi dituzten alderdi guztiei dei egiten die. Hau da, eskuineko alderdien itun bat defendatzen dute. Bestalde, AfD alderdiak CDU eta CSU bavariarrarekin egin nahi ditu akordioak. Baina, ez batean, ez bestean, ez dute helburua lortu: “osasun-hesiek” ez die utzi.

21. Beldurretik gorrotora

Europar, Estatu modernoaren zilegitasuna segurtasuna babesteak dakar; lehenbizi, segurtasun fisikoa, baina baita segurtasun existentziala ere (hala nola gaixotasunaren edo langabeziaren aurkakoa), ongizate-estatuari esker. Eskuin erradikalak zalantzan jartzen dute Estatu segurtasun hori, gaur-gaurkoz, babesteko gai denik. Immigrazioak, kultura judu-kristauaren tradizioetik urrun dauden herrialdeetatik etorritakoak, bereziki, segurtasuna ahuldu du, maila guztietan: fisikoa (delinkuentzia), identitarioa (“oinarri nazionalak” deuseztatzea) eta probidentzia-estatuaren oinarrien ahultzea (etorkinek estatuko baliabideen zati izugarria xurgatzen dute, “bertakoei” kenduz). Diagnosi horren aurrean, eskuin erradikalak gorrotoa zabaltzen dute “kanpoko etsaiaren” (etorkinen) aurka, bai eta, kasuen arabera, “barne-

etsaiaren” aurka ere (ijitoen eta juduen aurka, edota, Espainiako kasuan, nazionalista katalanen eta euskaldunen aurka). Demokraziaren funtsa gehiengoak gobernatzeko da, baina baita gutxiengoaren eskubideak babesteko ere. Segurtasuna nahi izatea oso sentimendu gizatiarra da; beraz, bizikidetzaz zaindu beharreko balioetat hartzen badugu, etorkinak gorrotatzea ezin da inoiz konponbide bat izan.

22. Zer bide edo baliabide erabili dira eremu politikoan eskuin erradikaleko alderdien aurrean?

Eskuin erradikaleko alderdiei aurre egiteko hiru estrategia bereiz daitezke: 1) Mugatzea: hau da, ordena demokratiko liberala onesten duten gainerako alderdi politikoen (komunistek, kontserbadoreek, liberalek, berdeek eta sozialdemokratek) ez dute haiekin hartu-emanik izango, “osasan-hesiak” ezarritik. 2) Kooptatzea: hau da, gainerako alderdiek ez dute eskuin erradikaleko alderdiekin negoziatuko, baina haien zenbait ideia onar ditzakete, immigrazioarekin eta kulturantzatasunarekin lotutako gaietan, batez ere. 3) Kontuan hartzea: alderdi horiek aitortzea eta normalizatzea dakar; hala gertatu zen, esaterako, Italian 1994an, Silvio Berlusconi gobernu-koalitziorako ituna sinatu zuenean Aliantza Nazionalarekin, faxismoarekin nolabaiteko lotura zuen alderdiarekin (lehen aldia izan zen European, II. Mundu Gerraz geroztik).

23. Osasan-hesiak eskuin erradikalen aurrean?

Mugatze-lerro bat, osasan-hesiak, ezartzea izan da Europar ultraeskuinaren duen gorakadari aurre egiteko moduetako bat. Finean, neurri horrek eskuin erradikaleko alderdiak hartu-eman politikoetatik kanpo uztea dakar berekin. Belgikako alderdi flandriarrak izan ziren aitzindariak neurri hori ezartzen, 1989an, hain zuzen; formalki adostu zuten akordioak ez egitea Bloke Flandriarrarekin, sezesionismoaren aldeko eta immigrazioaren aurkako alderdiarekin (gerora, Flandriarren Interesa izena hartu zuen; biak ala biak VB). Osasan-hesiari bere horretan eutsi zaio 1992tik. Frantziara, esaterako, “fronte errepublikarra” aktibatu izan da, FN/RN alderdiko hautagaiak presidentetzahauteskundeetako bigarren itzulira pasatu diren bakoitzean, botoa hautagai alternatibo batengan bilduz. Alemanian, orain arte, ongi funtzionatu izan du AfD alderdiaren aurkako osasan-hesiak. Herbehereetan ere aplikatu izan zaio Geert Wilders buru duen PVV Askatasunaren Aldeko Alderdiari (2010-12 aldia salbu), bai eta Suedian ere, Suediako Demokratak (SD) alderdiari. Dena den, askotariko arrazoiak direla eta, herrialde horietan guztietan osasan-hesiek (ez ofizialek) hausturak izan dituzte, tokiko eta eskualdeko politikarien artean, bereziki. Espainian, PP eta Ciudadanos alderdiek –Voxen aliatu izan daitezke– onartu egin dute alderdi ultraeskuindarrarekin negoziatzea, parlamentuan haien babesa lortzeko. Voxek ez du zuzenean parte hartzen erkidegoko gobernu bakar batean ere, baina, kanpotik, Gobernuaren agenda baldintzatzen du.



ZAs!
Zurumurruen | Red Vasca
Aurkako Sarea | antiRumores



LEHENDAKARITZA
Gizta Eskubide, Biziaketa
eta Lankidetzaren Itzulkaritza Nagusia
Bildumen eta Gizta Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos